ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-06-13
ASTELEHENA
325. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Debagoienak alkate berriak ditu

Normaltasuna nagusi zapatuko saioetan | 16



Oñatiko Idoiaga eta Biain. | J.C.

AHTren obrak geratzeko eskatu dute Arrasaten, "arrazoiak daudelako" | 4




Hiru hizkuntzako eredua bailarako lau ikastetxetan | 2



Kortabarria eta Zamakona nagusi Eskoriatzako gaueko proban | 22



# HANKAZ GORA ERE, BIKAIN!

Koadrilen eguna ospatuko dute gaur bergararrek. Asteburuan jendetza ibili da Pazkoetan, gau eta egun | 12

Errekortadoreek ikuskizuna eman zuten atzo, zezen plazan.

JULIO CALLEJA

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU !

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA

Txartela, beti aldean

► ZOAZ 9. ORRIALDERA

Lanerako gertu!



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep

Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012
Informazio jardunaldiak

| MGEP | | OÑATI Gestio Heziketa | |
|---|---|---|---|
| ekainak 14 (asteartea) 18:00 5001 Gela | • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua. | ekainak 16 (osteguna) 18:00 | • Administrazioa eta Finantzak • Idazkaritza • Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a |
| Kontsulta pertsonalak: | | | |
| 943 71 21 91 E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu | | 943 71 80 09 E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu | |

# Bailarako eskolak, euskaldunak eta kanpora irekiak


Arizmendi ikastolako LHko 1. mailako ikasle batzuk, ingeleseko orduan. | LEIRE KORTABARRIA

- Ikasleak ingelesean trebatzeko planean sartu dira Antzuola, Bergara, Arrasate eta Oñatiko eskolak
- Horrenbestez, Debagoieneko ikastetxe gehienek izango dute eleaniztasun programaren bat

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eleaniztasuna gero eta gehiago zabaltzen dabil Debagoieneko ikastetxeetan. Dagoeneko hainbatek dute atzerriko hizkuntza –ingelesa– euren metodologian eta irakasteko tresnen artean txertatuta, eta irailetik aurrera, beste lau eskolatan hasiko dira lantzen: Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolan, Antzuolako Herri Eskolan, Oñatiko Errekalde Herri Eskolan eta Arrasateko Herri Eskolan. Ikastetxe horiek Hezkuntza sailburu Isabel Zelaak iaz bultzatu zuen programa pilotuaren bigarren fasean sartzen dira, hortaz, Gipuzkoako beste 24 ikastetxe bezala.

Hizkuntzak Irakasteko, Ikasteko eta Ebaluatzeko Markoa ezartzea da programa horren helburua, eta ikastetxeek borondatez ematen dute horretarako izena. Gainera, Zelaak behin eta berriz esan du "programa malgua" dela, eta horrek esan nahi du ikastetxe bakoitzak euskara, gaztelania eta ingelesa zelan erabiliko duten proposatzeko burujabea izango dela, baldin eta hizkuntza bakoitza astero gutxieneko ordu kopuru baten komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen badute.

Oraingoz, planak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleei eragiten die.

Helburua da ingelesez aritzeko nahikoa gaitasuna ematea ikasleei.

## Ingelesa eskolan bertan ikasi

Programa horretan oraintxe sartzeak ez du esan nahi eleaniztasunean berriak direnik bailarako lau ikastetxe horiek. San Martin Agirre ikastetxeko zuzendari Begoña Otxoaizpuruak dioenez, "urteak" daramatzate eskolan "hizkuntzen trataera bateratuan". Horrela, bere esanetan: "Araudia ikusi genuenean, konturatu ginen bete-betean hartzen zuela guk eskolarako nahi genuena".

"Irakasleek pixka bat gehiago egin beharko" dutela onartzen du, baina gogoratzen du Eusko Jaurlaritzak irakasleondako ikastaro bereziak dituela.

Irakaskuntzari dagokionez, "gai guztiak hiru hizkuntzetan landuko dira. Ikasleek hiru proiektu egingo dituzte, bat euskaraz, beste bat gaztelaniaz eta beste bat ingelesez. Horrela bada, aldi berean, aste berean, hiru proiektu lantzen egongo dira, bakoitza hizkuntza baten", azaltzen du Begoña Otxoaizpuruak.

Modu apalagoan, baina ahal zuen baliabide guztiekin ere landu du Antzuolako Herri Eskolak hirueletasuna. Orain, lehenengo aldiz, irakasle bat izango dute bereziki ingelesean sakontzeko ikasleekin, eta Hezkuntza Saila programa aurrera eramateko. Aldea da orain ingelesa komunikazio-hizkuntza ere izango dela, euskara izan arren komunikazio -hizkuntza nagusia.

Oñatiko Errekalde Herri Eskolan ere apustu hori egin dute, Jose Fernandez zuzendariaren hitzetan: "Gure proiektua da arlo batzuk –Informatika eta Ingurune gai batzuk– ingelesez ematea 4. mailakoei. 12 ikaslerekin hasiko gara. Gure guraso elkarteak interesgarritzat jo du eta aurrera egitea erabaki dugu". Honakoa gaineratzen du: "Errealitatea da guraso askok seme-alabak akademietara eramaten dituztela ingelesa ikastera, eta guk, eskola publikoan, beti eskatu izan dugu hizkuntza eskola publikoa izatea eta ingelesa erakusteko aukera izatea".

Beraz, euskarak euren hezkuntzaren oinarria eta komunikazio-hizkuntza izaten jarraituko du, baina ingelesa eskolan bertan ikasiko dute ikasleek.

## Hizkuntz Proiektuaren arabera

Itunpeko ikastetxeekin hitzarmena eginda dauka Hezkuntza Sailak, haiek ere hezkuntza proiektu hirueledunak aurrera eraman ditzaten. Hezkuntza Sailaren arabera, 2008-2009 ikasturtean 101 ikastetxe zebiltzan EAE osoan hizkuntzen tratamenduari buruzko jarduerak egiten.

Debagoieneko ikastola guztietan Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak prestatutako Hizkuntz Proiektua eramaten dute aurrera. 90eko hasieran ekin zioten horri Gipuzkoako ikastolek. Helburua da "hizkuntzak ikastea eta euskararen erabilera eremu guztietara eramatea".

Proiektu horren oinarria da goiz (4 urterekin) jartzea ikasleak atzerriko hizkuntzarekin harremanetan. Bailarako ikastolek ere hala egiten dute: 4 urteko ikasleak saio laburretan hasten dira ingelesa ikasgai gisa ematen;

## Ingelesa, aisialdiari eta jolasari lotua

Ikastetxe bakoitzak bere erara eta bere baliabideekin, ingelesa ikasleen bizitzara gerturatzen ibili dira azken urteotan. Oñatiko Errekalde Herri Eskolako zuzendari Jose Fernandezen hitzetan, "errealitatea hor dago, eta epe laburrean ingelesa edonon egongo da". Hala, hizkuntza plan berriren baten sartuta egon edo ez, ikastetxeak gogoz ahalegindu dira unean zituzten baliabideekin errealitate hori ikasgeletara ere eramaten.

Askok aisialdiaren eta jolasaren bidea aukeratu dute. Hala, Ikastolen Elkarteak badaroatza urte batzuk ingelesezko udalekuak antolatzen, eta baita beste udako aisialdiko ekintza batzuk ere: barnetegiak, atzerrian egonaldiak...

Ikastola batzuek euren kabuz antolatzen dituzte jarduera horiek: Enjoy English da mota horretako programa ezagunena. Herrian, ingelesa ama-hizkuntza duten begiraleekin udaleku irekiak antolatzen dituzte, eta ikasturtean zehar ingelesezko antzerki emanaldiak eta antzeko ekitaldiak.

Edozein modutan, badaude beste bide batzuk, beste herrialde eleanitzetan –Herbehereetan, Europako iparraldeko herrialdeetan...– arrakasta izan dutenak, ingelesa pixkana-pixkana ikasteko edo belarria ohitzen joateko: adibidez, filmak edo telesailak ingelesez ikustea, azpitituluekin; edo ingelesezko abestiak hiztegi baten laguntzarekin itzultzea.



Txantxiku Ikastolako Enjoy English programako taldea, 2009an. | GOIENA



Lehen Hezkuntzan, sakondu egiten dute; eta DBHko 3. mailan, ikasgai bat –normalean, Gizarte Zientziak– ingelesez emateko aukera dute; ikastola batzuetan, aukeran ematen dute, eta beste batzuetan, denek ingelesez ematen dute ikasgai hori, kasu bereziren bat salbuetsita; eta, horrez gain, DBHn ere ikasgaitzat izaten jarraitzen dute ingelesa.

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak (Kristau Eskola sareko kidea) helburutzat dauka bere ikasle guztiek "DBH bukatzen dutenerako EAEn ofizialak diren bi hizkuntzetan erabateko konpetentzia" izan dezaten; baina "helburu berbera" dute ingeleserako. Orain dela bederatzi urte, Elkar Hezi ikastetxe pilotua izan zen HH eta LHtik hasita ingelesa eduki bidez ikuspegi komunikatibo batez lantzen, INEBI programarekin.

Elkar Heziko zuzendari Juankar Olaetak azaltzen duenez, "ikastetxe bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera antolatzeko" aukera dauka, eta "bakoitzak bere helburuak finkatu" ditzake: "Guk badakigu zein den gure helburu linguistikoa". Hala, adibide hau ipintzen du: hiru hizkuntzetarako gutxieneko ordu kopuru bat ezarrtzen du Hezkuntza Sailak; baina Elkar Hezin gaztelania ikasgai gisa ematen dute, eta erabaki dute horrekin nahikoa dela.

Bestetik, Elkar Hezin, 5. mailatik hasten dira ingelesa lantzen. "Seguru asko, 4. mailara aurreratuko dugu. Beste asmo bat da bi arlotan, LHn eta DBHn, unitate didaktikoak hiru hizkuntzatan lantzea; baina ikastetxe bakoitzak erabakiko du zelan egin hori", esaten du Olaetak.

**PANTXIKE ARIN** | ANTZUOLAKO ESKOLAKO ZUZENDARIA

## "Tutorearekin landuko dute ingelesa 4. mailako gure ikasleek"

Irailean hirueletasun programan sartuko da Antzuolako Herri Eskola. Euren kasua berezia da, ikastetxe txikia izanda, ahalegin handia egin dutelako euren ikasleei aukera berri hori emateko. Pantxike Arin zuzendariaren esanetan, irabazteko asko dute ikasleek.

**Zenbat ikaslerekin hasiko zarete hirueletasuna lantzen?**
4. mailakoekin hasiko gara. 22 ikasle dira.

**Zelan gauzatuko duzue programa hori?**
Gure proiektua lantzen gabiltza oraindik, eta erabakiko dugu. Dena dela, euskara da gure komunikazio-hizkuntza, eta horrela izaten jarraituko du.

**Aurretik zerbait landuta bazeneukaten, ezta?**
Bai. Gure esku zegoena egiten joan gara, ingeleseko irakaslearen eskutik. Hala, ikasleek 4 urte dituzteneaningelesa ikasten dute jolasen bitartez, bi ordu astean; eta ondorengo mailetan ere, ahal izan danian, gaien zatiak ingelesez landu izan dira .

Hemendik aurrera, gure asmoa da tutoreak hartzea ardura hori bere gain.

**Zer dela eta erabaki duzue orain egitea bat Hezkuntza Sailaren programarekin?**
Orain arte, gure lan-taldean ez geneukan nahiko baliabiderik, lan hori egiteko. Baina aurten, ordezko irakasle bat egon da eta Hezkuntza Sailak esan digu egonkor egingo dutela, proiektuak irauten duen bitartean. Hori aprobetxatzea erabaki dugu irakasle horrek tutore lanak egin ditzan. Lehen ere saiatzen ginen urratsak egiten.

**Berritasun handia izango da... Zer diote familiek?**
Erabakia klaustroak, gurasoek eta Eskola Kontseiluak onartuta dago. Egia da, bestalde, airean geratu dela halako kezka bat. Hainbat ikastetxetan kezka hori dago, eta guk ulertu eta konpartitu egiten dugu. Horrelako programa bat ezin daiteke edozein hizkuntz baldintzatan egin.

**Euskara, gaztelania eta ingelesa landu eta erabili beharko dituzue. Zelan egingo duzue?**
Legeak esaten du bakoitza %20 erabili behar dela, baina proiektuka lantzean ez dago horrela sailkatzerik. Herriko hizkuntza euskara da eta Antzuolan euskara ez dago arriskuan; bestalde, ingelesean hobetu dezakegu. Uste dugu irabazteko gehiago dugula galtzeko baino.

### DATUA

**118**

IKASTETXE

Datorren ikasturtean, EAEko 118 ikastetxe (publiko eta kontzertatu) ibiliko dira eleaniztasuna lantzen.

### ESANAK

**"Euskarak arreta preferentea dauka eleaniztasun planean; euskara jakitea bermatuta egongo da"**

**ISABEL ZELAA** | HEZKUNTZA SAILBURUA

**"Eleaniztasunak ez dauka atzera biderik, eta hizkuntzak elkarren lagun izango dira, ez aurkariak"**

**ISABEL ZELAA** | HEZKUNTZA SAILBURUA

## Eleaniztasun planaren gakoak

**BIGARREN URTEA**
Hezkuntza Sailaren eleaniztasunaren plan pilotuak 2. fasea du datorren ikasturtean. Bailarako lau eskola publikok bat egingo dute horrekin.

**MALGUA**
Hezkuntza Sailak ezartzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez gutxienez %20 irakatsi beharra, baina ez da baldintza zurruna: ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera moldatuko da.

**ITUNPEKOAK**
Bailarako itunpeko ikastetxeek euren eleaniztasun programak dituzte.

**EUSKARA, LEHENENGO**
Plan pilotuan sartzen diren eskola guztietan euskak jarraituko du izaten komunikazio-hizkuntza, eta leku preferentea izaten jarraituko du euskarak.

**LAGUNTZAK**
Hezkuntza Sailak lagunduko die eskolei irakasleak prestatzen, eta diru-laguntza bat ere emango du.

**HELBURUA**
Programaren helburua da euskal eskolako ikasle guztiek euskara maila eta arlo guztietan menderatzea, eta ingelesean aritzeko "nahikoa gaitasuna" izatea.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2011
apirilak 16
ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19
Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





Manifestazio buruko pankartaren atzetik, AHTren kontrako halako gehiago edota banderak ere ikus zitezkeen. | J. CALLEJA

# "2.500 lagun Arrasaten, AHT gelditzeko arrazoiak badaudelako"

Azpiegituraren kontrako manifestazio nazionala era baketsuan joan zen

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Abiadura Handiko Trenaren aurkako sektore sozial anitzen bilgune izatea zuen helburu zapatuko manifestazio nazionalak; azpiegitura horren obrak geratu, gizarteari erabakitzeko eskubidea "itzuli" eta egungo garraio eta lurralde antolaketa ereduaren gaineko eztabaida soziala irekitzearen alde dauden sektoreak mobilizatzea. AHT Gelditu! Elkarlanak deitu zuen eta 2.500 pertsona batu zituen, antolatzaileen esanetan.

Aralarreko batzarkide Rebeka Ubera, Bilduko batzarkide Ander Rodriguez, AHT Gelditu! Elkarlaneko Mila Elortza edota Zutik-eko Joxe Iriarte *Bikila* joan ziren manifestazio buruan, *AHT gelditzera goaz! Tenemos razones para parar un tren* zihoen pankarta eskuetan.

Era baketsuan joan zen protesta ekitaldia. Sebero Altubetik atera eta herriko kaleak zeharkatu zituen. Ibilbidean zehar, bi pankarta eskegi zituzten: *Txikitzaileak txikitu* zihoen batek; eta *4.790 euro bakotxak,* besteak.

**Bukaera Biteri plazan**

Ibilbidea osatuta, Biteri plazan egin zuten amaiera-ekitaldia. Manex Agirrek eta Jokin Labaienek bina bertso bota zituzten. "Aramaion egindako apurketak txikitu duten guztiaren lagin bat" direla esan zuen kantuan lehenak; eta *Paparra jaitsi, patrikak hustu, ta eskatu barkamena / hori da herri honetan egin daitekeen obra onena* kantatuz bukatu zuen bertso saioa bigarrenak.

Zapatuko manifestazioa AHTren kontra egiteko ez ezik, bestelako azpiegitura erraldoien kontra egiteko ere izan zen: Pasaiako superportuaren aurka egiteko, esaterako. Euskal Herrian ukitu gabeko kosta zati gutxi batzuk baino ez daudela eta horiek zaintzeko eskatu zuten.

**Bisita berezia Aramaion**

Atzo, bestalde,Kataluniako Ingurugiro Zientzietako Elkarteko bederatzi kide Aramaion izan ziren eta "inpaktatuta" geratu ziren AHTko lanekin.

## Jon Armentiak utzi egin du Debagoieneko Ospitaleko zuzendari-gerente kargua

Gasteizkoak Arabako unibertsitate-ospitalea zuzenduko du aurrerantzean. Santiago eta Txagorritxuko ospitaleek osatzen dute unibertsitate -ospitalea eta hilabete honetan bertan hasi asmo dituzte kanpo kontsultetarako eraikineko lanak. Bederatzi hilabete egin ditu Debagoieneko Ospitalearen zuzendaritza karguan, 2010eko irailean Jose Luis Angulori –ordura arteko gerentea– erreleboa hartuta. Armentiari lekukoa nork hartuko dion erabakitzeke dago.

## Giza duintasun unibertsalaren aldeko deklarazioa Afrikako Astean

*Zerbait gehiago, aurretik* izena eman diote adierazpenari, giza eskubideak eta askatasuna "egoera larrian" daudelako zenbait herrialdetan eta, horien alde, "zerbait gehiago" egin beharko lukeelako nazioarteko komunitateak, euren esanetan. Adierazpena aurkeztuta, bukatutzat eman dute Afrikako V. Astea. *Demokratizazioa, etnizitatea eta itxaropena: Ekuatore Gineako Bubi herriaren kasua* izenburupean garatu da eta parte -hartze zabala izan da.

# Hiruatxek lanean jarraitzeko indarrak batu ditu 20. urteurreneko ospakizunean

Bi hamarkadatako lana ospatzeko jaia egin zuen bariku arratsaldean

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Festa egin zuen Aretxabaletako Hiruatx Gobernuz Kanpoko Erakundeak bariku arratsaldean, 20 urtetan herrialde pobreei eta garapen bidean daudenei laguntzen egindako lanak ospatzea merezi duelako.

Arratsaldeko zazpietan hasi zuten urteurren festa, Mitarte kalean. Indian aurrera eramandako proiektuak ezagutarazi zituzten bertan, eta Inazio Galdos gogora ekarri, Indian bizi den misiolari aretxabaletarraren laguntza ezinbestekoa izan delako herrialde hartako proiektuak gauzatzeko.


Jaiki elkarteko kideak afrikar dantzak egiten. | MIRARI ALTUBE

Loramendiren egoitza parean egin zuten hurrengo geldialdia eta Amerikako gunea finkatu zuten bertan. Mitarten Indiarekin egin moduan, Duranan Amerikara bidalitako laguntzaren berri eman eta horri esker gauzatutako proiektuen errepasoa egin zuten. Beñat Zamalloak 3-4 bertso bota zituen.

Eta Duranatik plazara, Afrikari eskainitako gunera. Informazioa banatu eta herrialde hartako giroaz gozatu zuten, afrikar doinuen erritmora dantzan egin zuten Jaiki elkarteko kideekin.

Egindako 12 proiektuekin hiru kontinentetara iritsi da Hiruatx eta hiruretan izan zen bariku arratsaldean, sinbolikoki izan bazen ere; trikitilarien konpainian egin zuten batetik besterako distantzia. Eta ospakizuna bukatzeko, Arkupera jo zuten, Brasilen abian jarritako proiektuaren gaineko xehetasunak emateko. Izan ere, 20 urte bete eta lasaitu beharrean, proiektu berri batean murgildu da Aretxabaletako erakundea, herrialde hartako MST elkartearekin batera.

**Eskerrak herritarrei**

Barikuko festa ez zen mugatu, ordea, orain arte egindakoen eta aurrera begirako asmoen berri ematera. 20 urteotan asko izan dira erakundearekin kolaboratu duten aretxabaletarrak eta erakundeko kideek eskerrak eman zizkieten, "lortutako emaitzak guztien artean ereindako haziaren fruituak direlako". Eman eta jaso, jaso eta eman, Hiruatxek aurrera egiteko indarrak batu zituen ospakizunean. Gustura geratu zen egunak emandakoarekin.

# Adierazpen askatasuna oinarrizko eskubidea dela aldarrikatu dute oñatiarrek aste bukaeran

MAIDER ARREGI | OÑATI

Oñatin aspaldian ikusi gabeko elkartasuna adierazi zien zapatuan ehunka oñatiarrek Realaren partidu baten presoen aldeko izara erakutsi izanagatik isuna jaso duen herriko gazteari. Antolatzaileen arabera, helburua bete da: lau mila euroko isuna ordaintzeko dirua batu dute. "Oñatiarren artean horrelako elkartasun sendoa adierazgarria da benetan, oso pozik gaude jendeak izandako jarrerarekin". Bazkarian 160 bat lagunek hartu zuten parte; tartean, goizean bertan alkate izendatu zuten Mikel Biainek eta Udal Gobernuko hainbat zinegotzik. Antolatzaileek, "gezurrean oinarritutako auzia" dela eta poliziek Salamancan erabilitako indarra salatu gura izan zuten.

**Manifestazio jendetsua**

Arratsaldean, *txaranganifa* egin zuten herriko kaleetan barrena, Oñatiko txarangak girotuta. Adierazpen askatasuna eskubidea dela eta ez delitua aldarrikatu zuten.



150 lagun inguruk manifestazioa egin zuen zapatuan. | IRATI GOITIA

# Movimento Sem Terrako kideak gurean izan dira

▸ Brasilgo elkarteko lau ordezkari izan dira gurean

▸ Lanki eta Mundukideren laguntza izan dute

A. ALKORTA/A. EZKIBEL | ARRASATE

Brasilgo Movimento Sem Terra (MST) Debagoiena bisitatzen ibili da egunotan. Elkarteko lau ordezkari, bi buruzagi politiko eta beste bi teknikari etorri dira eta besteak beste, elkarrizketak, bisitak eta formazio saio batzuk egin dituzte, ingurua ezagutzeko bisitak egiteaz gain.

Bisitaren helburu nagusia harremanak estutzea eta haiek eraiki nahi duten ereduarentzat erreferentziak hartzea izan da. Lanki eta Mundukideren laguntza izan dute MSTko kideek gurean.



Gurean izan diren MSTko ordezkariak. | MUNDUKIDE

**Esperientzia kooperatiboa**

Mundukidek eta Lankik, Esperientzia Kooperatiboa barrutik bizi dutenez, makina bat esperientzia dituzte MSTrekin lotutako eskualde ezberdinetako gizon eta emakumeekin partekatzeko. Horrela, bidelagun onak dira, erakunde indartsuagoak eraiki, giza eta natur baliabideak hobeto erabili eta inguruko giza eraldaketaren alde lan egiteko.

2007an Paranako eskualdean hasitako hiru urtetako fasea bukatutzat eman dute eta orain bigarren fasea hasiko dute. Garapen ekonomikoari buruzko programari izango da.

## Programaren hiru arloak

**ANTOLAKUNTZA INDARTZEA**

MSTri antolaketa laguntza emango zaio, kanpamendu eta asentamenduetako nekazariek elkarren artean antolatu eta beharrei erantzun egokia eman ahal izateko. Esperientziak trukatu eta beste erakunde batzuen aurrean aurkezteko bidea emango zaie.

**EKONOMIA SOLIDARIOA**

Ekonomia solidarioa izango da bigarren puntua. Eskualdeko asentamendu eta kanpamenduetako ekoizleei, produkzio eta gestio gaitasunak handitzen eta bideragarri izaten laguntzea, produktu ekologikoak ekoiztuz eta eraldatuz.

**GARAPENERAKO HEZKUNTZA**

Euskal erakunde eta Mugimendu kooperatiboari Brasilgo MSTk nekazaritza erreformaren alde duen borrokaren berri emango dio. Hiru puntuak batuko dituen programa garatzeko hiru urtetako fasea beharko dute.

# Ederlanek lantegi berria zabalduko du Txinan

A.E. | ARRASATE

Ederlan Kooperatibak 30 milioi euro inbertitu du Mondragonek Txinan (Kunshan) duen poligonoan fabrika bat eraikitzeko. Datorren urtean inauguratuko dute. Fagor Ederlan kooperatibak automozioaren sektorerako osagaiak fabrikatzen ditu. Dagoeneko fabrika eraikitzeko lanak hasi dituzte –proiektua LKS Ingeniaritza gidatzen ari da–, eta aurreikusita dago jarduera 2012an hastea, aluminiozko mangeta euskarrien fabrikazio guztiz mekanizatuarekin. Lantegiko jarduera zabaltzeko planaren barruan dago baita ere beste produktu batzuen mekanizazioa, horien artean burdinazko mangeta euskarriak eta balazta diskoak egonik, 2013. eta 2014. urteetan.

Aurreikuspenen arabera, bi milioi mangeta euskarri baino gehiago ekoitziko dira (gehienak aluminiozkoak), eta milioi erdi bat disko. Fabrika berriak operatibo eta errendimendu betean dagoenean 100 pertsona inguru enplegatuko ditu.



Erakustokian, besteak beste, sukaldeak daude. | JULEN IRIONDO

# Ekoitzitakoa ikusgai jarriko du Fagor Industrialek

625 metro koadroko 'showroom'-a zabaldu du Oñatiko Santxolopeztegi auzoan kooperatibak

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatiko Santxolopeztegi auzoan, Fagor Industrialen egoitza nagusiaren alboan inauguratu du kooperatibak *showroom* berria. Bost hilabeteko lanen ondoren eta 650.000 euroko inbertsioarekin 625 metro koadroko azaleradun gunea eraiki dute. Bertan jarri dituzte ikusgai lantegian egiten dituzten produktuen modelo berrienak: labeak, sukaldeak, garbigailuak, arropak lisatzekoa... eta bezeroei erakutsiko diete ze ezaugarri duten eta nola funtzionatzen duten.

Duela urtebete pasatxo ekin zion Fagor Industrialek *showroom*-en bitartez bezeroekin harreman mota berri hau izateari. Beste lantegi batzuetan jarri zituzten aurreneko erakustokiak, eta emaitza onak eman dituztela azaldu dute.

**Liderra bere sektorean**

Fagor Industrial bere sektoreko lider da Espainian, aurreneko enpresen artean dago Europan eta 10 garrantzitsuenen artean munduan. Iaz 180 milioi euroko fakturazioa izan zuen, batez ere atzerriko salmentek %5 egin zutelako gora; aurtengo aurreikuspena da atzerriko salmenta horiek %10 haztea.

# Gatazkak etikoki lantzen ikasteko ikastaroa egingo dute hilaren 18an

Baketikek antolatutako ikastaroaren matrikula 30 eurokoa izango da, eta bazkaria 15 euro

A.E. | OÑATI

*Gatazken lantze etikoa* izenburua darama ikastaroak. Bere helburua geure gatazkak etikoki lantzen ikastea da, bai geure eguneroko harremanetan sortzen direnak, baita gizarte- eta politika-mailan sortzen direnak ere.

Ikastaroa hilaren 18an izango da, Arantzazun. Baketikek antolatu du, eta ordutegia izango da: 9:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:30era.

**Bizikasi pedagogia**

Ikastaro honek bizikasi pedagogian barneratuko ditu parte hartzaileak. "Benetakotasun etikoa eta pertsonala bilatzea bultzatzen du geure arazoei eta zailtasunei aurre egiteko moduan", azaldu dute antolatzaileek. "Zentzua dugunetik heriotzaraino gatazkak ditugu bidelagun", gaineratu dute. Gatazkei modu eraikitzailean aurre egiteko gai ez bagara, bizitza korapilatu egiten dela diote. Eguneroko harremanetan sortzen diren gatazkei etikoki aurre egitea da asmoa. Dagoeneko hainbat lagunek egin dute ikastaro hau, eta balorazio positiboa da.

Ikastaroak adiskidetzeari buruzko modulua dauka. Bi formatutan eskainiko dute: batetik, egun bateko ikastaroa –hain zuzen hilaren 18an eskainiko dutena–; eta, bestetik azaroan aste bukaerako ikastaroa antolatuko dute.

Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da; eta, bazkaltzeko aukera ere egongo da. Bazkariko txartelak 15 eurotan salduko dituzte.

**Jesus Markaide** | Higiezinen agentea

# "Babestutako etxebizitza baten jabeari interesatzen zaio lurra erostea"

▸ Lurraren gaineko dekretua azalduko die Jesus Markaidek hainbat jaberi gaur, astelehena


Jesus Markaide higiezinen agente arrasatearra. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Jesus Markaide higiezinen agenteak, Etxebizitza Sailaren enkarguz, hitzaldia egingo du gaur, astelehena (Kulturate, 18:30), lurra erosteko eskubidea duten etxejabeei aukera horren inplikazio guztiak azaltzeko.

**Babes Ofizialeko Etxebizitzen (BOE) jabe batzuek lurra erosteko aukera dute. Zergatik egin da dekretu hori?**

2003az geroztik egindako BOEek bi berezitasun dituzte: batetik, administratiboki mugatuta daude transmisioa eta erabilera (ezin zaie edozeini saldu, eta Eusko Jaurlaritzak beti du erosteko eskubidea; eta prezio mugatu baten), etxebizitzak diru publikoaz eginda daudelako eta jendartearendako, herriarendako direlako. Erabilera aldetik, etxebizitza horietan ezin da edozein bizi; baldintza batzuk daude.

Bestetik, 2003tik hona egindako etxebizitzen lurra ez da jabearena, estatuarena edo gobernuarena baizik, eta Kode Zibilak dio lurraren gainean dagoena ere jabe horrena dela.

Bada, orain, antza denez, diru faltan dago gobernua. Banketxeek ez diote mailegatzen behar beste; hori da nire ustea. Orduan, gobernuak erabaki du bere ondare eskubideak saltzea, eta hortik dator dekretua. Lurra eskaini gura die baldintza batzuk betetzen dituzten ugazabei.

**Ze eragin izango du horrek etxebizitzaren jabearengan?**

Orain, etxebizitza horiek titularrei uzten zaizkie 75 urterako. Dekretu horren bidez lurra erosten duena beste edozein etxe-jaberen parekoa izango da, eta, 75 urte horien buruan, etxebizitza berea izango da.

**Eta zenbat balioko du etxebizitza horrek?**

Iaz, azaroan, atera zuten dekretuan esaten denez, balioak behera egiten du eta, hemendik 75 urtera, etxebizitza horrek ez du ezer balio. Bestalde, legeak ezartzen du lurrak %10 balio duela. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak honakoa esaten dio etxearen titularrari: "Orain etxeak 100 balio badu eta hemendik 75 urtera ezer ez, nik orain 110eko balorea jartzen diot eta denboran zehar berdin jarraituko du baloreak".

Gainera, BOEen prezioa handitzen joaten da, inflazioarengatik. Hala izan da azken 15 urteotan, eta pentsatzekoa da horrela segituko duela. Orduan, hortxe beste onura bat: prezioa gora joango da. Zenbatean? Azkeneko hamarkadan, %2,8 izan da inflazioa; aurreko hamarkadan, %3,7 izan zen.

Gutxi gorabehera, %5 eta %7 artean dago errentagarritasuna. Eta kontuan hartuta Miborra, bankutik ze finantzaketa lor daitekeen; eta, bestetik, Ogasunak ohiko etxebizitzako inbertsio gisa hartuko duela operazio hori… nire iritziz, interesgarria da jabeendako lur hori erostea. Hala, pentsa, gaur erosi eta hemendik 30 urtera Jaurlaritzari saltzen dionak %6 eta %8 arteko errentagarritasuna aterako du.

**"Gaur erosi eta 30 urtera saltzen duenak %8 atera ahal izango dio"**

**Lurra erosten duenak, etorkizunean saldu nahi badu, nori saldu beharko dio?**

Jaurlaritzak, legez, erosteko baimena du, baina ez derrigortasuna. Orain arte ez da arazorik egon eta erosi izan du, baina orain, entzun dudanez, ez dabil erosten. Baina egoera berezia da: buru-belarri krisian sartuta gaude eta ez dakigu noiz irtengo garen. Beraz, pentsatzekoa da baldintza horiek aldatu egingo direla, eta epe motzean bere onera bueltatuko dela. Izan ere, gobernuak ez baditu etxebizitzok erosten, zertarako egin behar ditu berriak? Hori berez bere lekura joango da, eta pentsatzen dut gobernuak erosteko eskubidea baliatuko duela.

**Jaurlaritzak erosi ezean, euren kabuz, pribatu bati saltzeko aukera badute jabeek?**

Oraingoz, ez. Hala ere, Gasteizen, etxe-agentziak hasi dira Eusko Jaurlaritzak erosi nahi ez zituen etxebizitza horiek saltzen, baina ez dakigu hori legezkoa den ala ez, egoera berria delako.

Nik uste dut Etxebizitza Sailak arauren bat aterako duela laster. Ez dirudi arrazoizkoa berak ez erostea eta, gainera, saltzeko debekua jartzea.

**Ze lur sartzen dira arau horretan?**

Bakarrik etxebizitzari dagokion lurra. Garajeek erregimen berezia dute, eta libre geratuko dira.

**"Gobernuak dirua behar du, eta bere ondare eskubideak salgai jarri ditu"**

**Dekretu horrek polemika handia piztu du…**

Bai. Lurra erosten duena eta haren ondorengokoak etxebizitza horren jabe bihurtzen dira. Alderdi batzuk oso haserre daude. Etxebizitzak babes ofizialekoa izaten jarraitzen du, baina jabegoa titular jakin bati ematen diozu. Gai guztiz polemikoa da eta Jaurlaritzan ere argi dute hori. Baina dirua behar dute.

**Gipuzkoan, %39 etxebizitza gutxiago saldu dira urtarriletik martxora iazko epe berean baino. Etxebizitzak krisian jarraitzen du?**

Bai, eta nik uste dut luzerako dela. Eredua aldatu egin da: pentsatu izan dugu etxebizitzak sekula ez zirela merkatuko. Oinarrizko pentsaera hauxe zen: banketxeen balantzeen oinarria zela etxebizitza, eta banketxeek arbitratuko zituztela arauak. Baina azkenean, hara zer gertatu den.

## Gizonek soldata baloratzen dute gehien; emakumeek, ordutegia

L.K. | ARRASATE

Lan bila dabiltzan emakumeen laurdenek bakarrik dute soldata lehentasun gisa, eta 10 gizonezkotik seik. Horrela ondorioztatu du Jobssy.com 2.0 lan bilatzaileak, 500 erabiltzailerekin azterketa egin ondoren. Inkestatutako emakumeen %25ek bakarrik esan dute "nahiko garrantzitsua" dela eurendako hilean 1.000 euro baino gehiago irabaztea; aldiz, gizonen %60ek esan dute hori "nahiko edo oso garrantzitsua" dela.

Emakumeendako gizonezkoendako baino garrantzitsuagoa da lan ordutegia. Galdetutako emakumeen %64ek esan dute, neurri baten, begiratzen diotela ordutegiari enplegu bila dabiltzanean, baina bakarrik gizonezkoen %26ek esan dute gauza bera.

Jobssyren iritziz, alde horrek zerikusia dauka familia eta lana bateratzeko gizonek zein emakumeek egiten dituzten ahalegin desberdinekin: galdetutako emakumeen erdiek esan dute bateratze hori "oso" garrantzitsua dela eurendako, baina bakarrik gizonen %30ek esan dute gauza bera. Jobssyk nabarmentzen du gizonezkoen %13ek esan dutela familia eta lana bateratzea ez zaiela "ezer" inporta.

## Fagor Group-ek luxuzko hotel bat hornitu du Oranen, Aljerian

Fagor Group taldeak Aljeriako kostaldean dagoen Bahia Center luxuzko hotela ekipatu du, eta horrek nazioartean altzari eta etxetresna elektrikoetan duen posizioa "indartu" egin du, taldeak berak jakinarazi duenez.

Bahia Center Oran hirian dago, eta lau dorrek osatzen dute, bakoitza 120 apartamenturekin. Mediterraneo itsasertzean dago hiria.

Hotela eta bere instalazioak hiriko kaiarekin eta aireportuarekin komunikatuta daude, eta bertan ostatu hartzen dutenen "kalitatea, segurtasuna eta erosotasuna" bermatzen ditu, Fagorren esanetan.

## Euskadik 36.000 lanpostu 'berde' izan ditzake 10 urtean

Euskadik 36.000 lanpostu iraunkor (ingurumenarekin lotutakoak) izan ditzake 2020. urterako, Eusko Jaurlaritzak txosten baten bidez jakinarazi duenaren arabera. Industriaren posizioa, lehiakortasunaren aldeko apustua eta teknologiaren oinarria aipatzen ditu txostenak Euskadiko enpresak goraldian dauden merkatu *berdeetan* ondo kokatuta daudela azaltzeko.

Energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta tratamendua eta hondakin-uren tratamendua eta depurazioa dira Euskadin enplegu iraunkor gehien dituzten sektoreak: hurrenez hurren, enplegu mota horren %25,4, %23,8 eta %12,6.

## Euskal automobilgintza %14,2 hazi zen iaz, 9.500 milioi fakturatuta

Bernabe Unda Industria sailburua euskal automobilgintza Alemanian eta Austrian promozionatzen dabilen egun hauetan, sektorearen gaineko datu onak kaleratu dira: Euskadiko Automobilgintzaren Klusterraren (Acicae) arabera, euskal automobilgintzak 9.509 milioi euro fakturatu zituen 2010, aurreko urtean baino %14,2 gehiago; eta %4,2 enplegu sortu zituen, 34.750 lagun enplegatuta guztira.

Acicaeko presidente Julian Hernandoren arabera, "euskal automobilgintza sektoreak krisian galdu zuenaren zati bat berreskuratu" duela adierazten dute datu horiek.

Ines Zabala eta Leila Govillard | Fibromialgiako gaixoa eta Bizi Bide elkarteko psikologoa

# "Herritarren %5ek daukate fibromialgia eta horietatik %95 emakumezkoak dira"

- Bizi Bide elkarteak hitzaldia egin zuen maiatzaren 31n Arrasaten
- Gizarte Segurantzak ez ditu aintzat hartzen fibromialgia eta neke kronikoa

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Maiatzaren 12an ospatzen da fibromialgiaren nazioarteko eguna. Nerbio-sistemari eragiten dion gaixotasun kronikoa da, eta Euskal Herrian geroz eta pertsona gehiagok sufritzen dute. Bizi Bide elkarteak batzen ditu gaixo horiek, eta, aldika, Arrasaten bilerak egiten dituzte. Horietako bat aprobetxatu dugu gaixotasuna gertuagotik ezagutzeko. Fibromialgia duen arrasatear baten eta Bizi Bide elkarteko psikologoaren berbak jaso ditugu.

**Zer dira fibromialgia eta neke kronikoa?**

**Leila Govillard:** Fibromialgia, funtsean, giharretako, hezurretako eta lotailuetako min kronikoa da. Fibromialgia duten gaixoek neke kronikoa izaten dute. Dena den, beste adar bat dauka fibromialgiak: sentikortasun kimiko anizkoitzaren sindromea. Gaitz hori duten pertsonek intolerantzia dute, besteak beste, perfumeekiko, auto berri batek duen usainarekiko edota, detergenteekiko.

Bada, fibromialgiak duen beste adar bat da elektro-sentsibilitatea.

**Gaitza senda daiteke?**

**L.G.:** Gaitza kronikoa da; hortaz, ez da erabat sendatzen. Gaixo bakoitzak dituen sintomen eta patologiaren araberako tratamendua hartzen du. Adibidez, sentikortasun kimiko anizkoitzaren sindromea, batzuetan, jatorri zehatz bako alergia sindrome moduan diagnostikatzen da. Kasu horietan, antiestaminikoak hartzen dituzte. Gerta daiteke pertsona berak sintoma bat baino gehiago izatea: nekea, mina...

**Zenbat pertsonak dute gaitz hori?**

**L.G.:** Orain arte aipatu ditudanetatik fibromialgia da zabalduena eta diagnostiko gehien dituena. Biztanleriaren %5ek dauka gaixotasuna. Horietatik %95 emakumeak dira. Bestalde, sentikortasun kimiko anizkoitzaren sindromea duten pertsonen kopurua askoz txikiagoa da.

**Zergatik dira gehiengoa emakumeak?**

**L.G:** Fibromialgiaren etiologia ikertzen dihardute, eta badirudi emakumeei eragiten diela, gehienbat, genetikarengatik. Herentziazko gaixotasuna izan daiteke. Dena den, beste hainbat lesio izan daitezke fibromialgiaren oinarri.

Ikerlari batzuek esan izan dute halako gaixotasunen oinarria psikologikoa dela. Euskal Herriko Unibertsitatean ikerketa bat egiten dihardugu, 2005a ezkero, Maite Garaigordobilen zuzendaritzapean. Hango emaitzek erakutsi digute fibromialgia duten guztiek ez dutela aurrekari psikologikorik eduki. Heren batek bakarrik izan ditu aurrekariak.

Egia da, fibromialgia duten gehienek arazo psikologikoak izaten dituztela diagnostikoaren ondoren. Edozein gaiz kronikoren antzera, antsietatea handitu egiten zaie. Horri aurre egiteko tratamendua hartzen dutenean, psikologiko hobekuntza nabaritzen dute, baina nekea eta mina ez zaie kentzen.

**Ze adinekin garatzen da?**

**L.G.:** Ez dago adinik. Edonork izan dezake fibromialgia. Diagnostikoa nahiko zaila izaten da batzuetan. Jende asko egongo da fibromialgia duena, baina oraindik ez ditu sintomak agerian.

Adibidez, sentikortasun kimiko anizkoitzaren sindromea txikitatik izan dezakezu. Adinak aurrera egin ahala, sintomak agertzen zaizkizu. Diagnostikoa hurrengo pausoa da eta tratamendua zehaztea, azkena.

**Nolakoa da fibromialgia duen gaixo baten eguna?**

**Ines Zabala:** Oso gogorra. Nik, behintzat, ez ditut bi egun berberak izaten. Egun baten nahiko ondo nago, eta hurrengoan ezin nahiz ohetik jaiki. Egun berean ere gorabehera handiak izaten ditut. Energia txikia izaten dugu. Segituan nekatzen gara.

Adibidez, egunen baten etxetik kanpo bazkaria badaukat, arratsalderako indar barik geratzen naiz. Ezin dut etxekoen eta lagunen bizimodua egin.

**Nolakoa da etxekoekin duzun hartu-emana ?**

**I.Z.:** Zaila da. Ze gaixotasun duzun jakin arteko bidea luzea da. Diagnostikoaren ondoren ere gogorra da. Gainera, herentziazko gaixotasuna izan daitekenez, alabak beldurtuta daude.

**Gizarteak ze jarrera du zuekiko?**

**I.Z.:** Ulertu ezina. Akaso izan daiteke fibromialgiaren gaineko informazio gutxi dutelako.

**Fibromialgiako gaixoek duzuen beste erronka bat Gizarte Segurantzarekin da.**

**L.G.:** Osasunerako Mundu Erakundeak 1992an onartu zituen gaixotasunen zerrendan fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea. Bada, ez Osakidetzak, ez Gizarte Segurantzak ez dituzte gaixotasun bi horiek aintzakotzat hartzen. Ez dute, beraz, ezer egiten gaixo hauen minei irtenbidea aurkitzeko.

Euren esanetan, bizimodu normala egin dezakete, eta ez lukete arazorik izan behar lanera joateko.

**I.Z.:** Askotan, norberak duen mina baino gogorragoa da besteek eta erakundeek gurekiko duten jarrera pasiboa.

**Ikerketen bidez ezin daiteke frogatu gaixoen bizi-kalitatea asko txikitzen dela?**

**L.G.:** Ikerketak badaude, eta hainbat proba daude pertsona horiek duten min maila zehazteko. Bada, oraindik laborategietan erabiltzen dituzten probak dira, eta Gizarte Segurantzak ez ditu onartu. Erakundeen panorama asko aldatu beharko da fibromialgiaren gaineko erabakiak aldatzeko.

**Bizi Bide elkarteak batzen ditu Gipuzkoako gaixoak.**

**I.Z.:** Bai, hala da. Elkarteko psikologoarekin eta kideekin hainbat bilera egiten ditugu. Arrasaten biltzen gara. Askok ezkutuan mantentzen dute gaixotasuna, baina gurekin hartu-emanetan jar daitezke 943 32 01 41 zenbakian.



Ines Zabala eta Leila Govillard, Kulturateko sarreran. | MIREIA BIKUÑA

**"Fibromialgia duten gehienek arazo psikologikoak izaten dituzte"**

**"Diagnostikoa egin arteko bidea luzea da, eta ondorengoa oso gogorra"**

## ZABALIK



**LARRAITZ UGARTE**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Habibak milaka dira

Emakume magrebtar baten istorioa kontatzera natorkizue oraingoan. Habiba jarri diote izena. Emakume gaztea, 15 hilabeteko haurraren ama, bere senarrarengandik tratu txarrak pairatua, diruz larri, etxetik urrun, bakarrik...

Madrilgo ama eta haurren harrera etxe batera joan eta bertakoek ondo ez ikusi nonbait amak alabarekin duen harremana. Bularra modu kaotikoan ematen omen dio, haurrak negar egiten duenean, min hartu duenean... Harrera etxekoei hori gustatu ez eta esnea mozteko pilulak eman zizkioten. Neskak, baina, kriterio handiarekin hartu ez eta bularrarekin jarraitu.

Harrera etxekoek ama ona ez dela erabaki, ama mentalki perturbatuta dagoela ondorioztatu eta inolako informaziorik eman gabe alaba kendu diote, bahitu diote.

> **"Espero dezagun umea amari itzultzea lehenbailehen"**

Noski, prozesuan ez da inolako bermerik egon. Espainiar komunikabideren batean albistea xume atera da eta kitto. Ez da lehen aldia Madrilgo Adin Txikikoen Kontseilaritzak mota honetako bahiketa instituzionalak egiten dituena, epaitegiek gero horietako batzuk atzera bota badituzte ere.

Habiba buruz ondo dagoela dioten psikiatra eta psikologoak daude. Kasu hau sarean indarra hartzen ari da eta espero dezagun umea lehenbailehen bere amari itzultzea, baina habibak milaka direla gogora ekarri nahi nuke hemen. Ama *ona* zer den batzuek erabakitzen dute eta hortik kanpo dagoen emakume oro automatikoki txar bihurtzen dute, emakumeei umeak instituzionalki lapurtzera iritsiz. Komunikabideetan umeen lapurreta kasuak ugaltzen eta ume lapurtuak antolatzen ari diren honetan ezin ahaztu dezakegu egun ere, instituzionalki umeak lapurtzen ari direla hainbat: espetxeetan dauden emakumeei, bakarrik dauden etorkinei... Haurrek euren amak behar dituzte eta inori ez zaio utzi behar, emakumeongatik nolako amak izan nahi dugun erabakitzen, bularra edo biberoia eman, erabakia gurea baita.

## USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | 'jiriondo@goiena.com'

# Errealitatea ez da 'reality'-a

Lotsagarriak. Halakoxeak iruditu zaizkit Juanito Oiartzabalek esandakoak eta, are gehiago, esateko moduak. Himalaian gertatu zena, zehaztasunez, han zirenek ezagutuko dute, eta argi dut asko direla –ez bakarrik Oiartzabal– mendizaletasunaren izaera eta balioak desitxuratzen ari direnak –hortxe 14ak egiten lehenengo emakumea izateko lehian gertatu zena–. Dena dela, ez da lehenengo aldia Oiartzabali egoera larri batean, asko edo gutxi, lagundu behar izan diotena, eta hori baino umiltasun handiagoa behar luke gizonak. Bestela, hurrena, nork lagundu aurkitu ez eta Patagonia ez, mundu hau utzi beharrean aurkituko da halabeharrez.

## KALE INKESTA

# Pepinoa jateko beldurrik badaukazu?



**TATIANA SANCHEZ**
ARRASATE

"Niri pepinoa asko gustatzen zait. Dena ondo dagoela, arazorik ez dagoela esan dute. Guk etxean jarraituko dugu pepinoa jaten".



**JON GUILLEN**
ARRASATE

"Asko gustatzen zait pepinoa. Ez diot kasurik egin gertatutakoari eta entsaladan ez zait sekula falta. Ea dena normalizatzen den".



**LORENA ARMANDO**
ARRASATE

"Egia esan, ez diot kasu handiegirik egin kontu honi, baina ez dut guztiz sinistu. Dena den, ez zait gustatzen pepinoa, beraz, ez nau arduratzen".



**IGOR DORRONSORO**
ARRASATE

"Ez dut izan pepinoa jateko ohitura handiegirik. Hala ere, ez dit aparteko larritasunik edota beldurrik eragin kontu honek".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Zuzeneko musika

**Xabi Strubell**
http://berria.info/blogak/kulturak/

Duela gutxi Elorrion elkartu ginen hamaika musikari, bide oso desberdinetakoak, *musika-zuzenean* webgunearen festan.

Giro benetan aparta, jende andana eta askotariko proposamenak.

Bluesa, bossa, folk berria, umorera jotzen zuten musika alaiak, eta abar.

Argi dago musika akustikoak indarra hartu duela azken urteotan.

Alde batetik, uhin internazionala izan da.

Badirudi rockaren hamarkadaren eta elektronika eta DJen hamarkadaren ondotik, hamarkada berri honek akustikora eta analogikora jaisteko aukera ekarriko duela.

Izan ere, kontzertu akustikoak klasiko bat bihurtu dira pop izar handien ibilbidean.

Eta beste aldetik, musikariek gustua hartu diote –baita hemen ere– instrumentu soila eta ahotsarekin aritzeari.

Badirudi musika desmakilatu egin dela (ken makillajea eta makila ere!) eta bere sotiltasunera jaitsi dela.

Melodiak, akorde jirabira sotilak, ahotsek hartzen duten garrantzia.

Kantuen berezko indarrak.

Biluziaren estetika.

Ideia horiek guztiak nahiko argi geratu ziren Elorrioko kontzertu-festa hartan.

Zirrara batetik bestera ibili ginen gau guztia; kantari berriak ezagutuz, zaharragoen eraberriketak gozatuz eta, oro har, giro paregabe eta kitzikagarriarekin.

Interesa piztu zait aspalditik formatu gisa honegatik.

Nire formakuntza oso lotua joan da gitarra klasikoari, eta orain bueltak ematen nabilkio gisako disko bat egiteari.

Anari bera ere asko handitzen da bakarkakoan. Kontzertu akustikoek hitzetara itzultzen digute, ahotsera, kantuen esentziara.

Sorkunek abiatu duen birak ere –blues errepertorioarekin– bere ahotsa gertutik eta bere edertasun osoan gozatzeko aukera ematen digu.

Badirudi, beraz, biluzten ari garela gure musika eta musikari berriek ere bide horretatik lan txukuna egiten ari direla.

Apustu horrek zuzeneko musikaren panorama asko zabaltzen du.

Agian egunen batean gure herrietan eta eskualdeetan New Yorkeko eszenaren gisako bat izango dugu.

Herri bakoitzean kontzertu txiki bat, bertso-poesia-slam saio bat, kale-antzerki performance batzuk eta, oro har, kultur politika handioso eta garestietatik urruntzen den eredua.

Jendea elkartu eta elkarrekin amesteko aitzakia bat.

Gizartea bere oinarritik berregin, eta *aisialdian* denbora extra bat baino gehiago, benetan herria egiteko eta altxatzeko partekatzen ditugun denbora-espazioen kateatzea ikusteko moduko kultur politikak.

Txikitik txikira, gure herriaren neurrira.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Goiatz Arana
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale.
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# ZINERAKO SARRERAK




Florida Guridi

**Telefonoz:** 943 25 05 05
**e-postaz:** kluba@goiena.com
**SMS bidez.**
Bidali Kluba SARRERAK
[ bazkidearen zenbakia] 215800 zkra



# EKAINEKO SARIAK

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.
**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datubilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

**SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA**
Bidali Kluba KAMISETA
[ bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



skunkfunk

**LIBURU SORTA UMEENTZAT**
Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



PAMIELA argitaletxea

**UMEENTZAKO JOKOAK**
Bidali KLUBA JOKOAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



Ikastolen Elkartea

**DVD-A**
Bidali Kluba DVD
[bazkidearen zenbakia]
215800 zkra



EROSKI

# 2011n atera etekina txartelari

**AQUARIUM**
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

**AVIA MECA GASOLINDEGIA**
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

**AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA**
Eskoriatza, 943 71 45 66
- %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).
- %10 deskontua jatetxeko kartan.

**BARCELÓ BIDAIAK**
Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
- 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

**GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA**
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

**ESKO SPORT KIROL DENDA**
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

**GAES ENTZUMEN ZENTROA**
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua(ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

**CLÍNICA DENTAL BERGARA**
Bergara, 943 76 05 77
- -%10 zerbitzu guztietan
- -%15 inplanteetan
- Aho-garbiketa doan,
- 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

**IKER SUKALDEAK**
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

**LILURA EDERTZE INSTITUTUA**
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

**MULTIOPTICAS**
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

**RENAULT AUTOBERRI**
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

**TXIKI ZOO** Aretxabaleta, 943 79 51 15
- Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
- %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

**TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA**
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan
(ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan
(ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

**ZIENTZIEN KUTXAGUNEA**
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

goienakluba 2011
Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *www.goienakluba.com* | Urteko kuota: **48 €.**

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Mariasun Pagoaga** | HBko Kultura eta Hezkuntza zinegotzia Arrasaten (1983-1987)

- Iturberen heriotza gertatu zenean Udalean zegoen
- Bere ustez, politika kontuetan asko antzezten da
- Zinegotzi izateko pazientzia handia behar dela dio

# "Udal mailako jardunean, gertutasuna eta politika nahastu egiten dira. Hori da arazoa"



Mariasun Pagoaga Monterron parkeko eskenatoki gainean. | IMANOL GALLEGO

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Orain antzerki kontuetan ibiltzeagatik ezagunagoa den arren, gazteagoa zenean Mariasun Pagoaga zinegotzi lanetan ere ibili zen.

**Nolatan sartu zinen politikan?**

Egia esan, nik neuk ere ez dakit. Beti izan dut joera politiko bat. Seguruenik, norbaitek gonbidapena egingo zidan eta nik onartu, baina ez daukat gogoan. Aizu, urte dezente pasa dira! Ezin dut dena gogoratu!

**Politika egiteko ez ziren urte errazak. ETA, demokraziak urte gutxi zeramatzan...**

Egoera ez zen erraza. Ni Ardantza irten zenean iritsi nintzen. Udalean nengoela, Txomin Iturberen hileta eta Perez de Arenazaren hilketarekin momentu latzak bizi behar izan nituen. Orokorrean, Udaleko giroa polita zen, baina batzuetan ia arrazoi gabe, liskarrak sortzen ziren.

**Gogoratzeko modukoren bat?**

San Juan bezperan Udalak afari bat eskaintzen zien zinegotzi guztiei eta HBkook gonbitari uko egin genion, gure ustez, udaletxea herriarentzat lan egiteko toki bat zelako. Kontua da, danborrada plazara iristear zegoela, osoko bilkuren aretora joan ginela bertatik ikurrina zintzilikatu eta danborradari ongi etorria egiteko. Afaltzen zeudenak ez ziguten sartzen utzi, eta azkenean baten etxetik eskailera bat hartu, eta balkoira igo ginen. Ikurrina bertan zintzilikatu eta plazara jaitsi ginen. Ostean, gainontzeko zinegotziak balkoira irten ziren. Protesta modura, tanborradak San Juan kanta udaletxeari bizkarra emanez jo zuen.

**Hortaz, politika ez da horren polita?**

Hala da. Udalean politika gertutasunarekin elkartzen da, eta askotan joera ezberdin bateko alderdiko jendea areriotzat hartzen duzu. Orain ez da hori gertatuko, baina ni zinegotzi izan nintzen urteetan tentsio handia zegoen.



Ardantza alkate izan zen udalbatza. | ARRASATEKO UDAL ARTXIBOA

Dena den, hiru aldiz arnasa hartu, bi aldiz pentsatu eta joera ezberdina eduki arren, mundu guztia ongi tratatzen saiatu nintzen. Nik argi nuen lan egitera joan nintzela udaletxera, ez eztabaida antzuetan denbora galtzera.

**Zuk Kultura eta Hezkuntza arloetan egin zenuen lan. Gogoan duzu zuk bultzatutako proiekturen bat?**

Zaila da proiektu zehatz bat aipatzea. Ni ez nintzen Hirigintzan egon, gure proiektuak askoz etereoagoak dira.

**27 urteren ostean, zer falta zaio Arrasateri?**

Oraindik ere, kultur sorkuntzan zulo handia dago. Udalak ekimena hartu beharko luke. Arrasatek kultur ekintzetarako erabili daitezkeen azpiegitura ugari ditu baina ez dira behar bezala ustiatzen.

**Politika kontuetan asko antzezten da?**

Batzuetan bai. Osoko bilkuretan akaso ez, baina proiektu bat bozkatu aurretik bilera asko dago, eta horietan teatro apur bat ikusten da.

**Inoiz partidu diziplina jarraitzegatik zure bozka aldatu duzu?**

Ez nuke horrelakorik onartuko! Arrasate hobetzeko sartu nintzen Udalean eta proiektu bakoitza prisma horren ikuspuntutik bozkatzen nuen, ez beste inork esaten zuelako.

**Zein gomendio emango zenioke udalbatza berriari?**

Lana lasaitasunez eta erantzukizunez egiteko. Gehiengo osoa lortu dutenez, eurei dagokie proiektuak planteatzeko erantzukizuna, eta ez da lan erraza. Udalak ordu asko exijitzen dizkizu.

**Gehiengo osoak onak al dira?**

Bai, nire ustez bai. Dena den, Arrasaten gertatu dena ikusi ostekoaren erantzun bat da. Ziur PPkoa izango banintz ez nukeela gauza bera esango. (jajaja).

> "Arrasatek orainidik kultura sorkuntzan bultzada bat behar duela uste dut"

> "Proiektu bateko bozketa batean ez dut inoiz partidu diziplinarik onartu"

MAGAZINEA
GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

ELGETA

# Uztailerako hotela martxan jarri nahi dute bertako jabe berriek

▸ Bergarako Zuhaizti tabernako Izarra Arriaran eta Jesus Mari Kalboetxeagak hartu dute

▸ Hotelaz gain, jatetxea eta taberna ere zabalduko dituzte; astean zehar menua emango dute

**MIRIAN BITERI** | ELGETA

Jabe berriak ditu Elgeta hotelak: hain justu ere, Izarra Arriaran eta Jesus Mari Kalboetxeaga bergararrak. Egunotan eraikina txukuntzeko obrak hasi dituzte, eta, dena aurreikusi bezala baldin badoa, uztailerako zabalik izatea espero dute.

Ostalaritzan esperientzia handia dute biek, 25 urte eman dituzte-eta Bergarako Zuhaizti tabernan lanean. Bada, horrenbeste urte taberna baten pasa ostean, aldatzeko garaia zela uste zuten. Horren harira, honakoa esan digu Arriaranek: "Gure asmoa beti izan da landa-turismoa edo etxetxo bat hartzea. Elgetako hotela ikusita geneukan aurretik". 2007. urteaz ari da berba egiten bergararra. Orduan ere jabez aldatu zuen hotelak; Paolo Fabris italiarrak eta Liza Perrinet frantziarrak hartu zuten horren ardura.

Denbora pasa da, eta urte pasatxo iraun duten negoziazio luzeen ostean, eraikina erosi du bikoteak. Hasierako asmoa urtarrilean hartzea eta Mundumirarako zabalik izatea bazen ere, nahi baino gehiago luzatu dela aitortu digu Kalboetxeagak.



Izarra Arriaran eta Jesus Mari Kalboetxeaga bergararrek izena aldatuko diote hotelari. | MIRIAN BITERI

### 25 lagunendako jangela

Hamabost egun daramatzate han eta lan handia dute aurretik; besteak beste, sukaldea aldatu egingo dute, eta gainerako guztia txukundu. Sei logela ditu eraikinak. Horretaz gainera, jatetxea ere jarriko dute. Honakoa esan digu Kalboetxeagak: "Astelehenetik egubakoitzera bitartean, eguneko menua emango dugu; egubakoitz eta zapatu gauetan, afariak gertatuko ditugu; eta zapatu eta domeka eguerdietan, bazkariak. Gainera, hasiera batean, taberna bazkariak ematen ditugun bitartean izango dugu zabalik; hori, dena dela, ikustear dago, negozioak duen harrera aztertuko beharko dugu, denborarekin joango gara hori zehazten". Jangelak 25 lagunendako tokia izango du. Horretaz gainera, nabarmendu dute eraikineko beheko solairuan beste gela bat dutela; lagunarteko otordundako edo bilerendako egokituko dute hori. Horri guztiorri, wi-fi gunea gehitu beharko zaio.

Bestalde, Elgeta horrelako negozio bat jartzeko herri aproposa dela esan dute biek. Arriaranek nabarmendu du enpresa asko daudela ingurunean, eta Eibar ere gertu dagoela eta han ez dagoela lo egiteko eskaintza zabalik. Horretaz gainera, turismorako erakargarria den gunea ere badela azpimarratu du. Bergararraren arabera, ingurunean gauza polit "asko" daude ikusteko.

### Izena aldatuko diote

Landa-turismoa ezagutarazteko Nekatur Nekazalturismoa Elkartean sartzeko asmoa dutela ere azaldu digute. Horrekin batera, aurrerago webgunea sortzeko asmoa dutela esan digute. Horren harira, jakinarazi dute hotelari izena aldatuko diotela, baina oraindik zehazteke dutela izen berria.

ESANAK

"Gure asmoa beti izan da landa-turismo edo etxetxo bat hartzea; hotela ikusita geneukan aurretik"

IZARRA ARRIARAN | UGAZABA

"Egubakoitz eta zapatu gauetan afariak emango ditugu; zapatu eta domeka eguerdietan, bazkariak"

JESUS M. KALBOETXEAGA | UGAZABA


Barruan buru-belarri dabiltza lanean. | M.B.

BERGARA

# Jendetsua eta koloretsua Pazkoetako aste bukaera

▸ Gau eta egun, jende ugari ibili da Pazkoetako jaien lehen txanpan

▸ Gaur ere, egun handia dute aurretik: koadrilen eguna

**MAIDER ARREGI** | BERGARA

Ohi den moduan, baina inoiz baino beranduago tokatu diren Pazkoei Bitorianatxok eman zien hasiera ofiziala barikuan. Askori itxaronaldia luze egin bazaie ere, barikutik, Bergarak ez du atsedenik hartu, eta martitzenera arte ekitaldi mordoaz disfrutatzeko aukera dute festarako gogoz dabiltzanek. Izan ere, adin eta gustu denen gozamenerako jai egitaraua prestatu dute bergararrek. Txosna gunean, Arkada Social punk oi! taldearen doinuek jendetza erakarri zuten zapatu gauean. Urtean, asko jota, pare bat emanaldi egiten ditu Arrasateko talde mitikoak eta, ohikoa duten moduan, jendetza eta jarraitzaile sutsuenak batzen dituzte euren zuzenekoetan. Txosna gunean batu zen jende uholdea azpimarratzekoa izan zen. Bestelako musika eskaintzen du, ordea, Bergarako Musika Bandak. Estreinatu berri duten jantzi beltz dotorearekin ikusi ditugu herriko giroa alaitzen.

Bergarako txikienendako izan da sorpresarik aurten: eurentzako propio egindako egitaraua prestatu dute. Eguraldi apartak lagunduta, gustura ibili ziren herriko txikitxoak San Martin plazan *valey-water*-ean eta ur puxikak elkarri botaz. Askorendako, berriz, urteroko hitzordua da San Martineko aldapan egiten den goitibehera jaitsiera; parte-hartzaile batek baino gehiagok hegan ere egin zuen lastozko fardo artetik. Eta goitibeheren ondoren, ezinbesteko bigarren hitzordu batera: errekortadoreak eta bigantxak. Zezen plazan bai egin zutela literalki hegan batek baino gehiagok. Batzuk festaren ostean atsedena hartuta zezentxoen aurrean ausardia erakutsi bazuten ere, oraindik festarekin bat eginda zebiltzanak ere torero lanak egitera ausartu ziren plazan. *Ole, ole!* zioten oihuek, eta txalo zaparradak jaso zituztenak errekortadoreak izan ziren, zezen plazan erakutsitako bizkortasun eta abileziagatik, bereziki.

Agurne Barruso eta Enara Mingez –alkate eta zinegotzi ohiakjai giroan murgilduta ikusi genituen moduan, Jesus Elortza –Bergarako alkate berria– bere lehen zereginetan ere ikusi genuen zapatuan. Izan ere, Beart taldeak antolatutako gaztetxoen margo lehiaketako sari banaketan Elortza izan zen Udal Gobernuko ordezkaria.

### Balorazio positiboa

Enara Mingezek jaiek momentuz eman dutenaren gaineko balorazio positiboa egin du. "Eguraldiak lagundu digu eta jende asko ibili da; ekintza guztiak aurrera eraman ditugu eta herritar nahiz debagoiendarren parte-hartzea oso altua izan da". Mingezek bariku eta zapatu gauetan txosnetan ibilitako jendetza nabarmendu du. Umeendako antolatu diren ekintzek izandako harrera ere beroa izan dela adierazi digu. "Zapatuan eta domekan, umeendako ekintza ugari izan dira; ur-jokoek arrakasta izan dute. Biharko Molto lasterketak eta idi probak ere jendea erakarriko dutela uste dugu".

### Jaiak normaltasunez

Udaltzainek esandakoaren arabera, normaltasun osoz igaro dira jaietako lehen hiru egunak eta ez dela aparteko ezusteko edota istilurik izan esan digute.

Zapatu goizaldean, baina, epaitegiko banderak kendu zituzten. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, epaitegi aurrera heldu eta banderak falta zirela egiaztatu zutenean, jakin ahal izan zuten ekintzaren egileek gaztetxerako bidea hartu zutela. Bertara joan eta "epaitegi ataritik kendutako ikurrina esku artean zeraman gazte bat" identifikatu zuten. Ertzainek eskatuta, ostutako beste bandera –Espainiakoa– atera zuen gero; ordurako erreta zegoen. Agenteek 21 urteko gaztea atxilotu eta ertzain-etxera eraman zuten, ekintzetan parte hartzearen akusaziopean.



plaza jendez beteta, Sorkunde Agirregabiriak jaien hasierako txupinazoa botatzen zuen u


Bergarako udal musika bandak jantzi berria estreinatu du. | JULIO CALLEJA


Espuma festan murgilduta primeran ibili dira gaztetxoak. | JULIO CALLEJA



**IRATI ETA AMAIA**

"Barrakak eta goitibeherak gustatzen zaizkigu. Urtero disfrutatzen dugu barraketan; aurten, gainera, *MegaXtrem* izeneko barraka berri bat ekarri dute. Zezenetara joatea ere gustuko dugu".



**BEÑAT ETA MIKEL**

"Goitibeheren lasterketa da gehien gustatzen zaiguna. Lagunek parte hartu dute aurtengo txapelketan eta horiek animatzera etorri gara. Giro handia dago; gu kalian gora, kalian behera ibiltzen gara, [kar,kar]".



**JON IMANOL, ERIK, SAMUEL ETA JOKIN**

"Barrakak, zezenak eta goitibeherak dira gustukoen ditugun ekintzak. Goizean egon gara zezenetan eta primeran pasatu dugu. Orain gure lagun Eneko animatzera etorri gara goitibeheratara; ea finalerako sailkatzen den! Agian, datorren urtean animatuko gara gu ere parte hartzera!".



Arkada Social taldeko Julio, '*Ciri*' eta Hodei txosnagunean. | JULIO CALLEJA



Gaztetxoak gustura *valey-water*-ean. | JULIO CALLEJA



'*Felixin*' eta Bitorianatxo. | J.C.



nean. | JULIO CALLEJA



Gazte bergararra bigantxak harrapatuta, lurrean. | JULIO CALLEJA



Paella erraldoia txosnetan. | J.C.



'*Guti*'-ren omenez egindako erraldoi txikia. | JULIO CALLEJA



Baltsa jaitsierak jendetza erakarri zuen domeka arratsaldean. | JULIO CALLEJA



**IÑAKI ETA JABIER**

"Jaiak oso ondo doaz! Gazte asko dabil, orain haiei tokatzen zaie ondo pasatzea! Egunez aprobetxatzen dugu eguna guk. Errekortadoreak ikustera joatea gustatzen zaigu gehien".



**JON, ALAITZ, JOXE MARI, LOREA ETA UNAX**

"Lehengusuak bisitatzera etorri gara Oñatitik Bergarara. Buruhandiak asko gustatzen zaizkigu. Gero barraketara joango gara, oso ondo pasatzen dugu-eta! Gauza asko daude ume eta gaztetxoendako Bergarako jaietan".



**ARITZ, ROBER ETA ARAN**

"Gaztetxoei barraketara joatea gustatzen zaie eta umeen egunean ere gauza asko dago. Kaleko giroa asko gustatzen zaigu eta egun dena ematen dugu kalean, esan moduan, gauza mordoa dago-eta. Goizean marrazki lehiaketan izan gara umearekin".



IMANOL GALLEGO

**BAKAILAO LEHIAKETA** Gorla elkarteak irabazi du aurtengo bakailao lehiaketa: Ander Aretxagak eta Igor Larrañagak prestatutako bakailaoari eman dio sari nagusia epaimahaiak. "Bakailaoaren zaporea, gatz puntua eta saltsak lortutako gorpuzkera bikaina saritu gura izan dugu", azpimarratu dute epaimahaiko kideek epaia ematerako orduan. Bigarrenak Pertxa elkarteko Jose Mari Perez eta Juan Mari Corral izan dira. Hirugarren saria, berriz, Askagain elkarteko Aitor Elortza eta Nerea Osinalderendako izan da. Guztira, 10 bikotek hartu dute parte aurtengo lehiaketan.



JULIO CALLEJA

**DANTZA ASKEKO TXAPELKETA** Euskal Herriko XXXIV. Dantza Askeko txapelketan Asier Ibarguren eta Garazi Gurrutxaga bikote azpeitiarrak jantzi du txapela. Parte hartu duen Bergarako bikote bakarrak, aldiz, zortzigarren postua eskuratu du; Joanes Plazaolak (14 urte) eta Mariñe Diazek (12 urte) maila polita erakutsi duten arren, aurten ezin izan dute txapela jantzi. Guztira, 18 bikotek hartu dute parte aurtengo txapelketan. Maila polita eta parte-hartze altua azpimarratu gura izan dituzte Euskal Herriko 34. Dantza Askeko txapelketako antolatzaileek.



IMANOL GALLEGO

**JAIO BERRIAK** Lehen aldiz, joan den urteko jaietatik aurtengoetara jaio direnei ongietorria egin zieten udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Guztira, 122 jaioberri daude udal erroldan eta guraso guztiei bidali zitzaien ekitaldian parte hartzeko gonbidapena; horietatik erdiak baino gehiagok hartu zuen parte zapatu goizeko ekitaldian. Agurne Barruso alkate ohiak eta Enara Mingez kultura zinegotzi ohiak egin zieten harrera ofiziala bertaratutakoei. Jardunek kaleratutako jaietako zapiak banatu eta lepoan jantzi zizkieten txikitxo bergararrei.



MAIDER ARREGI

**ERRALDOI TXIKIAK** *Guti* eta *Felixin* dira erraldoi eta buruhandien konpartsako kide berriak. Herrian oso maitatuak diren eta Pazkoekin lotura sendoa duten bi herritar horiek izan zuten, hain zuzen ere, erraldoi txikiak erakusteko ardura. Biek ala biek ilusioz eta gustura hartu zuten omenaldia: "Egia esan, aste barruan, zerbaiten susmoa hartuta nengoen. Sekulako ohorea izan da eta ilusioa egin dit. Izan ere, 30 urtetan jai batzordean aritu naiz lanean; oso hunkigarria izan da", adierazi zuen *Gutik*. San Martin plaza beteta, herritarrek txalo artean hartu zituzten".

## DATUAK

**20**
GOITIBEHERA
San Martzialen egindako txapelketan, guztira, 20 goitibehera izan ziren.

**800**
TXARTEL
Herri bazkariak arrakasta handiagoa dauka, urtetik urtera. Aurten inoiz baino txartel gehiago saldu dira.

**122**
JAIOTAKO
Urtebeteko epean, 122 haur erroldatu dituzte Bergaran. Horietatik erdiek jaso du zapia.

**18**
BIKOTE
Euskal Herriko XXXIV. Dantza Askeko txapelketan, 18 bikotek hartu dute parte.

**20**
JAPONIAR BONBA
Zapatu arratsaldean 20 japoniar bonba bota ziren, gaztetxoen zoramenerako.

**600**
KILO
Martitzen eguerdian egingo den idi proban, 600 kiloko idiak ikusteko aukera izango da.

## EGITARAUA

**ASTELEHENA 13**

**11:30** Tabernen arteko HERRI KIROLen txapelketa, zezen-plazan. Xapre eta Zarra trikitilariek eta Incansables txarangak animatuta.

**12:30** DANTZALDIA Fabulosa orkestrarekin, Espoloian.

**14:30** Herri BAZKARIA, San Martinen, Incansables txarangarekin. Txartelak salgai daude: kultura etxean, Deporren, Ariznoan eta frontoiko tabernan.Euria egiten badu Labegaaraietako kiroldegian egingo da bazkaria. Autobus zerbitzua egongo da Oxirondo azoka ondotik irtenda.

**18:30** Errekortadore ESKOLA IBILTARIA zezentxoekin, zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**18:30** Bergara Hiria PILOTA partiduetako finalak, Udal Pilotalekuan.

**20:00** ERROMERIA Joxpa taldearekin, txosnetan.

**20:00-21:30** ERROMERIA Imuntzo eta Belokirekin, San Martinen.

**22:30** KONTZERTUA: EH Sukarra eta Doce & Tangana.

**23:00** DANTZALDIA Imuntzo eta Belokirekin, San Martin plazan.

**23:00** Camp DANTZALDIA Fabulosa taldearekin, Espoloian.

**MARTITZENA 14**

**09:00** BIGANTXAK, zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**11:00-14:00** Haurrendako JOLAS PARKEA, Ipintza II-ko jolastokian.

**12:00** Idi proben ERAKUSTALDIA, San Martin plazan. Jose Ramon Salegi *Belarreta* Pako Badiola *Bentaoste*-ren aurka.

**Arratsaldean** PILOTA partidu profesionalak.

- Retegi II.a/Ladiz Garartza-Idoate/ Zezilio.
- Irujo/Zubieta-Gonizalez/Laskurain.

**12:30-14:00** Arantxa eta Pantxoren EMANALDIA, Domingo Mz. de Irala kalean.

**17:00-20:00** Haurrendako JOLAS PARKEA, Ipintza II-ko jolastokian.

**17:30** MOLTO LASTERKETA, Fraiskozuri plazatik jolas parkeraino. Oharra: parte-hartzaile bakoitzak bere moltoa eraman beharko du.

**18:30** ERREKOTADORE ESKOLA zezentxoekin, zezen-plazan.

**19:00-21:00** KARAOKEA Txatxilipurdirekin, San Martinen.

**22:30-00:00** DJ FESTA Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

**00:00** BITORIANATXOren igoera, Incansables txarangarekin, San Martin plazan.

**00:15-01:30** DJ FESTA, plazan.



Ardoarekin eta gaztarekin batera, txistorra dastatzeko aukera ere egon zen. | GOIATZ ARANA

ARRASATE

# Eroski tabernak irabazi du Debagoieneko I. Pintxo Lehiaketa

## Ardo eta Gazta Egunean 22 upategi, 10 gaztagile eta 80 kilo saiheski


Umeak sukaldariari begira; pintxoa nola prestatzen zuen ikusi eta ikasten. | G.A.

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Bi hitzorduk bat egin zuten zapatuan Arrasateko Herriko plazan eta jendea erakarri zuen horrek, gehienbat goiz partean.

Mondra taldearen, Udalaren eta Ibar-Arteren VI. Ardo eta Gazta Egunean 700 kit eta 80 kilo saiheski saldu zituzten pintxotan. Gainera, 22 upategiren ardoak eta 10 gaztagileren produktuak dastatzeko aukera egon zen. "Pozik gaude egunak emandakoarekin", adierazi du Patxi De Andresek.

**Pintxo lehiaketa**

Debagoieneko I. Pintxo Lehiaketan sei tabernak hartu dute parte: Arrasatetik, Eroski, Monte, Rumba eta Zerkaosteta edo Lukas tabernek; eta Aretxabaletatik, Taberna Berri eta Dagda Irish Pub tabernek. Eroski tabernak irabazi du lehiaketa buletus eta bakailao ketu hostopilarekin. "Maila polita egon da", adierazi dute antolatzaileek. "Parte-hartzaileek ehun bat pintxo ere ekarri zituzten euro eta erdian saltzeko, eta guztiak saldu ziren". Balorazioa, beraz, oso positiboa dela esan dute.

ARRASATE

# "Pozten naiz zu ezagutzeaz, jarraitzaile fina nauzu!"

## Gisa horretako esaldi asko entzun zituen Julian Iantzik Arrasaten, Errekamendira egindako bisitan

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Ikusmin handia piztu zuen Julian Iantzi telebistako aurkezle ezagunak bariku arratsaldean Errekamendira egindako bisitak. Kirol denda horren irudia da Iantzi eta han-hemenka dituen saltokietan dabil azken boladan, abentura zaleen galderak erantzuten, naturarekin izandako esperientziak kontatzen eta, nola ez, *El conquistador del fin del mundo* saioari buruz berba egiten. Bada, bariku arratsaldean, garbi geratu zen Arrasaten, nafarrak jarraitzaile mordoa duela gure artean! Ume pila bat, gazte koadrilak, familia osoak, adinekoak... denetarikoak izan ziren Olarte kaleko kirol dendan sartu-irtena egindakoak. Hitz onak baino ez zituzten izan aurkezlearentzako –"Primeran gidatzen duzu saioa!" eta antzerakoak esan zizkioten– eta harekin batera argazkia ateratzeko ere aprobetxatu zuten aukera, noski. Erakusleihoan jarriko dituzte ikusgai aste honetan.



Mutil gazte koadrila Iantzirekin argazkia ateratzen. | JULIO CALLEJA


NESTOR ARANA

ESKORIATZA

# Luis Ezeiza eskolako jaia, bikain!

Ikasturtea amaitzear–eta, jai giroan murgilduta ibili ziren zapatuan Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako neska–mutiko, guraso eta irakasleak, beste hainbat herritarrekin batera. Goizean dantzan eta jolasean aritu ostean, eguerdian bazkari ekologikoa egin zuten eskolako patioan. Ondo, goxo eta merke... ederki bazkaldu zutela kontatu ziguten. Apar eta puzgarrietan igaro zuten arratsaldea.



KURTZEBARRI

ARETXABALETA

# Kurtzebarri eskolaren jaiak aurreikuspenak gainditu ditu

Herriko plazan hasi zuten zapatuko ospakizun handia, aurpegiak margotuz eta bitxiak eginez, bizikleta gainera igota edo oinez, ibilaldia egiteko ondoren. San Juan dantzaren txanda iritsi zen hurrena eta eguerdian bazkaltzeko elkartu ziren: 400 bat pertsona batu ziren sagardotegi menuaz dastatzeko; Iturrigorrik frontoia ez baino sagardotegia zirudien! Dantzaldia, jolasak eta gaztelu puzgarria izan zituzten arratsaldean. Kurtzebarri eskola osatzen dutenek –ikasle, guraso eta irakasle– giro paregabean igaro zuten eguna eta balorazio ezin positiboagoa egin dute: aurtengo jaiak aurreikuspen denak gainditu ditu, euren esanetan.

# Pintxo-poteoa eta Gorripotea: izenak izen, zerbitzu berbera taberna gehiagotan

- Eguen honetan hasita, 'zona gorriko' tabernetan ere tragoa eta mokadutxoa euro baten salduko dute
- Egun horretako poteoan sortu zitzaien hutsunea bete gura dute, inongo liskarrik sortu barik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Eguenetan ohitura da hainbat arrasatearrendako ardo ondua edo garagardoa eta pintxoa euro baten truke aldatzea. Hau da, herrian honezkero errotuta dago pintxo potea. Bada, orain arte Arrasate Bizirik elkarteak sustatuko ekimena beste taberna batzuetara hedatuko da, Arrasateko *zona gorria* moduan ezagunak diren tabernetara, hain zuzen. Hortik dator izena: Gorripote.

Ez dute inongo liskarrik sortu nahi Arrasate Bizirik-en pintxo potearekin; eraginkorra den formula hori erabili gura dute. Hori bai, pintxoaren kalitatea hobetu gura dute. Nola? Bada, mokadutxoak Ibai-Gane janari dendatik ekarriz. Eguenean, hilak 16, jarriko da martxan.



Azken eguenean ateratako argazkian ikusten denez, gazte askok egiten dute bat pintxo-poteoarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

**Bat egin, baina euren kabuz**

Honako taberna hauek hartuko dute parte Gorripotean: Ekaitz, Iluntz, Basati, Irati, Jai-Zale eta Dat. Irati tabenan dihardauen Igor Letona da ekimenaren sustatzaileetako bat, eta ukaezina den lehen galderari honela erantzun dio. Hau da, honela azaldu du Arrasate Bizirik-en pintxo poteoan ez sartu izana: "Ekimen positiboa da, ostalaritzak bizi duen egoera zailari aurre egiteko formula egokia. Beraz, dinamika interesgarria dela deritzogu. Baina eurak taberna konkretu batzuetan egitea erabaki zuten, guk ez genuen inongo gonbidapenik jaso, eta orain ekimenarekin bat egitea pentsatu dugu, baina gure kabuz".

Horregatik aldatu diote izena: "Ez luke zentzu handirik izango beste batzuk abiatutako dinamikaren izena erabiltzea; jendea nahastea eragingo luke".

**Eguena, egun aproposena**

Ekainaren 16an hasiko dira eta Sanjuanetan etenaldia egingo dute –"Jaietan nahikoa lan izaten dugu", dio Letonak–. Uztailean ekimenarekin jarraituko dute eta abuztuan, taberna gehienak itxita egongo direnez, geldialdia egingo dute. Eguena aukeratu dute Gorripoterako ere: "Lehen ere eguenetan beste egunetan baino jende gehiago izaten genuen eta Arrasate Bizirik-en pintxo poteoak eragina izan du gure bezeroengan. Ez dugu uste bezeroak lapurtu digutenik, zerbitzu konkretu bat eskaintzeagatik joan direlako. Guk egingo duguna da zerbitzu hori bera eskaini, eta saiatu gara pintxoen kalitatea hobetzen. Hortik aurrera, norberak aukera dezala. Hau da, ez dugu liskarretan sartu nahi, sortu zitzaigun hutsune bat betetzea baizik", azaldu du Letonak.

## Pintxo-poteoa, 'Ibai-Arterena'

**Arrasate Bizirik Ibai-Arteren barruan dago: "Ez genien gonbidatu Ibai-Arten ez zeudelako, eta pintxo poteoan sartu nahi izan duten taberna berriei Ibai-Arten sartzea izan da eskatu zaien bakarra", adierazi dute Arrasate Bizirik-ekoek. Gazte askok egiten dute bat pintxo-poteoarekin eta beraz, Gorripotea ez da albiste ona eurendako "Onena batzar bat egin eta batera joatea litzateke". Hala ere, Ibai-Arten ez dauden batzuk ere egiten dutela jakinarazi dute.**

# "Ez daukagu formula magikorik, baina bai lan egiteko gogo izugarria"

Azkarraga-Urizarrek arrasatear guztien ongizatea ziurtatzeko lan egingo dutela esan zuen zapatuan

**J.B.** | ARRASATE

Zapatua ezkero Arrasatek udalbatza eta alkate berriak ditu. Bilduko zerrendaburu Inazio Azkarraga-Urizar izendatu zuten alkate zapatu eguerdian egindako ekitaldian. Bilduren 11 zinegotzien botoekin eta Aralarreko Joxe Etxeberriarenarekin gehiengo osoa lortu zuen eta, beraz, bozketaren lehen txandan aukeratu zuten alkate berria. Osoko bilkuren aretoa herritarrez lepo bete zen, datozen lau urteetako udal gobernuaren eraketa bertatik bertara jarraitzeko; tartean zeuden irten berri den udalbatzako kideak.

12:00etan puntuan hasi zen saioa. Itziar Lamarain –zinegotzi zaharrena– eta Ander Rodriguezek –gazteena– osatutako *Adinekoen mahaiak* gidatu zituen korporazio eta alkate berriaren eraketak. Sorpresa barik joan zen ekitaldia eta ordu erdi eskas aski izan zen zinegotziek banan-banan zin egiteko eta alkate berria aukeratzeko.

**Alkate berriaren lehen hitzak**

Botoak zenbatu eta Azkarraga-Urizar alkate izango dela jakin zenean txalo zaparrada batekin hartu zuten albistea bertaratutako herritarrek.

Bestalde, ohikoa denez, alkate berriak lehen hitzak esan zituen: "Agintzeko ez daukagu formula magikorik, baina lan egiteko gogoa eta indarra izugarriak dira. Gure egitasmoa herritar guztien ongizatea ziurtatzeko helburuarekin garatuko dugu, eta egungo krisi ekonomikoak kaltetutakoen beharrei erantzuten saiatuko gara".

Euskal gatazka ere izan zuen hizpide: "Arrasatearrok ozen esan dugu gatazkaren konponbide demokratiko baten eta gizarte justuago baten alde gaudela. Hasi berri den agintaldi honetan, indar guztiak jarriko ditugu prozesu demokratikoa aurrera ateratzeko", azaldu zuen.

Saioaren hasieran herritar bat atera behar izan zuten osoko bilkuren aretotik, zorabiatu eta lurrera jausi zelako.



Bilduko 11 zinegotziak alkatetzan, ekitaldiaren ostean. | JOKIN BEREZIARTUA



Ikusmin handia piztu zuen saioak; pleno aretoa lepo bete zen. | J.B.

## Nagusiaren Astea Iturbiden, gaur hasi eta hilaren 17ra arte

Iturbide egoitzan Nagusiaren Astea ospatuko dute gaur hasi eta hilaren 17ra arte. Askotariko ekintzak egingo dituzte, besteak beste, karta joko, diana eta bolo txapelketak, danborradarako entseguak eta opariz jositako bingo berezia. Ekintza guztiak Iturbideko erabilera askotariko aretoan egingo dira.

## Egubakoitzean irekiko da Julio Galartaren omenezko erakusketa

Arrasatek eman duen margolari handienetariko bat omentzeko erakusketa irekiko dute ekainaren 17an, Kulturateko klaustroan. Julio Galartaz ari gara; askorendako *koloreen maisua*. Galartaren 60 bat lan erakutsiko dituzte, uztailaren 17ra arte.

## OHARRAK

**UDAL EUSKALTEGIAREN IKASTAROAK ETA EGA**

San Juan jaien ostean hasi eta irailaren 23ra arte ikastaroak. EGA ateratzeko aukera. Informazioa, Arimazubin.

# Jende asko batuta ireki zituen ateak Xabalotek eguenean, hilaren 9an

▸ Xabalote gaztelekuak lehengo euskaltegiaren eraikina erabiliko du

▸ Aktibitateak hezitzaile eta gazteen artean adostuko dira

I.GALLEGO/J.CARPINTERO | BERGARA

Adituek diotenez, gazteak ez dira askorik mugitzen, baina, ireki berri den Xabaloteri egin dioten harreraren ostean, gezurtatu egin beharko dugu hori. Eguenean, Bergarak gaztelekua ireki zuen eta herriko gazteak hantxe izan ziren, espazio berri hori ezagutzen.

Gonbit ordua baino ordu erdi lehenago iritsi ziren lehen gazteak Xabalotera. Irrika handia zegoen hemendik aurrera izango duten jolas eta parte-hartze eremu berri hori ezagutzeko. Adinak ematen duen hasierako lotsa horrekin, baina, apurka, lekua ezagutzen hasi ziren. Gela berriak miatu ostean lehen irribarre eta sorpresa aurpegiak ikusi genituen; itxuraz, eraikinak gazteen oniritzia jaso zuen. Orain, baina, euren txanda da; Barruso alkateak gogorarazi zien moduan, "euren proiektu eta ideiek" bete beharko dute gaztelekua.



Neska mutikoak mahai-futbolean jolasten. | IMANOL GALLEGO

Lan hori, baina, ez dute bakarrik egingo, gaztelekua Jardunek kudeatuko du-eta. Bertako langile Miren Errastiren hitzetan, "gazteekin garatzeko proiektua da". Hor dago horrenbeste urteren ostean egia bilakatu den proiektu honen erronka nagusia: gazteak ilusionatzeaz gainera, proiektu berrian inplikatzea.

### Lan luzearen fruitua

Gazteek ez zuten kontuan hartu, baina Xabalote egiteko lan handia egin da. Hasieran beste bi proiektu aurkeztu ziren, azokaren baxuetan eta Santa Anako kaperan, baina biak baztertu ziren. Euskaltegia Irizar jauregira eraman zenetik, eraikin zaharrean egitearen proiektuak forma hartu zuen. Miren Errastiren hitzetan, "tokiak aisialdirako aukera mordoa eskaintzen ditu". Hemendik aurrera, baina, aukera horiek erabiltzea da eguneroko erronka.



**MARIÑE DIAZ**
12 URTE

**"Leku polita iruditu zait eta bertan asteburuetan egoteko aproposa. Hemendik aurrera bertan igaroko ditugu arratsakdeak".**



**EIDER MEKOLALDE**
13 URTE

**"Guretako leku polita dela uste dut. Gainera, laguntzeko prest gaude eta behar diren gauzak antolatzeko".**



**JON LOIDI ETA MIKEL LUNA**
15 URTE

**"Polita utzi dutela uste dugu. Ping-pongean eta mahai-futbolean pasako ditugu arratsaldeak orain, batez ere euria egiten duenean".**



**ARITZ RODRIGO**
13 URTE

**"Primeran ikusten dut lekua. Gehien gustatu zaidana sukaldea izan da; izan ere, sukaldaritza asko gustatzen zait".**



**NORA IRIZAR**
13 URTE

**"Gehien gustatu zaidana gela arrosa izan da. Datorren asteburutik aurrera lagun guztiak bertan izango gara".**

# Jesus Elortza da alkate berria Bilduren eta Aralarren botoekin

Bilduk gehiengo osoa eduki arren, Aralarrekin eratuko du gobernua

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako udalbatzak berretsi egin du herritarren bozkek aurreratu zutena. Hiru izan dira alkategai aurkeztu diren pertsonak: EAJko Aintzane Oiarbide –5 bozka jaso ditu–; Mari Karmen Barrenetxea sozialista –bakarra lortu du–; eta Jesus Elortza –Bilduren bederatzi boto eta Aralarren biak jaso ditu, guztira 11–. Beraz, Elortza izendatu dute alkate.

Alkate berriak, bere lehen hitzetan, Monzon, Elkoro eta Barruso omendu nahi izan ditu "alkate eredugarriak" izan direla azpimarratuz. Ondoren, Agurne Barrusok, oso hunkituta, aginte mandua irudikatzen duen txibita eman dio, bertan zegoen jendearen txaloen artean. Bilduk Aralarrekin osatuko du gobernua eta alkate berriak parte hartzea bere agintaldiaren ardatza izango dela gaineratu du.

### Gobernu zaharrari omenaldia

Udalbatza berria osatu ostean, jende multzo handia elkartu da San Martin plazan, irten berri zegoen udal gobernuari agur bero bat emateko.

Barrusok behin eta berriro errepikatu du "eskerrik asko", negarrari nekez eusten zion bitartean. Bertsoak, aurreskua, opariak eta lora sorta jaso ostean, *Eusko gudariak* kantarekin amaitu da ekitaldia.



Bergarako Udalbatza osatuko duten zinegotzi guztiak. | IMANOL GALLEGO



Agurne Barrusok Jesus Elortzari aginte-txibita pasa zion unea. | IMANOL GALLEGO

# Eratu da udalbatza berria eta Mikel Biain izendatu dute alkate

Idoiagak Biaini eman dio zumitzezko txibita, "zorionak eta zorte on" esanaz

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI
Lehen bozketan izendatu zuten Mikel Biain Oñatiko alkate, zapatuan: Bilduko 11 zinegotzien botoekin izendatu zuten; EAJko sei zinegotziek euren zerrendaburuari eman zioten botoa, Lourdes Idoiagari. Idoiaga alkate ohiak eman zion Biaini zumitzezko txibita, alkate agintea. Bilduko 11 zinegotzik eta EAJko seik osatzen dute udalbatza berria.

**Bilkuren aretoa, beteta**
Hamabiak hogei gutxitan hasi ziren herritarrak osoko bilkuren aretoa betetzen: udalbatza berriko zein zaharreko zinegotziak, etxekoak, alkate ohiak, zerrendetan joandakoak... Bilduko zein EAJko boto-emaileak zeuden. Hamabiak bost gutxitan hasi zen inbestidura saioa. Konrado Kernstockek eta Maialen Urtzelaik osatu zuten *Adinekoen mahaia*. Idazkariak behin irakurri zuen zinegotzi kargua hartzeko onartu beharreko legea; Bildukoek "legeak agintzen" dietelako egin zuten zin eta EAJkoek "legeak behartzen" dituelako. Udalbatza berria eratuta, alkatea aukeratzeko bozketa egin zuten, sekretua. Eta Mikel Biain alkate berriak hartu zuen gero hitza.

**Herritarrak zoriondu**
Herritarrei "zorionak" esatea izan zen Mikel Biain alkate berriak egindako lehen gauza. Aro berri honetan herritarren artean "ilusio berria" sumatzen dutela esan zuen, eta prest daudela "aginte kargua arduraz betetzeko". Parte-hartze demokratikoaren alde egingo dutela esan zuen, bitartekoak jarriz: "Bide hori elkarrekin egin gura dugu herrigintzan lana egin gura duen edozein herritarrekin". Espetxeetan preso dauden oñatiarrak ere gogora ekarri zituen Biainek eta, oroitzapen horrekin, aretoan zeuden guztien txaloak jaso zituen. Bukatzeko, herritarrei eman zien hitza eta bik hartu zuten: AAMren izenean, presoak etxera ekartzeko lana egitea eskatu zion udalbatzari herritar batek, eta herritarrek banderola balkoietan jartzea proposatu zuen; alkateari eman zion bat. Beste lagun batek eskatu zien Oñati Zero Zabor taldearen izenean, euren lana jarraitzea, eta koloretako errota bana eman zieten zinegotziei. Udalbatza berriaren argazkia atera ostean, zorionak eta muxuak jaso zituen Biainek.



Bilduko hamaika zinegotzik eta EAJko seik osatzen dute udalbatza berria. | JULIO CALLEJA



Bainulariak Usakon. | KONTZEJUPETIK

## Usakoko bainu denboraldia: ekainaren 25etik irailaren 11ra

**M.B.** | OÑATI
Ekainaren 3an hasi zen hondartzetan udako denboraldi ofiziala. Bada, eskoletako oporraldiarekin batera, martxan jarriko dute Usakoko bainu denboraldia: hain justu ere, ekainaren 25ean abiaraziko dute. Egun horretatik aurrera sorosle zerbitzua egongo da irailaren 11ra arte, 15:00etatik 20:00etara.

Udalak sorosle zerbitzua jartzen duenetik, aldaketa nabarmen bat izango du aurtengo zerbitzuak: alegia, soroslea arratsaldetan egongo da bakarrik. "Hainbat faktore hartu ditugu kontuan ordutegia zehazteko: aurrekontua, eta jende gehien batzen diren orduak. Hori horrela, erabaki dugu arratsaldeko ordutegira mugatzea soroslea", esan digu kirol teknikariak.

**Urpeko garbiketa**
Bainu denboraldia zabaldu aurretik, Usakoko hainbat gune txukundu egingo dituzte: zakarrontziak ipini, dutxak martxan jarri, belarra moztu, sorosleen aterpea egokitu...

Gainera, bainurako gehien erabiltzen den putzua garbitu egingo dute. Urpeko garbiketa egingo dute urpekari profesionalek. "Ur azpian dauden harriak, adarrak eta bestelako elementuak kendu egingo dituzte. Datozen egunetan egingo dute", esan digute.

### Sierra de la Demandara (Burgos) mendi irteera egingo dute domekan, hilaren 19an

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak irteera egingo dute domekan, hilaren 19an. Etxetik gertu egingo dute: Burgosko Sierra de la Demandara (1.200 metro), hain justu ere. Autobusa 05:30ean irtengo da postetxetik. Interesatuek zapatua baino lehen eman behar dute izena Aloña Mendi tabernan: bazkideek bederatzi euro eta bazkide ez direnek 12 euro.

### Torreauzoko krosa uztailaren 3an egingo dute eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea

Antxintxiketan kirol elkarteak uztailaren 3an egingo du Torreauzoko 11. herri krosa. Dagoeneko zabalik duten izenemate epea: *www.kirolprobak.com* atarian hilaren 30era arte, edo Mendizabal kirol-dendan uztailaren 2ra arte. Egunean bertan ere izena eman daiteke. Etxe Aundi jatetxearen ondoan hasi eta Olaterainoko joan-etorria egin beharko dute korrikalariek: guztira 7,5 km.

### Hondurasi elkartasuna adierazteko bazkaria egingo dute hilaren 18an Soraluze ostatuan

ACOES-Honduras taldeak antolatuta elkartasun bazkaria egingo dute hilaren 18an, domekan, Soraluze ostatuan. Txartelak salgai daude Ekhi Eder eta Juanitosa dendatan, eta Anton tabernan, 30 eurotan. Bestalde, Hondurasen misiolaria den Aita Patriziok hitzaldia egingo du bihar, martitzena, kultura etxean 19:00etan. Hango egoeraren berria eman du.

### Domu Santu egunera arte (azaroak 1), meza ospatuko dute Urbiako elizan domekatan

Eguraldi onarekin hasi dira mezak ospatzen Urbian. Maiatzeko lehen domekan hasi ziren, eta Domu Santu egunera arte (azaroak 1) elizkizuna egingo dute domekero Urbiako baselizan, 11:30ean. Aita Joseba Etxeberria frantziskotarrak gidatuko du meza. Domekaz gain, meza egongo da Urbian, San Inazio egunean (uztailak 31) eta Andra Mari egunean (abuztuak 15).

## Sei orduko ikastaro-tailerrak egingo dituzte ekainean eta uztailean

Langabe, merkatari eta enpresari txikiendako

**M.B.** | OÑATI
Enplegu sailak ikastaro-tailer praktikoak egingo ditu langabeendako, merkatariendako eta enpresari txikiendako edo autonomoendako. Sei orduko ikastaro praktikoak egingo dituzte ekainean eta uztailean. Dagoeneko zabalik dago izenemate epea: interesatuek 943 03 77 00 telefonora dei dezakete.

Talde txikiak egingo dituzte –gehienez 10-15 pertsona onartuko dituzte– eta gai hauetan espezialista den Generando Nuevas Ideas enpresako kideek emango dituzte eskolak.

**Helburuak**
Ikastaroetako bat lana topatu guran daudenendako egingo dute. Lana topatzeko teknika zehatzak eta eraginkorrak zeintzuk diren landuko dituzte: motibazioa, jarrera positiboa, komunikatzeko gaitasuna, elkarrizketak modu egokian egiteko teknikak...

Beste ikastaroa enpresari txikiendako ikastaroa da. Helburua izango da negozioaren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko neurriak ezagutzea eta martxan ipintea. Besteak beste, planifikazioa, gestioa, helburuak eta lan ohiturak.

## Egubakoitzean futbol sailekoen urteko batzarra

**M.B.** | OÑATI
Denboraldia bukatuta, balantzea egiteko ordua heldu zaio Aloña Mendi futbol sailari. Egubakoitzean, hilaren 17an, ohiko batzarra egingo dute: 19:30ean, Aloñaren egoitzan.

Futbol saileko zuzendaritza batzordeko kideek lau gai izango dituzte mahai gainean. Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartu ondoren, 2010-11 denboraldian futbol taldeek egindako emaitzak aztertu eta balantze ekonomikoa egingo dute, eta bazkideek galderak egiteko aukera izango dute.

ARETXABALETA

## Langile bi hartuko ditu Udalak uda sasoirako

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak peoi bi hartuko ditu uda parteko hainbat jardueretarako. Sei hilabeterako kontratua egingo diete eta uztailaren 4an hasiko dira lanean. Hortaz, izena lehenbailehen eman behar dute interesatuek Lanbideren webgunean –*www. lanbide.net*–.

Deialdia langabeendako da eta hona derrigorrez bete beharreko baldintzak: kotizaziopeko prestaziorik ez jasotzea edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea. Horrez gain baloratuko dituzte: Aretxabaletan erroldatuta egotea; langabezian daraman denbora; eta antzeko lanetan duen esperientzia. Eta gidabaimena izatea, sasiak mozteko makina erabiltzen jakitea eta beste ezagutza batzuk ere kontuan hartuko dituzte.

Peoi horiek egin beharreko lanen artean daude: auzo eta baserri inguruetako zenbait bide eta gune garbitzea eta herri barruko hainbat jarduera.

ESKORIATZA

# Harresia berreskuratzen hasi dira Atxorrotzen

### Maiatzean egindako lanetan harresia eta uraska finkatu dituzte eta indusketak egin alboko haitzean

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Hirugarren faseko lanak egin dituzte maiatzean Atxorrotzen. 2009an abiarazitako indusketek aurkikuntza harrigarrien berri eman diete eskoriatzarrei eta oraingoan harresia bistarazi dute. Arkeologo eta lanen koordinatzaile Iñaki Sagredok honela jakinarazi du: "Aurtengo esku-hartzeak orain arteko ikusgarrienak izan dira. Azkenik harresia aurkitu dugu, eta bistan geratu dira haren forma bitxiak".



Neska-mutikoak indusketa lanak ikusten, maiatzean. | IBARRAUNDI MUSEOA

**Harresia indartu**

Bi lan mota egin dituzte oraingoan Atxorrotzen: batetik, harresia eta iaz aurkitutako uraska finkatu; eta bestetik, indusketa lanak alboko haitzean.

Harresia zegoela bazekiten adituek, baina oraingoan bistarazi egin dute. Hiru metroko lodiera du eta ia 15 metroko luzera; angeluak eta gainjartzeak ditu harkaitzean eta ezusteko aurkikuntza ere egin dute: Erdi Aroko isurarria gaztelu barruko urak kanporatzeko. Harresiak iraun dezan punturik ahulenak indartu dizkiote antzina erabiltzen zuten antzeko kare-morteroarekin. Lan horietan Gasteizko Artyco enpresako zaharberritzaileak ibili dira. Harresia sendotu ondoren pasabide bat egin dute harresiaren alboan eta jatorrizkoaren antzeko harri-zola jarri diote.

> **DATUA**
>
> **15**
>
> METRO
>
> Bistaratutako harresiak hiru metroko lodiera du eta 15 metroko luzera.

Bestalde, uraskaren alboan *L* itxurako kata arkeologiko bat egin dute, baina ez dute aparteko ezer topatu, kare eta landutako harkaitzezko geruza bat zegoelako berehala. Bere horretan uztea erabaki dute, baina asmoa da hesi batekin babestea eta plataforma baten gainean jartzea hobeto ikusi ahal izateko.

**Alboko haitza aztertu**

Alboan dagoen haitzean, ostera, indusketa lanak egin dituzte. Iaz zundaketa txiki bat egin zuten, eta orain indusketa bukatu. Haitz hori ere gazteluko defentsa sistemaren parte zela argitu dute.

Berriro ere zeramika aztarnak aurkitu dituzte, baita armak eta Nafarroako Antso Jakitunaren txanpon bat ere. Hortaz, Sagredok jakinarazi du gutxienez 1150etik 1194ra bitartean soldadu-talde bat egon zela Atxorrotzen eta defentsa gune bat izan zela.

**Laugarren faseko lanak**

Datorren urtean laugarren faseko lanak egingo dituztelakoan daude, proiektuarekin jarraitzeko. Eta asmoa da gaztelu osoan zehar harri-zolazko ibilbidea osatzea eta egurrezko egituradun begiratokiak egitea. Gainera, dorrea izan zuela ermitak uste dute eta hori aztertzekotan geratu dira.

Ermita barruan ere egin gura dituzte lantxo batzuk, tartean zurezko zorua aldatu hondatuta dagoelako. Haitza ixten duen harresian, ostera, azken fase bat egitea geratzen da.

ARETXABALETA

# "Gogotsu" hartu du alkate kargua Ana Bolinagak

### Hamar boto jaso ditu, tartean Aralarrekoenak; elkarlana bultzatzeko gogoz agertu da alkatea

M.A. | ARETXABALETA

Osoko bilkuren aretoa jendez beteta zela –heldu, nagusi zein ume– ekin zioten udalbatza eraketari zapatuan. Ezusteko barik eta giro lasaian izendatu zuten alkate Ana Bolinaga.

Aretoko mahaiaren bueltan eseritako kide gazteenak –Maider Aizkorbe– eta nagusienak –Joxe Anjel Antxia– zinegotzi karguak hartuko zituztenen agiriak egiaztatu zituzten lehenengo; 13 guztira. Gero alkatetzarako hautagaiak aurkeztu ziren: Bilduko Ana Bolinaga eta PSE-EEko Ainhoa Sagarribai. 10 boto jaso zituen Bolinagak, tartean Aralarreko hiru zinegotzienak; EAJkoek zuri bozkatu zuten; eta Sagarribai sozialistak bere buruari eman zion bozka. Hala bada, Bolinaga izendatu zuten alkate txalo artean.

**Elkarlana aldarrikatu**

"Gogotsu eta indartsu" hasiko dutela agintaldia esan zien Bolinagak elkartutakoei eta lau urteko ibilbide horretarako zer sartuko duen motxilan aipatu: bakea, justizia, askatasuna, ezkerrerako norabidea erakusten duen iparrorratza, lasaitasuna... "Eta ez da egongo hausturarik" iragarri zuen. Eta ibilbide horretan gainerako alderdiek ere izango dutela lekua esan zuen.

Aralarko Inaxio Garrok borondate ona erakutsi duela Bilduk jakinarazi zuen eta herritarren elkarbizitzaren alde lan egingo dutela iragarri.

EAJko Mikel Uribetxebarriak esan zuen Bildurekin hartu-emana izan arren, ez dutela ezer zehaztu; hala ere, elkarlanerako gertu azaldu zen. Eta PSE-EEko Ainhoa Sagarribaik zorionak eman zizkien Bildukoei.

Bukatzeko, argazkia atera zuten udalbatzako kideek.



Ana Bolinaga, alkate izendatu ostean, zein asmo dituen azaltzen. | M.A.



Osatu berri zen udalbatzako kideak, karguak hartu ostean. | M.A.

Garbittu

Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
*garbittu@euskalnet.net*

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak


Udalbatza osatzen duten 11 zinegotziak, kargua hartu ondoren. | ARANTZAZU EZKIBEL

ANTZUOLA

# Inma Beristain da Antzuolako alkate berria

## "Itxaropen eta ilusioz" lan egingo dutela esan zuen

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ANTZUOLA

"Garrantzi bariko" anekdota izan zuten zapatuan Udalbatza berria osatzerakoan. Eliseo Gartziak –EAJ– Bilduko hautagai Inma Beristaini eman zion botoa EAJ-ko Maria Eugenia Arrizabalagari beharrean. Baina garrantzi barikoa izan zen; izan ere, Beristainek nahikoa zituen sei boto alkatetza lortzeko. Hala, zortzi aldeko boto izan zituen Beristainek; Maria Eugenia Arrizabalagak bi boto jaso zituen; eta Carlos Urrestarazuk –PSE-EE– boz-ka bakarra.

Beristainek alkate kargua hartu zuenean hitz batzuk esan zituen. Euskal herriak bizi duen egoera berri honen aurrean "itxaropena eta ilusioa" dutela eta herritarren parte-hartzearekin lan egin gura dutela aurreratu zuen.


Inma Beristain, osoko bilkuren aretoan. | A.E.

Ondoren, Urrestarazuk hartu zuen hitza. "Lanera etorri naiz", esan zuen, eta gaineratu zuen ahal den guztietan bere sostengua izango duela Udalbatza berriak. Arrizabalagak ere hitza hartu zuen: "Antzuolak aurrera egin dezan lan egingo dugu, zintzotasunez", esan zuen. Herritarrek txalo artean hartu zuten Udalbatza berria.

ARAMAIO

# Sorpresarik ez udal eraketa saioan: Ramon Ajuria da alkate berria

## Aldeko zazpi boto jaso ditu Bildu koalizioko Ramon Ajuriak inbestidura saioan

**MAIDER ARREGI** | ARAMAIO

Espero zen moduan, Ramon Ajuria izango da datozen lau urteotan Aramaioko alkate berria. Aldeko zazpi boto jaso zituen: sei Bidurenak eta bat Aramaioko Alkartasunarena. Azken alderdi horretako beste zinegotzia eta EAJkoa abstenitu egin ziren.

12:00etan puntuan hasi zen kargu-hartze saioa. *Adinekoen mahaia* zinegotzirik zaharrenak, Iñaki Nafarratek, eta zinegotzi gazteenak, Idoia Beitiak, osatu zuten. Eskuz egin zuten bozketa eta Ramon Ajuriak jaso zituen boto gehien.

**Lehen adierazpenak**

"Herritarrei aurkeztutako programa zintzoki betetzen saiatuko gara. Protagonistak herritarrak izango dira eta herri honetako sentsibilitate abertzale guztiak bat egiten saiatuko gara. Udal demokratiko eta parte-hartzaile garbi baten alde egingo dugu lan", azaldu zuen Ajuriak. Amaitu baino lehen, aurreko udal taldeak egindako lana eskertu zuen. Asier Agirrek arlo pertsonalean jasandako epaiketa nabarmendu zuen, eta bere poza azaldu zuen Jon Agirre preso ohia, 30 urteren ostean, etxean dagoelako.


Aramaioko Udalbatza berria. | MAIDER ARREGI


EDORTA ARANA

LEINTZ GATZAGA

# Otsoak hartu dio lekukoa Villarri

Gorabeherarik gabe osatu zen udalbatza berria zapatuan eta gisa berean hartu zuen alkate kargua Eugenio Otsoak ere. Saioa bukatutakoan, udalbatza zahar eta berria bazkaltzera joan ziren elkarrekin, Gure Ametsara. Lan kontuengatik Mexikon egongo da Otsoa otsailera arte eta, bien bitartean, Mikel Gonzalez zinegotziak hartuko ditu bere gain haren udal-betekizunak.

ELGETA

# Bere alderdiko lau botoekin hartu du alkatetza Aralarreko Oxel Erostarbek

## Alderdi bakoitzak bere hautagaia babestu du inbestidura ekitaldian

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Gehiengo osorik lortu gabe hartu zuen zapatuan alkate kargua Erostarbek. "Gonbidatzen ditut bai EAJ bai Bildu ditugun erronkak adostu eta elkarlanean aurrera ateratzera", esan zuen. EAJ-k ez zuen ekitaldian adierazpenik egin, bai ordea Bilduko Janire Lazkanok. Jasotako babesa eskertu zuen eta argitu zuen oposiziotik egingo dutela lan. Esan zuen prest daudela "oposizioan aritzeak suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko".


Udalbatza berria, zapatuko ekitaldia amaitu ostean. | L.Z.


Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA
Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz
EUSKARAZKO HEDEBIDE EZ PUBLIKOAK


Jose Luis Barrena eta Unai Pata Mandobideko anoa-puntuan. | L.Z.


62 lagun irteera noiz emango zain; 59 lagunek amaitu zuten lasterketa. | JULIO CALLEJA


Haritz Kortabarria arrasatearra eta Arkaitz Zamakona otxandioarra Eskoriatzako helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA

GABEZ TAKARRARAN

# Haritz Kortabarria eta Arkaitz Zamakona batera heldu ziren

- Zapatuan, 62 lagunek hartu zuten parte Eskoriatzako I. Gabez Takarraran lasterketan
- Antolatzaileen lana nabarmendu zuen lasterkari batek baino gehiagok helmugan

LARRAITZ ZEBERIO | ESKORIATZA

Mendi lasterketa polita izan zen zapatukoa. Helmugan Haritz Kortabarria arrasatearra eta Arkaitz Zamakona otxandioarra nagusitu ziren. Lagunak dira, elkarrekin entrenatzen dute eta ia hasieratik jarri ziren lasterketaren buruan. Bide zati handiena elkarren ondoan egin ostean, helmuga elkarri eskua emanda zeharkatzea erabaki zuten. Halaxe egin zuten.

Antolatzaileen aurreikuspen baikorrenak gaindituz, bi gazteek ordu eta erdi pasatxoan egin zituzten ibilbideko 20,10 kilometroak. Kortabarriaren eta Zamakonaren denbora 01:37:20 izan zen.

### Emakumeak, lau

Parte-hartzaileak pozik dira lasterketaren lehenengo edizioak izandako harrerarekin. 62 lagunek hartu zuten irteera, tartean lau emakumek. Helmugara iristen azkarrena Nerea Amilibia izan zen. Euskal selekzioko lasterkari aiarrak bi ordu inguru nahikoa izan zituen lasterketa amaitzeko; bere denbora 02:02:24 izan zen.

Rosa Lasagabaster eskoriatzarra (02:23:59) izan zen bigarrena eta Marije Zubizarreta (02:45:44) hirugarrena.

### Antolakuntza ona

Erakargarria izateko motibo bat baino gehiago zituen Eskoriatzako Gabez Takarraran lasterketak; lehenengo edizioa, gabez, antolatzaileen ilusioa... Eskoriatzako Herriko plazatik lasterkarien irteera eta helmuga ikusteko aukera izan nuen. Gainera, eta antolatzaileen laguntzari esker, lasterkariak Lapako (4. kilometroa) zein Mandobideko (10. kilometroa) anoa-puntuetatik pasatzen ere ikusi nituen. 13 graduko tenperaturarekin, giro ona izan zuten lasterka egiteko eta, nahiz eta argitasuna eskasa izan, bidegurutze guztiak zeuden material egokiarekin markatuta. Toki askotan, jendea ere bazegoen argibideak zein animoak emateko. Lasterketan 62 lagunek hartu bazuten parte, antolakuntzan 70 bat lagun ziren.

### Gogorrena, azken jaitsiera

Kontuan izanda lasterketak 1.024 metroko desnibel positiboa zeukala, lasterkariei sufritzea tokatu zitzaien apur bat. Helmugan, jaitsierak igoerak baino gogorragoak izan zirela adierazi zuen batek baino gehiagok. Ibilbidearen erdi parean, min egin zuen Eskoriatzatik Mandobiderainoko igoerak (530 m) eta Atxorrotzetik herrirainoko jaitsierak –azkenazer esanik ez. Baina lasterkari gehienendako esperientzia positiboa izan da, "errepikatzeko modukoa", askoren esanetan.

---

ARKAITZ ZAMAKONA | GIZON IRABAZLEETAKO BAT

## "Azken jaitsiera gogorra egin zait; harriak zeuden eta jausi ere egin naiz"

Otxandioko mutilak gustura egin du Eskoriatzako lasterketa.

**Zer moduz?**

Ondo. Esperientzia berria izan da niretzat gabez lasterka egitea. Giro ona egon da eta ondo antolatu dute. Oso gustura ibili naiz.


Arkaitz Zamakona. | L.Z.

**Non sufritu duzu gehien?**

Azkenengo zatian gorabehera batzuk izan ditugu eta azken jaitsiera gogorra egin zait. Harri handi batzuk egon dira eta jausi ere egin naiz.

**Zer moduz argi barik?**

Guk suerte apur bat izan dugu. Aurretik joan gara nahiko hasieratik eta motorra denbora osoan gure inguruan ibili da. Laguntza izan da.

**Nola erabaki duzue batera heltzea?**

Batera entrenatzen dugu Haritz eta biok, eta lagun handiak gara. Hasieratik joan gara bakarrik. Zati baten aurrera tiratu dut nik eta gero, azken igoeran, atzetik etorri da. Hor erabaki dugu batera heltzea.







Jabier Etxebarrieta eta Rosa Lasagabaster Mandobideko anoa-puntuan. | J.C.




Nerea Amilibia aiarra helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA




Zigor Iturrieta eta Aitor Konde ziren lasterketa burua Herriko plazako anoa-puntuan; atzetik, gertu ziren Zamakona eta Kortabarria. | JULIO CALLEJA

**NEREA AMILIBIA** | LEHENENGO EMAKUMEA

## "Lehenengo esperientzia nuen gabez eta uste baino hobeto ibili naiz"

Aiakoa da Nerea Amilibia eta Euskadiko selekzioko lasterkaria. Pozik amaitu zuen.

**Zer moduz joan da lasterketa?**

Oso polita izan da. Lehenengo esperientzia nuen gabez eta boda batetik etorri naiz. Ez nekien nola ibiliko nintzen.



Nerea Amilibia. | L.Z.

**Aldapa gogorrak izan dituzue ibilbidean.**

Etorri naiz pentsatzen aldapa handiegirik ez zela egongo. Ikusi, ez ditut ikusi, baina hankek ederki sentitu dituzte, bai horixe!

**Non sufritu duzu gehien?**

Ez nuke jakingo esaten. Egia esan, nahiko fresko ibili naiz, gorputzaldi nahiko onarekin, eta uste baino errazago egin dut.

**Lehenengo aldiz antolatu dute lasterketa. Zer iruditu zaizu egon den antolakuntza?**

Primerakoa. Bidegurutze guztietan zegoen norbait. Putzu-zulo handiren bat bazegoen, hantxe zeuden. Nire ustez lan handia egin dute.




Jesus Odriozola eta Andoni Toston Mandobideko anoa-puntura iristen. | L.Z.

## SAILKAPENA

### GIZONEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Arkaitz Zamakona | 1:37:20 |
| 2. | Haritz Kortabarria | 1:37:20 |
| 3. | Iñaki Korta | 1:39:47 |
| 4. | Zigor Iturrieta | 1:40:23 |
| 5. | Aitor Konde | 1:42:30 |
| 6. | Jon Iturbe | 1:44:12 |
| 7. | Aitor Ayala | 1:45:08 |
| 8. | Javi Martinez | 1:45:31 |
| 9. | Joseba Molinero | 1:46:20 |
| 10. | Julen Garitano | 1:49:32 |
| 11. | Iban Urdangarin | 1:49:32 |
| 12. | Raul Urkiaga | 1:51:19 |
| 13. | Juanma Martinez | 1:53:18 |
| 14. | Gaizka Romero | 1:56:11 |
| 15. | Arkaitz Iraeta | 2:01:40 |
| 16. | I. Uribe-Etxebarria | 2:01:59 |
| 17. | Igor Martinez | 2:02:24 |
| 18. | Igor Guenetxea | 2:02:24 |
| 19. | X. Irazustabarrena | 2:02:24 |
| 20. | Iñigo Altuna | 2:03:09 |
| 21. | Aitor Kortazar | 2:03:47 |
| 22. | Unai Gartzia | 2:05:00 |
| 23. | Jose Luis Barrena | 2:06:15 |
| 24. | Gorka Sudupe | 2:06:50 |
| 25. | Unai Pata | 2:08:39 |
| 26. | Iker Sarabia | 2:08:39 |
| 27. | Aitor Oyon | 2:08:39 |
| 28. | Xabier Iñurrategi | 2:08:39 |
| 29. | Iñaki Lete | 2:10:30 |
| 30. | J. M. Coronado | 2:12:56 |
| 31. | Josu Cascon | 2:13:00 |
| 32. | Ibon Zabala | 2:13:55 |
| 33. | J.M. Carmona | 2:13:55 |
| 34. | Bartolome Gartzia | 2:14:43 |
| 35. | Xabier Gartzia | 2:14:53 |
| 36. | Asier Arrieta | 2:15:44 |
| 37. | Mikel Arosa | 2:15:55 |
| 38. | Mikel Murillo | 2:17:00 |
| 39. | Jesus Odriozola | 2:17:21 |
| 40. | Ganix Esnaola | 2:23:24 |
| 41. | Iñigo Perez | 2:23:24 |
| 42. | Kepa Landa | 2:27:24 |
| 43. | Andoni Toston | 2:27:54 |
| 44. | D. Amutxastegi | 2:28:04 |
| 45. | Jon Gorosarri | 2:29:05 |

### EMAKUMEZKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Nerea Amilibia | 2:02:24 |
| 2. | Rosa Lasagabast. | 2:23:59 |
| 3. | Marije Zubizarreta | 2:45:44 |
| 4. | Lukene Igartua | 2:47:11 |

GOITIBEHERAK



208 zenbakiak bazterra jo zuen helmugara heltzeko 10 metroren faltan. | JULIO CALLEJA

# 'La Gondola'-k minutu bat behar izan zuen San Martzialetik herrira jaisteko

Aurreko urteko irabazleak erraz menderatu zituen txapelketan parte hartu zuten 20 goitibeherak

**ANDER MONEDERO** | BERGARA

Parte-hartze handia izan zen zapatuan Bergarako San Martzial auzo bidean egin zen goitibehera txapelketan. Guztira, 20 lasterkari izan ziren, neumatiko, errodamendu eta goitibehera arinak modalitateetan. Euskal Ligako liderrak, *Mentxeta*k, ezin izan zuen *La Gondola* gainditu. Goitibehera bizkaitarrak (01:00.636) segundu bat azkarrago jaitsi zuen San Martzialera bideko aldatsa.

Antolatzaileek, Euskal Ligarekin batera, herri mailako txapelketa ere egin zuten, herritarren parte-hartzea bultzatzeko. Bergarako lau goitibehera izan ziren eta horietatik azkarrena *Beti azkar* izeneko goitibehera izan zen (01:06.171). Bigarren eta hirugarren sailkatuek, *Neo*k eta *Atxiki*k ere saria izan zuten. Baina herriko protagonista Maddi izan zen: txapelketan parte hartu zuen neska bakarra izan zen eta emakume azkarrenaren saria irabazi zuen; goitibehera arinetan, hirugarren helmugaratu zen.

Euskal Ligan, esan bezala, sailkapen orokorreko hirugarrenak, *La Gondola*k egin zuen denborarik onena. Aurreko urtean ere bizkaitarra izan zen nagusi Bergaran eta ibilbidea ondo baino hobeto ikasita zuela aitortu zuen. Segundu bat beranduago helmugaratu zen sailkapen orokorreko liderra: *Mentxeta*. Neumatikoen modalitateko azken saria *Pal-Matrix*-ek (01:02.090) eskuratu zuen.

Goitibehera arinen mailan parte hartu zuten hiru lasterkarietatik Mikel Iriarte (01:17.812) izan zen azkarrena. Ibilbidea osatzeko segundu bat gehiago behar izan zuen *Kaiser*-ek (01:18.984) eta hirugarren sailkatuak, Maddi gazteak, ia hiru minutuan osatu zuen ibilbidea.

Goitibehera txapelketako errodamendu sailean, bi pertsonek baino ez zuten izena eman. San Martzialeko aldapa jaisten *Güeñes* (01:31.875) izan zen *La rabuda* (01:32.015) baino azkarragoa.

**Txapelketak, erantzun ona**

Bergarako Udaleko Gazteria teknikaria, Nagore Narbaiza, pozik agertu zen txapelketak izandako erantzunarekin.

San Martzialerako bideko bazterretan, adin guztietako jende ugari bildu zen. Gaztetxoenak, etorkizunean parte hartzeko asmoarekin, goitibehera azkarrak nola egiten diren galdetzen aritu ziren; eta nagusiek, berriz, goitibeherek izan duten eboluzioaz jardun zuten: lehen, koadrila osoak jaisten zirela eta denborak ez zuela garrantzirik esaten zuten; orain, berriz, 1 Formulako autoen antza dutela zioten.



**JOKIN GUTIERREZ**
LASTERKARIA

"Ez nuen espero ibilbidea hain azkar egitea. Proba oso polita da, abiadura handia hartzen da eta, gainera, etxean izanda, lagun asko etorri da ni ikustera".



**ASIER LEIZEA**
IRABAZLEA

"Aurtengo ibilbidea luzeagoa da eta asko eskertzen da. Aurreko urtean baino abiadura handiagoa lortu dut! Egindako aldaketak hoberako izan direla uste dut".



'Zopiloteak' goitibehera. | JULIO CALLEJA



Jokin Gorostiren goitibehera. | JULIO CALLEJA


Bergarako saihesbideko zubia jendez lepo bete zen. | JULIO CALLEJA.


Emakume bakarrak parte hartu zuen proban. | JULIO CALLEJA


'Neo' goitibeherak herri mailako txapelketako bigarren postua lortu zuen. | J.C.


Jendeak adi jarraitu zuen lasterketa. | JULIO CALLEJA


A.M.

**NAGORE NARBAIZA**
UDALEKO TEKNIKARIA

## "Emaitza ikusita, datorren urtean txapelketaren hirugarren edizioa egingo dugu"

Bergarako Udaleko Gazteria teknikaria, Nagore Narbaiza, izan zen zapatuko frogako antolatzailea, bigarren aldiz.

**Goitibehera txapelketaren bigarren edizioan parte hartzeak gora egin du.**
Bai. Aurten Bergarako goitibehera txapelketa Euskal Ligarako froga puntuagarria da eta, horregatik, kanpoko jende gehiago etorri da. Gaur, 20 goitibehera izan dira, aurreko urtean baino askoz gehiago.

**Bi lehiaketa egin dituzue, ezta?**
Bai. Euskal Ligako txapelketa eta herri mailakoa egin ditugu.

**Pozik zaudete ikusle kopuruarekin?**
Bai. Froga hasieran, helmuga inguruan jende asko bildu da. Lastima da jaitsiera batetik bestera denbora asko pasatzen dela eta bukaerarako ikusle batzuk alde egin dutela.

**Aurtengorako, segurtasun neurriak ere indartu egin dituzue.**
Bai. Oraingoan, federaziokoekin eta lasterkariekin batera jarri ditugu fardoak, beharrezko ikusten zen tokietan.

**Zinta gorria ere jarri egin duzue.**
Proban parte hartzen dutenen eta publikoaren segurtasuna zaindu nahi izan ditugu. Gaurkoan, kolpe txiki batzuk baino ez dira egon; lasterkari bat edo bestek urraturen bat izan du, baina ezer larririk ez.

**Zer nolako balorazioa egiten duzue?**
Oso ona. Datorren urtean gauzak horrela jarraitzen badute hirugarren goitibehera txapelketa egingo dugu.



**UNAI PANIAGUA**
LASTERKARIA

"Ibilbide oso dibertigarria da. Lastima da errepidean zuloren bat edo beste egotea. Zirkuituak luzera egokia du eta abiadura handia hartzen da".



**JON GARCIA**
IKUSLEA

"Asko gustatzen zait, zezenekin batera jaietatik gehien gustatzen zaidana da. Abiadura handian jaisten dira, balorea behar da horrelako baten igotzeko!".



**ARITZ GARCIA**
IKUSLEA

"Goitibeherak ikustera etortzen naizen lehenengo aldia da. Asko gustatu zaizkit; jaietako orain arteko ekitaldi politena izan da, nire ustez. Gozatu egin dut".



**ARITZ BASTERRA**
IKUSLEA

"Asko gustatu zait. Ikuskizun polita da goitibeheren lehiaketa. Txanda batetik bestera asko itxaron behar da, baina merezi duela uste dut".



**ANTXON LAZPIUR**
IKUSLEA

"Abiadura handian jaisten dira eta arraroa da istripurik ez egotea. Kontrol handia behar da goitibehera batean hain azkar jaisteko".

PILOTA ETA FRONTENISA

# Aritz eta Beñat Rezusta, eta Gabiña eta Niko bikoteak nagusitu dira

- Magaliren aldeko pilota eta frontenis txapelketetako finalak jokatu dituzte
- 19 bikotek parte hartu dute txapelketetan; bost bikotek esku-pilotan

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA
Aste bukaeran jokatu dira Magali neskatila bergarararraren aldeko pilota finalak. Frontenis eta esku-pilota txapelketak jokatu dituzte azken hilabetean Bergaran, eta, hain zuzen, txapelketa horien finalak jokatu zituzten zapatuan.

Pilotari dagokionez, Aritz eta Beñat Rezusta izan dira irabazleak. 22-15 irabazi zioten Julen Muguruza eta Mikel Salegi bikoteari. 18:30 inguruan hasi zuten finala; hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik Rezustatarrak, eta esan daiteke arazo barik irabazi zutela txapela.

Finalaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten. Igor Igartuak eta Mikel Gallastegik 22-16 irabazi zieten Iñaki Olaortuan eta Oskar Sarasuari.


Esku-pilota finaleko bikoteak, jokoan. | JULIO CALLEJA

### Sari bikainak
Esku-pilotako irabazleek nahiz frontenis txapelketakoek sari potoloak izan zituzten. Lehenengo sailkatuek garaikurra, Lasa jatetxean bazkaria eta buruz-buruko txapelketako finala ikusteko sarrerak lortu zituzten. Bigarren geratu ziren lau lagunei, berriz, Zumelaga jatetxean bazkaria eta Aspe pilota enpresako kamiseta bana eman zieten, egindako lanarengatik.

### Frontenis txapelketa
Behin pilota partiduak amaitu zirenean, frontenis txapelketako finalei eman zieten hasiera.

Lehenengo, hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten. Jon Linazisoro eta Gorka Irizarrek 22-18 irabazi zieten Diego Ardohaini eta Luis Javier Martinezi.

Azkenik, final handia jokatu zuten Jokin Etxaniz eta Ibon Aranak, Aitor Gabiña eta Nikoren aurka. Partidu nahiko samurra izan zen bigarren bikotearendako; hala, 22-8 nagusitu ziren Gabiña eta Niko.

### 19 bikotek parte hartu dute
Magaliren aldeko esku-pilota eta frontenis txapelketetan 19 bikotek parte hartu dute. Horietako 14 frontenisean aritu dira eta bost besterik ez dira aritu esku-pilotan.

Orain dela hilabete hasi zituzten txapelketak. Lehenengo fasea Angiozarreko pilotalekuan jokatu zuten eta finalak, esan bezala, Udal pilotalekuan izan dira.

Antolakuntza taldea "oso gustura" geratu da txapelketak eman duenarekin. Era berean, nabarmendu dute ez dela ezustekorik egon eta dena aurreikusi moduan joan dela.

### Eskerrak eman dituzte
Txapelketa aurrera ateratzeko izan duten laguntza nabarmendu nahi izan dute antolakuntza taldekoek: "Sariak emateko orduan herriko dendek asko lagundu digute", azaldu dute. Denak pozik, hortaz, emaitzarekin.

TXIRRINDULARITZA

## Egubakoitzean emakumea eta ziklismoa berbagai

**A.E.** | BERGARA
Bergarako osoko bilkuren aretoan mahai-ingurua egingo dute datorren egubakoitzean, hilak 17. Eneritz Iturriagak, Ana Usabiagak, Arritxu Iribarrek eta Ainhoa Azurmendik parte hartuko dute hitzaldian. Emakume areneta ziklismoaren inguruan jardungo dute. Hitzordua 19:00etan da.

Hitzaldia egiteko aitzakia izan da ekainaren 18an, zapatua, Osintxun emakumezkoen lasterketa jokatuko dutela. Gainera, Gipuzkoako lasterketa izango da Osintxukoa. Bestalde, hilaren 19an, domeka, Euskadiko txapelketa jokatuko dute Zizurkilen.

PILOTA

## Gaur jokatuko dute pilota txapelketako finala Bergaran

**A.E.** | BERGARA
Etxeko pilotariek jokatuko dituzte aurtengo Bergara Hiria txapelketako finalak. 22 urtez azpikoetan, Beñat Rezusta eta Victor errioxarrak jokatuko dute finala; nagusietan, aldiz, Mendizabal antzuolarrak eta Iruretak jokatuko dute finala, Untorioren eta Larrañagaren aurka. Lehenengo, 18:30ean, emakumezkoek paleta erakustaldia egingo dute.

Bihar, pilota partidu profesionalak jokatuko dituzte. Irujo-Zubietaren eta Gonzalez-Laskurainen arteko lehia izango da nagusia. Horien aurretik, Retegi II-Galartzak eta Idoate-Zeziliok jokatuko dute partidua.



BAT BASQUE TEAM

MENDIA

## Zeharkatu dute Groenlandia

Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza mendizaleek 32 egunetan egin dute Groenlandiako 2.200 kilometroko zeharkaldia. Herenegun, zapatua, bukatu zuten izotz eremua, eta lurra zapaldu zuten. "775 metroko altueran gaude, eta orain bi egun beharko ditugu Thulera iristeko –40 kilometro–", zioten. Eskiekin eta kometekin egin dute zeharkaldia eta tenperatura oso hotzak jasan dituzte (-30 gradu).

TXIRRINDULARITZA

## Ander Alonso beasaindarra izan zen indartsuena San Antonioko aldaparen 75. igoeran

**A.E.** | BERGARA
Kadete mailako 200 txirrindularik parte hartu zuten, 75. edizioan: "Beste 50 bat lagun kalean geratu dira, parte hartzea 200era mugatu dugu-eta", azaldu zuen Iker Sanchez Lokatza taldeko kideak.

### Ihesaldia Deskargan gora
San Antoniotik irten eta Oñatiko Zubillaga auzotik lehenengo itzulia egin ondoren, tropela batuta pasa zen. Bigarren itzulian, Oñatitik gora egin eta Legazpira jo zuten txirrindulariek.

Deskargan gora, Alonsok berak eta beste batek ihes egin zuten. "90 metroko aldea hartu dugu", esan zuen Alonsok amaieran. Baina Antzuolara bidean tropelak harrapatu egin zituen ihes eginda zihoazen bi txirrindulariak. Hala, esprintean erabaki zen lasterketa. Alonsok 1:29:05ko denbora behar izan zuen; bigarrena Ander Etxezarreta izan zen; eta hirugarrena, Dorletako Ama taldeko Danel Sagasta. Bergarar onenaren saria Urtzi Muguruzak jaso zuen. Lasterketa Euskadiko txapelketa izan zen.


Ander Alonso eskuak jasota, helmugan. | JULIO CALLEJA

TXIRRINDULARITZA

## Espainiako selekzioarekin izan da Mikel Aristi

**A.E.** | BERGARA
Bergarako Sumofic Lokatza taldeko Mikel Aristi gazte mailako Espainiako selekzioarekin aritu da aste bukaeran; hilabete barru Italian jokatuko dituzten Europako txapelketei begira egin dituzte entrenamenduak.

Zapatuan, 23 urtez azpikoekin batera lehiatu zen eta 34. postuan sailkatu zen bergararra. 43 kilometro orduko abiaduran egin zuten 122 kilometroko ibilbidea. Sentsazio onak izan zituen Bergarako txirrindulariak. Aristi bergararra da, Victor Etxeberria nafarrarekin batera, Espainiako selekzioan dabilen euskaldun bakarra.

FUTBOLA

**Bixen Calzon** | Realeko infantil mailako entrenatzailea

# "Infantil mailan hartzen ditugun jokalariak epe luzera progresioa izango dutenak dira"

- Bixen Calzonek Realeko infantil mailako taldea entrenatu du azken bi urteetan
- Lleidan jokatutako Internacional Cup txapelketan entrenatzaile onenaren saria jaso zuen



Bixen Calzon, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian hartutako irudian. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA

Bixen Calzon aretxabaletarrak kirol munduarekin lotura estua dauka. Goiena Sporteko arduraduna da eta, horrez gain, futbolean Realeko infantil taldea entrenatzen du. Realaz eta harrobiaz berba egin dugu.

**UDAn hasi zinen entrenatzaile lanetan eta orain Realean zaude. Nolako taldeak dira?**

Niretako ohorea da Realean egotea, eta, gainera, zortea ere bai. Izan ere, azken finean, jokalariak aukeratu egiten ditugu. Baldintza ezin hobean daude: medikua, fisioterapeuta, azpiegitura onak... denetik dute. Hemengo taldeetan, ostera, lan handia egin behar da eta dedikazio handia behar da. Realak, azken finean, gainerako elkarteetan oinarritu behar du eta haien laguntza behar du. Reala ezin da Zubietan bakarrik oinarritu, gutxienez Gipuzkoan oinarritu behar du.

**Nola joan da bukatu berri duzuen denboraldia?**

Oso gustura nago. Emaitzetan bakarrik ezin gara oinarritu. Adierazleak izan daitezke, baina beste gauza batzuk ere kontuan hartu behar ditugu. Infantil mailan txapeldun izateak ez du ezertarako balio epe ertainera edo luzera ez baduzu jokalari bat bera ere ateratzen. Guk hartzen ditugun jokalariak dira uste dugunak progresioa izango dutenak ez orain, baizik eta epe luzera.

Orain errendimendua emateko jokalari handienak hartuko genituzke. Baina ikusi behar dugu azkarra dela, futbola ulertzen duela... haiekin egin behar dugu lan.

**Harrobi lana egin eta gerora futbol jokalariak izango direnak ateratzea da zure lana, hortaz.**

Ez bakarrik jokalariak, batez ere pertsonak ateratzea da gure lana. Ezin dugu iparra galdu. Jokalari bat irtenez gero emaitza ona da, baina zer gertatzen da gainontzekoekin? Pertsona moduan hezi behar ditugu lehenengo.

Realaren filosofiarekin oso gustura nago, Reala arduratu egiten delako... eskolara deitzen dugu zelan doazen jakiteko... eta eskolan maila jaisten badute *toke* bat ematen diegu. Notak eskatzen dizkiegu.

**Apirilean Lleidan jokatutako txapelketan entrenatzaile onenaren saria eman zizuten. Zer esan gura du horrek zuretako?**

Polita izan zen. Bartzelona, Zaragoza, Paris Saint-Germain, Osasunak... jardun zuten lehian. Guk gure filosofiarekin jokatu genuen eta saiatu ginen baloia jokatzen. Jokalariendako ikasteko aukera polita izan zen, eta, gainera, denek jokatu zuten.

Azken finean, jokalarien eta taldearen jarrera saritu zuten.

**Realean infantil mailan hasten zarete jokalariekin lanean.**

Beste talde batzuetan benjamin mailan hasten dira mutikoekin lanean. Baina ez dago frogatuta futbolean lehenago hasteak emaitza hobeak dakarrenik. Egia da estimuluak landu behar direla, baina ez dago zertan futbola bakarrik egin. Beste aktibitate batzuetan ere aurki daitezke estimulu horiek, gero futbolean baliagarriak izango direnak.

**Nola entrenatzen zarete?**

Astean hiru entrenamendu egiten ditugu, baina ez jokalari guztiekin. Martitzenetan Donostialdekoak etortzen dira, eguaztenetan Gipuzkoa osokoak, eta kanpoan bizi direnak egubakoitzetan bakarrik etortzen dira. Hala, euren eskolan, lagunekin... jarraitzen dute. Euren herriko taldean entrenatzen dute eta Reala harremanetan egoten da eurekin.

**Maila txikietan badago fitxaketak egiterakoan *liskarrik*?**

Bai, gertatzen dira...

**Entrenatzaile eta hezitzaile zaretela esan daiteke?**

Bai, mutikoendako erreferente gara gu. Pertsonak onak izatea, elkartasuna, eguneroko lana... hori guztiori erakutsi behar diegu. Ahal duten mailan, %100 eman behar dute. Helburua ez da lehenengo maila, baizik eta duten dena ematea.

**Realean badaude hainbat jokalari erreferente direnak.**

Bai, Gonzalez, Aranburu... pertsona normalak dira. Inoiz etorri izan zaizkigu hitzaldiak egitera; adibidez, Kodro. Adimen emozionala lantzen ere saiatzen gara mutikoekin.

**Ze iritzi duzu Realak fitxatu duen entrenatzaile berriaz?**

Ez dut ezagutzen, baina itxura ona dauka. Bere elkartean ere harrobiarekin lan egin izan du... Denoueix berria izateko itxura dauka. Trebakuntza eta errendimendu taldeen artean ez dugu harreman handirik.

**Nora iristeko asmoa duzu?**

Ez dut pentsatu. Ikasi eta gozatu, hori da nire asmoa. Non gauden eta helburuak zeintzuk diren argi izan behar dugu.

**"Niretako ohorea da Realean entrenatzen egotea, eta baita zortea ere"**

**"Kanpoan bizi direnak astean behin bakarrik etortzen dira"**

**"Jokalari bat irtetea ona da; baina zer gertatzen da gainontzekoekin?"**

**"Realeko entrenatzaile berria Denoueix berria izan daiteke"**

HEZKIKETA

**Pakita Mateos** | AGIPAD elkarteko prebentzio saileko arduraduna

# "Bikotekidearekin irizpide bateratuetara iritsi behar dugu umeak hezteko"

Umeen heziketan ere gauza asko ziurtzat ematen dira, eta ez dira bikotekidearekin hitzegiten

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Arrasateko udal prebentzio sailaren eskutik nerabeak dituzten gurasoendako hitzaldi sorta egin du Pakita Mateosek. Umeak hezteko koherenteak izan behar dugula argi dugu denok, baina nola lortu hori hainbat gairen inguruan bikotekidearen iritziarekin bat ez banator?

**Zer da umeen heziketan gurasoek modu koherentean jokatzea?**

Irizpide bateratuak adostean dago gakoa; ze balore transmititu nahi ditugun, ze arau eta ze muga ipiniko ditugun... Bikotekide bakoitzak motxila bat dakar, eta bi motxila horiekin bakarra egin behar dugu; seme-alabek jasoko dutena.



Pakita Mateos. | L.Z.

"Askotan botere eztabaidetan jausten gara"

**Akordioetara iristea ez da beti posiblea izaten.**

Desadostasunak sortzen direnean ez dugu ahaztu behar lehentasuna umea dela. Askotan botere eztabaidetan jausten gara, eta horrelakoetan bi aldeek eman behar dute amore. Erdibideko soluzio bat topatu behar dugu.

Beste aukera bat da gurasoek ardurak banatzea eta erabakiak nork bere esparruan hartzea. Hori horrela bada, nahiz eta ez gustatu beste gurasoak errespetatu eta betearazi egin behar ditu bikotekidearen erabakiak.

**Zergatik da horren zaila adostasunetara iristea?**

Elkarrekin urteak daramagunean gauza asko ziurtzat ematen dira, eta ez dira hitzegiten. Garrantzitsua da bikotekideek seme-alaben heziketari buruz hitzegitea. Zer nahi duzu seme-alabendako? Nola egingo dugu bidea?... Gauza horiek guztiak familia berria osatzen denean hitzegin beharko genituzke, baina ez dugu egiten.

**Zer gertatzen da bikotea banantzen denean?**

Bikotea banantzen da, baina guraso izaten jarraitzen dugu eta behartuta gaude adostasunetara iristea. Umeengatik.

# Telebistaren kontsumoak arduratsua behar du, eta heziketa ezinbestekoa da

Haurrak zenbat eta txikiagoak izan, gurasoen jarrerak orduan eta aktiboagoa izan behar du

L.Z. | ARRASATE

Telebista, oro har, modu intuitiboan erabiltzen dugu, eta ohartu behar dugu entretenitzeaz gain hezi ere egiten gaituela. Unescoren katedran ikerketa bat egiten ari dira; garrantzitsua ikusten dute kontsumo arduratsua bultzatzea. Telebistaren inguruko heziketa beharrezkoa dela iritzi dute.

Gurasoek kalitatezko programak bilatu eta haurrekin ikusi behar dituztela ondorioztatu dute, eta publizitatearen mekanismoez ere haurrekin hitz egin behar dela uste dute. Haurra zenbat eta txikiagoa izan, gurasoek orduan eta jarrera aktiboagoa izan behar dute. "7 urtetik beherakoek ezin dituzte zenbait saio ikusi eta debekatzeko eskubide osoa dute gurasoek. Nerabeen kasuan, negoziazioan sartu behar dute gurasoek".

**Gazteak selektiboagoak**

Gazteek *telezabor* gutxiago aukeratzen dutela antzeman dute ikerketa horretan; helduak baino selektiboagoak direla, alegia. Askok Interneten ikusten dute telebista eta Internetek aukerak ugaritu eta zabaldu egiten ditu. Pentsatu behar dugu telebista zertarako erabili nahi dugun. Denbora osoan piztuta ala tarte luzeetan itzalita badago, garrantzitsua izaten da, eta horrek eragina du neska-mutikoengan. Ohitura horiek ere ikasi egiten dituzte umeek.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **guraso.com**

guraso.com

ADITUAREN ESANETAN

# Zirkuitu osasungarrien onurak

**Olatz Manuel eta Xabin Arriola**
TAFYDeko irakasleak

Gizakiontzat mugimendua berezko gaitasuna da. Gure gorputzaren osaera, giltzadurak, giharrak... mugimendutik eta mugimendurako eginak daude. Jaio aurretik ari gara mugitzen, horren bidez lortzen dugu garapena eta horrek berak mantentzen gaitu bizirik.

**Adin bakoitzari bere espazioa**

Egunerokotasunean, jarduera fisikoa egiteko aukera asko ematen dizkigu bizitzak. Haurrek jolasparkeak izaten dituzte euren trebetasunak lantzeko eta helduok beste hainbat abagune izaten ditugu jarduera fisikorako.

Orain dela gutxira arte, jende nagusien jarduera fisikoa mugatzen zen lagunekin eguneroko edo noizbehinkako paseoetara eta, batzuetan, ikastaro konkretuetan parte-hartzera. Gaur egun, aldiz, gero eta parke bio-osasungarri gehiago ikus ditzakegu gure inguruan, eta adinekoei jarduera fisikoa era autonomoan egiteko aukera paregabea eskaintzen diete.

Azkenaldian, gure bailarako hainbat aisialdi-gunetan horretarako propio diseinatutako aparailu eta tresnaz hornitutako zirkuituak ikus ditzakegu. Azter ditzagun horien nondik norakoak.

**Zirkuituen helburua**

Zirkuitu horiek pertsona nagusien aisialdia modu osasuntsuan betetzeko helburuarekin jarri dira, eta nagusiei sasoitsu mantentzeko aukera paregabea eskaintzen diete.

Horretaz gain, elkarrekin egoteko eta ondo pasatzeko guneak ere badira. Parkeetan aurki ditzakegun aparailuek gorputzeko atal guztiak martxan jartzeko aukera eskaintzen dute; oreka, koordinazioa, indarra, malgutasuna eta mugikortasuna, oro har, lantzen laguntzen dute. Garbi izan behar dugu, ordea, parke horiek ez direla gimnasioak; izan ere, makina horien helburua beste bat da.

**Onurak**

Hain eskuragarri ditugun tresna horien bidez onura fisiko asko lor daitezke: goi eta behe ataletako artikulazioen mugikortasuna hobetzea; giharretako tonua berreskuratzea; begien eta eskuen arteko koordinazioa lantzea eta inpakturik gabeko gaitasun kardiobaskularra.

Instalazioak erabiltzen dituztenen artean elkarrekintza soziala ere izaten da; jende berria ezagutzen da eta momentu atseginak pasatzen dituzte. Gainera, burua osasuntsu mantentzen ere laguntzen du, eta funtzio kognitibo eta sentsorialak hobetu.

Gure bailaran ere baditugu horrelako zirkuitu bio-osasuntsuak: Bergaran erretiratuen egoitzaren parean, Arrasateko eta Eskoriatzako bidegorrietan, Urkulun...



Hirugarren adinekoendako parke osasungarria. | ARIZMENDI

## Aparailu bakoitza zertarako da?

. Iraupen–eskia: enborra osatzen duten giharren indartzea lortzeaz gain, bizkarrezurreko mugikortasun hobetzen laguntzen du.
. Pedalak: behe ataleko gihardura indartu eta giltzaduren mugimendua hobetzen laguntzen du.
. Timoia edo gurpila: goi ataleko eta, bereziki, sorbaldako giharrak indartzeko eta hobetzeko baliagarria. Koordinaziorako ere ona da.
. Eskailerak: Behe ataleko gihardura indartzen laguntzen du.
. Gerriari birak emateko plataforma: bizkarrezurreko eta gerrialdeko errotazio gaitasuna hobetzen du.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendipro.eu**

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

# Rock indartsuak eta ahots goxoak hartu zuten Sastiña

▸ Bea Asurmendiren White Shadow taldeak Sastiña aurrean eskaini zuen kontzertua

▸ Udalak antolatzen duen egitarauaren barruan, Parradust taldeak jardungo du hurrena

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Bea Asurmendi herritarraren ahots goxo eta indartsua entzuteko gogoz, bete egin zen Aramaioko plaza egubakoitz iluntzean. Giro aparta eta musika bikaina. Hori izan zuten Sastiña aurreko plazatxora joandakoek.

Aramaioko Udalak zuzeneko musikaz gozatzeko egitaraua prestatu du ekaineko egubakoitzetan. Horren baitan, White Shadow taldeak kontzertua eskaini zuen egubakoitzean. White Shadow Bea Asurmendiren proiektu berria da. Aramaioko abeslariaz gain, taldeko parte dira Oier Arregi gitarra jotzaile arrasatearra; eta Paulo Casal baxu jotzaile eta Axel Errasti bateria jotzaile aretxabaletarrak.

**Gustura egindakoarekin**

"Kontzertua ondo irten da eta oso gustura gaude egindakoarekin", adierazi zuen Asurmendik kontzertu amaieran.

Ordu eta 10 minutu inguru iraun zuen kontzertuak. AC/DC talde mitikoaren bertsio batekin hasi zuten emanaldia; jendeak ondo erantzun zuen. Sastiña ermitaren aurrealdean taldekideen koadrilako lagunak eta herriko gaztetxoak zeuden; atzealdean, ostera, tabernaren inguruan, gainerako herritarrak. "Rock doinuak izan dira eskaini ditugun abesti gehienak", esan zuen Asurmendik. Bertsioez gain, taldeak sortutako abestiak ere eskaini zituzten Sastiñan.

**Gitarra eta ahots goxoa**

Asurmendik bakarka ere jardun zuen. Gitarra lagun zuela, *Laster arte* abestia eskaini zuen. "Nik sortutako abestia da", zioen.

Rockarekin oso ondo moldatzen direla erakutsi zuten White Shadow taldeko lagunek, eta Asurmendik berak ere onartu zuen beste estilo batzuetan baino hobeto ikusten dutela esaten diotela lagunek. Miren Oteiza eibartarrarekin duen May-Bi taldean dance eta elektronika musika egiten dute, "beste estilo bat".

2010eko azaroan hasi ziren White Shadow taldeko kideak entseguekin, eta lehenengo kontzertua apirilaren 1ean eskaini zuten.

**Sastiñako kontzertuak**

Zuzeneko kontzertuekin jarraituz, datorren egubakoitzean Parradust taldeak folk musika eskainiko du Sastiña aurrealdean. Hainbat hizkuntza uztartzen dituen taldea da Parradust: gaelera, euskara, ingelesa, eskoziarra... Beti bezala 20:00etan izango da hitzordua.



Paulo Casal, Bea Asurmendi, Oier Arregi eta Axel Errasti kontzertuko une batean. | ARANTZAZU EZKIBEL

**BEA ASURMENDI** | MUSIKARIA

## "Jendeak gustura entzuten du gure musika eta horrek indar handia ematen digu"

Aramaioko Udalak Sastiñan antolatutako zuzenekoan jardun zuten egubakoitzean White Shadow taldeko kideek. Bea Asurmendi aramaioarra da taldeko abeslaria. Harekin izan ginen.

**Berezia izan da etxean aritzea?**

Bai, egia esan, berezia da. Orain dela urte batzuk beste talde batekin jardun nuen hemen, baina talde berriarekin lehenengo aldia izan da. Esan behar da, gainera, orain dela gutxi hasi garen taldea garela.

**White Shadow taldeak estilo berezia du. Bertsioez gain zuen abestiak ere jotzen dituzue.**

Bai, taldean hainbat abesti sortu ditugu dagoeneko eta horiek eskaini ditugu, baina baita bertsioak ere. Orain arte egin dudanarekin alderatuta, zeharo ezberdina da talde honen estiloa. Rock melodikoa ingelesez egiten dugu eta jotzen ditugu U2, AC/DC, The Corrs... taldeen bertsioak. Ez dauka zerikusirik May-Bi taldearekin, adibidez.

**Lau lagunek osatzen duzue taldea, denak debagoiendarrak.**

Nik abestu egiten dut. Bestalde, baxua dago, abesti batzutan koroak ere egiten dituena; gitarra eta bateria dira beste biak. Arrasateko, Aretxabaletako eta Aramaioko kideak gara.

**Badarabilkizue esku artean diskoa grabatzeko aukera?**

Asko gustatuko litzaiguke. Izan ere, oso gustura gabiltza musika arloan eta, gainera, lagun onak gara. Dagoeneko Arrasaten —Elkartasun egunean— eta Aretxabaletan eskaini ditugu kontzertuak. Ikusi dugu jendea gustura egon dela kontzertuak ikusten. Horrek indar handia ematen digu aurrera jarraitzeko.

**Miren Oteizarekin duzun May-Bi proiektua alde batera utzi duzu?**

Ez, ez... proiektu ezberdina da hau. Jarraitzen dut Mirenekin entseatzen eta, gainera, udan hainbat kontzertu eingo ditugu. Uste dut aberasgarria dela proiektu ezberdinetan ibiltzea eta musika estilo ezberdinak lantzea.

> "Aberasgarria da proiektu eta musika estilo ezberdinak lantzea"

**Nolako harrera izan du urte hasieran atera zenuten diskoak?**

Ona. Jendeak denetik esan dit; batzuentzat arraroa da ni musika estilo horretan entzutea. Estilo ezberdinak dira eta etorkizunean ikusiko dut nik zer nahiago dudan.

**Rock estiloan hobeto aritzen zara, hortaz, zure lagunen ustez.**

Bai, hori esan didate, gehiago ikusten nautela rocka egiten. May-Bi taldearen proiektuak kutsu elektroniko edo dance ukitua dauka. Lehen beste talde batekin ibili nintzen rocka egiten eta agian horregatik ikusten naute gehiago rock estiloan.


Txorbela (Arrasate) eta Ragnarök (Suedia) otxoteetako kideak, San Frantzisko elizako emanaldian. | GOIATZ ARANA

# Elkartruke sinfonikoa baino gehiago Txorbela otxoteko kideendako

Bi emanaldi egin dituzte batera Arrasateko Txorbela eta Suediako Ragnarök otxoteek; esperientzia oso aberasgarria izan dela adierazi dute arrasatearrek

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE

San Frantzisko eliza bete egin zen bariku iluntzean Arrasateko Txorbela eta Suediako Ragnarök otxoteen emanaldirako. Ordubeteko kontzertua egin zuten, non talde bakoitzak bere folkloreko pieza ezagunak eskaini zituen. Ez da otxote biek aste bukaeran egin duten saio bakarra: zapatuan, Donostiako Kaputxinoetan egin zuten emanaldi bera eta hiribururuan ere bete egin zuten aretoa. "Apoteosikoa" izan zela esan digute Txorbelatik, "zoragarria", izan ere, jendea zutitu egin zen txalotzeko. Ragnarök maila oso oneko taldea da: Suediako Erreal Operako kideak dira, abeslari profesionalak.

**Adiskidantzazko lotura**

Luxuzko elkartrukea izan da honakoa arrasatearrendako. Eguenetik egon dira gurean Ragnarök taldeko abeslariak eta elkartruke sinfonikoa baino askoz ere gehiago izan dela adierazi dute Txorbelako kideek. "Elkarrekin abesteaz gain, elkarrekin bazkaldu eta afaldu dugu, kantuak ere trukatu ditugu...".

Zapatuan agurtu zuten elkar eta berriz elkartzeko konpromisoa hartu dute. Suediarrak Euskal Herriarekin maiteminduta joan direla ziurtatzen dute Txorbelatik eta udaberrian bisita bueltatzeko asmoa dute.

# Goikobaluko txikiek jendaurreko saiorekin agurtu dute ikasturtea

**L.Z.** | ARRASATE

Kulturateko areto nagusia txiki geratu zen bariku iluntzean. Goikobaluko txikienek ikasturte amaierako emanaldia egin zuten, eta jakinekoa da artista txikiek jarraitzaile asko izan ohi dituztela.

Lehenengo, Goikobalu tailerreko haurrak igo ziren eszenatokira: 4 eta 5 urte bitarteko neska-mutikoak. Iaz hasitakoak izateko primerako saioa egin zuten. Hiru kantu eskaini zituzten, tartean Pirritx eta Porrotxen *Joxe Mari zapataria*.

Ondoren, Goikobalu Txikiko lagunen txanda izan zen, 6-10 urte bitarteko neska-mutikoena. Hauek ere emanaldi oso txukuna egin zuten. Orain, oporretan daude guztiak.

**Goikobalu Gazte**

Ikasturte amaierako kontzertua egiten hurrengoak Goikobalu Gazteko kideak izango dira. Hiru emanaldi iragarri dituzte. Ekainaren 15ean, eguaztena, Arrasateko Aldai parkean egingo dute. "Toki itxietan egin ohi ditugu kontzertuak eta oraingoan kalera atera nahi dugu gure lana", esan du Rakel Murgiondo zuzendariak. Saioa 19:30ean da. Aste bukaeran, berriz, Bartzelonan izango dira; bi kontzertu egingo dituzte.


Goikobalu txikiko umeak Kulturaten emanaldia egiten. | MONDRABERRI

**Tachia Quintanar** | Garcia Marquezen maitale ohia

# "Idazterako orduan dauzkan fantasia eta goxotasuna ditu ezaugarri Marquezek"

Enpresagintza fakultatean, ikasleekin solasean izan da Quintanar, Garcia Marquezen inguruan


Tachia Quintanar Oñatiko enpresagintza fakultatean. | JULEN IRIONDO

**MAIDER ARREGI** | OÑATI

Literaturako Nobel saridun kolonbiarra ez da gurean izan, baina bai bere lehengusina eta 50eko hamarkadan idazle handiaren neskalagun izandako eta oraindik laguna duen Tachia Quintanar, urteetan Parisen bizi den eibartarra. Euren eskutik, Gabriel Garcia Marquez gertutik ezagutu eta sentitzeko aukera izan zuten Oñatiko Enpresagintza fakultateko ikasleek. Idazle eta poeta kolonbiarra sakonago ezagutzen lagundu digu Tachia Quintanarrek.

**Errealismo magikoa da Garcia Marquezen ezaugarria.**

Egian esan, bere amak *Cien años de soledad* (1967) irakurri zuenean, galdetzen zuen nola zen kapaz bere familiako txutxumutxu guztiak aireratzeko, barreiatzeko. Idazle batek bere errealitatea mistifikatzea da errealitate magikoa. Berak esaten zuen bizitakoa kontatzen zuela. Familia, izandako bizipenak... denak du eragina bere obran.

**Zuk ere eragina izan duzu Garcia Marquezen lanean?**

Parisen bizi gineneko etapa aipatuko nuke. *El coronel no tiene quien le escriba* (1961) lanagatik, niri la *coronela* deitzen didate. Izan ere, bere senarra asko maite duen emakumea bizi, jan egin behar duela ohartzen da, eta hori naiz ni. Bizitza zailtasun handiekin pasatzen zuen emakumea.

**Nola deskribatuko zenuke?**

Berak adiskidetasunari sekulako garrantzia ematen dio. Berarentzako laguna sakratua da. Badira zenbait lagun traizionatu egin dutenak, baina beretzako laguna, laguna da betirako. Daukan goxotasuna gustatzen zait gehien.

**Bere lanaren ze ezaugarri azpimarratuko zenuke?**

Idazterakoan daukan fantasia hori. Esaterako, tximeleta horiak dioenean, zuk ikusi egiten dituzu hegan. Berak lortu egiten du bere testuari esker zuk tximeleta horiek hegan ikustea eta sinistea... hori da magikoa.

**Elkar ezagutu zenutenean, bere jarraitzaile zinen?**

Ez, ez; ez nik, ez inork ez zuen ezagutzen. 1956.urtean ezagutu genuen elkar. Berak esaten zuen moduan, orduan zoriontsua eta dokumentatu gabea zen. Maitasun historia hori adiskidetasun istorioa bilakatu zen; istorio motza baina intentsua. Bere biografian dator.

**Idazteko eran eboluzioa izan du Garcia Marquezek?**

Bai, bai, zalantza barik, bere lanak eboluzioa izan du. *El otoño del patriarca* (1975) lanak, esaterako, ez dauka zer ikusirik lehenengo lanarekin. Jendearen harridurarako, zailtasun handikoa, baina prosan idatzitako poema zoragarria da eta ez da hasierakoen jarraipen soil bat, gehiago baizik. Jendea horrek harritu eta txunditu duela uste dut, hain zuzen ere: bere lanaren eboluzio horrek.

**Lan bat azpimarratzekotan, zein nabarmenduko zenuke?**

Niretako balio duena obra osoa da, bere osotasunean. *El amor en los tiempos del cólera* (1985 ) eleberria itzela dela uste dut, ikaragarria! Askok diote *El coronel no tiene quien le escriba* lana dela borobilenetariko bat. Ni bere lan osoarekin gelditzen naiz, baita bere azken lanarekin ere –*Memoria de mis putas tristes* (2004)–, nahiz eta kritika zorrotzak jaso dituen.

**Poesia errezitatzen duzu.**

Ni poesiaren militantea naiz. Gogotsu nago poesia errezitatzeko. Orain Zelaiaren errezitaldiekin nabil. Herri guztietatik pasa nahiko nuke poesia errezitatuz.

**"*El coronel no tiene quien le escriba* lanagatik, *coronela* deitzen didate"**

**"Adiskidetasunari sekulako garrantzia ematen dio Garcia Marquezek"**

**"Poesiaren militantea naiz. Gogotsu egiten ditut errezitaldiak"**

# Parte-hartze handia izan du Aste Zapatistaren azken jaiak

Ehun lagunetik gora elkartu ziren zapatuko herri bazkarian Eskoriatzan

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Balorazio "oso positiboa" egin dute Zapatisten aldeko jaiaren antolatzaileek. Aste guztian egin dituzte ekitaldiak, eta zapatuan bazkariarekin eta jaiarekin borobildu zuten astea.

Goizean zehar, jokoak izan zituzten plazan; gainera, Juanma Tatu tatuaje egilea ere han izan zen maien tatuajeak egiten.

**100 lagun bazkaritan**

Bazkaritarako 84 lagunek eman zuten izena eta, horiei antolatzaileak eta laguntzaileak gehituta, 100 lagun inguru egon ziren herri bazkarian. Janari mexikarra izan zuten bazkaltzeko.

Ondoren, Rosa Sanchez abeslariak emanaldia eskaini zuen. Lehenengo, mahaian bertan hasi zen abesten baina, han bildutakoek eskatuta, oholtza gainera igo zen ondoren. "Ahots izugarria du", esan du jaialdiko antolatzaile Jurrek. Hala, hara joandakoek Costa Ricako abeslariaren ahotsarekin gozatu zuten. Senegaleko Pascal perkusio jolea ere izan zen Eskoriatzan; emanaldi motza egin zuen, baina emozioz betea. Bestalde, alanbike erakustaldia ere egin zuten Eskoriatzako plazan. Iluntzean, berriz, kontzertuak izan zituzten jaia girotzeko.



Gaueko kontzertuak girotzen aritu ziren irudiko lagunak. | JULIO CALLEJA


Alanbike erakustaldia ere egin zuten plazan bertan. | JULIO CALLEJA

**Udalari eskerrak eman dizkiote**

Atzo, domeka, amaitu zuten Aste Zapatista. Rosa Sanchezek *Desde Costa Rica con amor* musika emanaldia eskaini zuen nagusien egoitzan. Gainera, Egiptoko dantzen ikuskizuna ere izan zuten.

Aste Zapatista antolatzen ibili direnek eskerrak eman gura dizkiete laguntzaileei, batez ere, Udalari. Herritarren artean harrera ona izan duen ekimena izan dela esan dute; horren harira, hitzaldietan batutako jende kopurua nabarmendu gura izan dute: egubakoitzean, esaterako, 21 lagun elkartu zirela diote. "Oso pozik" daudela eta "ekimen positiboa" izan dela nabarmendu dute Eskoriatzako lagunek.

## Karmele Igartuaren poemen errezitaldia egingo dute barikuan

Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* liburua aurkezteko dute egubakoitzean, Aretxabaletako Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan. Hala, Itziar Gomezek *Itsaso kontra bat* poema liburua irakurriko du Aitor Furundarena eta Iñaki Telleria musikarien laguntzarekin. Izaskun Etxeberriak, berriz, Igartuaren irudiak jarriko ditu, Gomezek haren poemak irakurtzen dituen bitartean. Tere Irastortza idazlearen liburu bat ere irakurriko dute ekitaldian.

## Homosexualitatearen gaineko poesia irakurtaldia eguenean

*Desira desordenatuak* liburuan, homosexualitatea da ardatza. Besteak beste, Ibon Egaña eta Mikel Ayerbe idazleen lanak topatuko ditugu bertan. Sexualitatea jorratzen duten hainbat zati batzen ditu liburuak. Eleberriak, homosexualitatea oso modu naturalean lantzen du, gai honen gaineko "zarata" baztertuz. Eguenean Arrasateko Kulturaten egingo duten poesia irakurtaldian, liburuan parte hartu duten zenbait idazle ere izango dira. 19:00etan hasiko da errezitaldia.



# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

GAS



Gas talde oñatiarra, entsegu lokalean ateratako argazkian. | GAS

# "Gure jarraitzaileak finkoak dira; haiek motibatzen gaituzte zuzenekoetan"

- Grabazio lanak eginda, lehen lana kaleratzear dute oñatiarrek
- Erritmo aldaketak eta doinu ezberdinak dituzte oinarri

MAIDER ARREGI | OÑATI

Riff gogor eta punteatze zorrotzen doinu gordinak melodia goxoekin batu ditu Gas talde oñatiarrak. Aldarrikapen mezuz betetako lehen maketa aurkeztu digu laukoteak.

**Rocketik metalera egin duzue salto.**
Hasieran rock-and-rolla egiten genuen. Baina heavy metal doinuek harrapatuta, estilo horretan murgiltzea erabaki genuen. Zailena bateria-jotzailea topatzea izan zen. Baina 2008an gure taldea, proiektua osatu genuen. Erockaldeko lokaletan errotuta, tokia hartu eta hasi egin ginen.

**Sei abesti oso ezberdinak.**
Heavy metal oso azkarra topatuko duzue. Abestiak ez dira oso luzeak, nahiz eta gure minutuak izan. Eta, nola ez, heavy metaleko akustikoko uneak ere jasotzen ditu gure maketak. Oñatin, gaur egun, heavy metala gutxi entzuten da eta jendeak gure musika gustura jasotzen duela uste dugu. Asfikzia eta Black River ere hor daude, baina ez daukagu antz handirik.

> "Musika asko entzuten dugu eta hori igarri egiten da "

**Oñati heavy metalaren gotorleku izan da. Horrek eragina izan du zuengan, ala?**
Guk Latzen eta Su Ta Gar asko entzun ditugu. Baliteke horien eragina nabaritzea. Baina heavy metala egiten duten musikariak oso teknikoak dira; gure musika oraindik ez da horren perfektua. Dena den, jarraitzaileak baditugu eta horrek motibatu egiten gaitu zuzenekoetan. Gure zaleak sutsuak eta finkoak dira [Barre].

**Gordintasuna melodia goxoekin eta erritmo aldaketa bortitzekin uztartu duzue.**
Alde melodikoa badago, baina, esan duzun moduan, erritmo aldaketak ere badira. Ez dugu heavy metala bere osotasunean egiten. Musika asko entzuten dugu eta influentziak igartzen dira gero musika egiten dugunean. Bateria-jotzaileak, esaterako, tinbalen doinuekin eta abiadurarekin jokatzen du. Stoner ukitua ere badaukagula esan dezakegu. Izan ere, abesti bat konposatzen dugunean, gitarren erritmo aldaketa horiek nabaritzen dira.

***Komunikabideen barnean inkomunikazioa, beldurra sartzea da zuen bizibidea,* diozue...**
*Hitza ukatuz... demokrazia eraiki* kantuan, salatu nahi duguna da Espainiako Estatuak abiatu duen adierazpen askatasunaren kontrako programa hori. Ahotsak isilarazi nahi dituzte eta horren aurka egiten dugu.

**Aldarrikapen mezuak dira nagusi zuen letretan.**
Bai, halaxe da, gure kantuak aldarrikapen mezuak dira. Euskal Rock Erradikalaren barruan sartuko ginen. Letra zuzenak dira, metafora alde batera utzita; horretan ez daukagu heavy metaleko letrekin zerikusi handirik.

**Mandolinaren doinua ere erabili duzue.**
Akustikoan mandolina erabili dugu ukitu italiarra emateko. Bestelako abesti bat egin nahi genuen, zerbait berezia egiteko asmoz egin genuen. Gustatu zitzaigun nola geratu zen *Matxinadak* abestia, eta horrela utzi dugu.

**Eta punteatze azkar eta zorrotzak aurreko mandolinaren doinu horiekin guztiz apurtzeko.**
Abesti heavyetatik, abiadura eta indar handiko kantuetara salto egiten dugu diskoan. Ezberdinak diren kantuak topatuko dituzue diskoan.

**Noizko lehen lana?**
Materiala Mutrikuko estudioan, Nahixan taldeko Axularren eta Potemkin taldeko Iban Idigorasen laguntzarekin grabatu genuen iaz, udan. Orain, azken ukituak eta diseinua egin eta kaleratzea falta zaigu!

GOMENDIOA

## Jaiotze basatia

**Taldea:** Su Ta Gar. **Diskoa:** 'Jaiotze Basatia' (Zarata, 1991).

"Su Ta Garren *Jaiotze basatia* abestia. Instrumentala da, letra bakoa. Instrumentalek badute zerbait gainontzekoek ez dutena. Beste indar bat, beste kutsu bat dauka abestiak. Gitarrak akustikoarekin sekulako indarra, potentzia dauka. Bateriaren abiadura eta erritmoa ikaragarria da. *Jaiotze basatia* lehenengo diskoan aurkituko duzue. Rock-and-rolletik hevyrako saltoa emateko bultzadatxoa izan zela esan dezakegu".

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 m2 eraikiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-64 67 38.

**Arrasate.** Zigarrolan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Hiru terraza. Oso eguzkitsua eta dena kanpoaldera begira. Jantzita utziko genuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687-11 08 92.

**Arrasate.** Erdigunean, Seber Altuben. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru ligela, bi komun, sukaldea, jangela-egongela, trastelekua eta igogailua. Azken solairua. Komunitateko terrazarekin. Garajerik ez. 270.455 euro. Deitu 9:00etatik 13:00etara bitartean. Kristina. 635-75 50 36 /943-79 24 59.

**Bergara.** Atiko duplexa, 140 metrokoa, salgai San Lorentzo, Madinan. 6. solairuan. 18 metro koadroko terraza egongelan eta 4 metrokoa sukaldean. Beheko sua egongelan. Sukaldea guztiz hornitua. Bi logela eta bi komun. Loft moduko 44 metroko duplexa. 665 71 48 30

**Bergara.** San Antonen etxebizitza salgai. 65 m2. Hiru logela, sukalde hornitua, komuna, balkoia, hall-a, miradorea. Bi aparkaleku eta trastelekua terrazarekin. Urbanizazio pribatuan. 138.200 euro. Deitu 629-45 58 51 zenbakira .

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

**Durango.** Etxea salgai Durangon, hiru urte ditu. Bi logela, bi bainugela, saloia, sukaldea eta 90m2-ko terraza handia. Etxearekin batera, 28m2-ko garajea saltzen da. 637-41 64 38.

**Durango.** 62m2, 3logela, sukaldea, egongela, komuna eta despensa. Berriztua eta jantzita, oso eguzkitsua bizitzen sartzeko prest. 699-40 99 59.

**Durango.** Aukera. Pisua saltzen da sasikoa kalean. 70m2, 3 logela. Balkoia. Igogailuarekin. 629-41 43 63.

**Elgeta.** Etxebizitza 80 m2, salgai: hiru gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Prezio interesgarria. 658-75 84 58.

**Elgoibar.** Obra egin beharra dauka. Posibilitate haundiak. Harremanetan ipintzeko 606 -93 33 02.

**Etxarri-aranatz.** Pisua salgai Etxarri-aranatzen. 84 m2, 3 logela eta berriztatua (berogailuak, leihoak...) salmentaren prezioa 108.000 euro. Hots egin 654-23 41 02 telefonora.

**Itsasondo.** Itsasondon etxebizitza lursailarekin salgai. 92 m2ko etxebizitza eta 111mko lursaila. 3 logela, 2 komun, sukalde hornitua, egongela, tendedero, 2 balkoi, eta ganbara. Toki lasai eta argitsua. 41.000.000 pta. Deitua: 615 -70 56 10 / 653-74 94 66.

**Oñati.** Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekua, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. 647-24 80 02.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-79 88 12.

**Oñati.** 68 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela, komuna, sukalde guztiz hornitua eta egongela handia. 258.000 euro. Erdigunean. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 35 metro koadroko garajea aukeran. 659 -72 06 64.

**Peñiskola.** Bungalow-a saldu edo errentan ematen da Peñismar II auzoan. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 89 47 75

**Zornotza.** Etxebizitza salgai euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea!. Tel.: 695-70 18 58.

### 102. EROSI

**Durango.** Baserria erosiko nuke Durangaldean, lursail apur batekin. Ez du inporta zein egoeran dagoen (erreformatu behar bada, etab). Prezioa 250.000 euro (negoziagarri). Deitu 618 -93 62 14 telefonora.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Pisu bat alokagai muntsaratzen. Nahi izanez gero, garaje partzela eta ganbara aukeran. 660-64 62 92 /680 -58 15 07.

**Ainsa (Huesca).** 50 m2-ko atikoa alokatzen da Huescako Ainsa herrian. Kanpora begira. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz hornitua. Garajea eta trastelekua. Telefonoa: 630-67 48 64.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da, Udala enparantzaren inguruan (unibertsitatetik 200 metrora). Hiru logela, bainu bi, egongela. Jantzita. Deitu 669 70 85 88 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela. Jantzia. Interesatuok deitu 629 79 97 30 edo 671 14 99 63 telefono zenbakietara.

**Eskoriatza.** Baserria ematen da errentan. Berriztua.Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean.693 80 40 47

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 96 01 21

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Olakua auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ikasleendako egokia. 627 34 96 03

**Oñati.** Olakua 1.A-n, lau logeletako etxebizitza ematen da errentan. Jantzia.619 18 07 44 edo 943 78 01 67

**Oropesa del mar(Castello).** Marina Dorren 4-6 pertsonentzako apartamentu berria alokagai. Udan eta urte osoan zehar. Aste bat, hamabostaldia edo hilabete baterako. Itsasora begira, hondartzatik 150 metrotara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia. Garajea. Igerileku handia eta umeentzako txintxaunak. Leku lasaia. Ez dira animaliak onartzen. 670 -21 49 24. Marijo.

**Peñiskola.** Apartamentua ematen da errentan. Igelrilekua, aparkalekua, igogailua eta guztiz hornitua. 2-5 pertsonarendako modukoa. Urbanizazio pribatuan, ondartza eta itsas pasealekutik 50 metrora.670 66 64 13

**Peñiskola.** Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Beheko solairuan, lorategiarekin eta txirristadun igerilekuarekin. Uztailerako. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00 .

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **5. IRAKASKUNTZA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, berritua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri. Aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
- Osintxu. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Burdiñate 53 m². 162.273 €.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761€.
- Aranerreka 80 m². 189.319€.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000€.
- Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909€.
- Zubieta 55 m². Berritua. 150.000€.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 €tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Elgetan edo Bergaran** etxebizitza adaptatua errentan hartuko nuke. Gurpildun aulkia ibiltzeko moduan. Igogailuarekin eta komunean dutxarekin. 677 17 77 77 edo 627 89 55 41

**Errentan hartu.** Bergaran, etxebizitza hartu nahiko nuke errentan. 2 edo 3 logelakoa eta kontratuarekin. Presazkoa. 697 62 59 57,

**Oñati.** Hutsik dagoen etxea (altzaririk gabea) errentan hartu nahi da Oñatin. Ahalik eta azkarren. 637 00 10 80

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, pertsona bakarrarentzat. Kontratuarekin bada, hobeto. 622-53 51 25.

**Arrasate.** Uriburu kalean, unibertsitatetik gertu, pertsona bat behar da beste birekin batera etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara:.699 49 87 89

**Aretxabaleta.** Neska ikasle batentzat logela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639-21 60 95.

**Bergara.** Pertsona bat behar da Bergarako Bolu auzoan etxebizitza osatzeko. Interneta dago. 670-85 86 68.

**Bergara.** Bergara edo inguruan, logela bat ahartu nahi nuke errentan. Kontratuarekin. 697 -62 59 57

**Durango.** Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo Iurretan. Deitu lasai: 658-42 86 12. Malick.

**Erasmus ikasleentzat gelak.** Erasmus ikasleentzat gelak behar dira Arrasaten, irailaren hasieratik gabonak arte.943 71 41 57 206 .

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Aranerrekan. Tarteko solairurekin. 629-79 97 30 / 671-14 99 63.

**Durango.** 8 m2-ko trastelekua salgai Madalenan. Sarleku onak. Tel.: 629-41 54 16.

**Durango.** Lehenengo solairuan kokatua dagoen garaje itxia salgai Madalenan. 629-41 43 63.

**Elorrio.** Garaje itxia salgai Elorrioko erdialdean. 660-45 87 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 28 metro koadroko garaje itxia ematen dut errentan Uriburu kalean. 610 33 67 04

**Arrasate.** Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Uarkapen. 615 73 98 30 edo 943 24 53 57

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da goizez umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia 8:00etatik 14:00etara.Deitu 695 70 35 25 telefonora.

**ARRASATE**

Bezero arretarako pertsona behar da. Arratsaldez lan egiteko. Ofimatika beharrezkoa. 682618968 cvgoierri@facilnet.es

**Gernika-Lumo.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-92 75 98.

**Durango.** Pertsona euskalduna behar da ume bi zaindu, ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. 649-21 93 91.

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko. 669-36 17 82.

**Aretxabaleta.** Esperientziadun emakumea adinekoak zaintzeko gertu; egunez zein gauez. 943 -53 33 92.

**Aretxabaleta.** Neska gazte euskalduna udako hilabeteetan (ekaina eta uztaila) haurrak zaintzeko gertu. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 696-44 43 99

**Aretxabaleta.** Ikasleeuskalduna gertu hainbat lan egiteko: umeak zaindu, nagusiekin paseatu, etxeko garbiketak eta lanak egin. 617-91 17 06.

**Arrasate.** Arrasate edo Aretxabaletan. Emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. 685-21 24 89 / 662-57 53 46.

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egin, atariak garbitu edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. 659-55 27 16.

**Arrasate.** Erizaina gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko gauetan. Ospitalean edo etxean. 639-97 02 86.

**Arrasate.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Neska gertu ile-apaintzaile laguntzaile jarduteko edo garbiketa lanetarako. 685-21 24 89 / 662-57 53 46.

**Arrasate.** Garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Maite. 696-88 93 73.

**Arrasate.** Garbiketa lanetan jardungo nuke, orduka. Maite. 696-88 93 73.

**Arrasate.** Arrasate edo Aretxabaleta. Neska euskalduna, tabernan lan egiteko prest. 637 -85 88 27.

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. 618-41 24 79.

**Bergara.** Zerbitzaria. Esperientziadun neska, Bergarako festetan zerbitzari bezala lan egiteko prest. Harremanetarako: 615-72 72 86.

**Bergara.** Etxeko lanak egin edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Eskarmentuduna. 665-75 41 32.

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna gertu etxeak garbitu edo adinekoak zaintzeko. Deitu 650 -17 74 87/ 943-76 48 26 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Neska bergararra gertu astelehenetik ostiralera nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 943-53 28 60.

**Bergara.** Neska gertu nagusiak zaintzeko astelehenetik egubakoitzera. Eskarmentuduna. 637-18 07 23.

**Debagoiena.** Tabernetan lan egingo nuke sukaldari edo laguntzaile bezala. Baita orduka ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan ere. Deitu 619 -92 40 86 teleofnora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu ume zein nagusiak zaidu edo garbiketa lanetarako.Deitu 681-27 99 54 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 606 -40 99 37.

**Debagoiena.** Neska gertu ume, edadetu zein gaixoak zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-77 10 99 / 617 -66 70 05.

**Debagoiena.** Umeak zaintzeko prest. 20 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 680-17 33 61.

**Debagoiena.** Eskarmentudun emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-78 85 27.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko goiz eta arratsaldez. Esperientzia daukat umeak zaintzen eta gizarte lana ikasi dut. Garbiketa lanetarako prest. Kotxea ere badaukat. 688-64 19 25.

**Debagoiena.** Debagoiena. 48 urteko emakumea gertu garbitasun lanetan edo edadetuak zaitzen jarduteko, orduka. Autoa daukat eta baserrietara ere joateko prest nengoke. 653-72 30 95.

**Debagoiena .** Neska gertu etxean bertan bizi izaten adinekoak zaintzeko edo bestela, orduka, garbiketa lanak egiteko. Baita atariak garbitzen edo egoitzatan jarduteko ere. 682 -31 97 37.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak gauez zaintzeko, edo etxean bertan bizi izaten. Egunez ere lan egingo nuke. 674-93 20 47.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Elba. 689-35 90 41.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara. Finkora arratsaldez edo gauez deitu, mesedez. 943-71 53 74 /695-73 87 95.

**Debagoiena.** Gizona gertu edozain lan egiteko. 654-24 13 27.

**Debagoiena.** Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa zein etxeko lana egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 633-46 49 50.

**Debagoiena.** Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Deitu zenbaki honetara: 628-51 22 78.

**Debagoiena.** Erropa konponketak egiten ditut: barrenak hartu, alkondarak, soinekoak, bakeroak eta abar. 699-34 86 88.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko gertu: edadetuak zaindu, etxea garbitu. 610-99 70 46.

**Debagoiena.** Laguntzaile titulua duen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Garbiketa lanetan jarduteko ere prest egongo nintzateke. 943-79 11 14 / 652-76 65 06.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. 681 -27 99 54.

**Durangaldea.** Erreferentziadun mutil eta/edo neska pertsona nagusiak zaintzeko prest gaude. Lanaldi osoa, orduka,- gauez.. Etab. Etxeetean edo hospitaletan. 690-28 60 71.

**Durango.** 41 urteko gizonezko euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizeko 07:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte.

**Elorrio.** Irakasle-ikasketak egiten diharduen ikasle euskalduna ekainean eta uztailean lan egiteko prest: umeak zaintzen, klase partikularrak ematen edo dendari moduan. 685-71 46 27.

**Garraioak.** Edozelako garraio lanak egingo nituzke. Furgoneta daukat. Deitu zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Lan egiteko prest.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko goiz eta arratsaldez. Esperientzia daukat umeak zaintzen eta gizarte lana ikasi dut. Garbiketa lanetarako prest. Kotxea ere badaukat. 688 64 19 25

**Umeak zaintzeko** prest 20 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 680 17 33 61

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. 658-73 08 08.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** 4. DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Orain hasi eta uztailean zehar ere bai. 21:00etatik aurrera deitu mesedez. 943-76 03 75.

**Bergara.** 11 urteko bati euskara eskola partikularrak emateko norbait behar da. Alicia. 692-51 79 21.

**Durango.** Frantses irakaslea behar da 2011-2012 ikasturterako. Interesatuek deitu 637-41 64 38 telefonora.

**Elgeta.** Elgeta. Batxilergoko bigarren mailako matematika eta ingeleseko klaseak emango dizkidan norbait behar dut. 617 -24 82 28.

### 502. EMAN

**Antzuola.** Ekainean eta uztailean klase partikularrak emateko prest egongo nintzateke. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik, 6. mailara arte. 669-36 17 82.

**Aretxabaleta.** Neska gazte euskalduna udako hilabeteetan (ekaina eta uztaila) haurrak zaintzeko gertu. interesatuak deitu zenbaki honetara: 696 44 43 99

**Aretxabaletan udan** Klase partikularrak emateko eta etxekolanak egiten laguntzeko prest. 2.batxilergorarteko klaseak ematen ditut udan eta urten zehar jarraitzeko aukerarekin. 653 01 76 67

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut udan zehar. Maila guztiak. 688-64 12 56.

**Arrasate.** Arrasateko irakaslea eskola partikularrak udan emateko prest, 6-12 urte bitarteko umeak. Esperientzia handikoa. 635-75 05 26.

**Arrasate.** Goi-mailako telekomunikaziotakoingenieritzako ikaslea, Arrasaten DBH-ko eta Batxilergoko eskola partikularrak emateko prest. Deitu 618-02 52 81 telefonora.

**Bergara.** Eskola partikularrak emateko gertu nago. DBH eta Batxilergoa. 628-51 22 78.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen dira. 695 05 02 20

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrek emango nituzke. Uztailean ikastaro trinkoak. 618 91 32 89

**Bergara.** Ekainetik aurrera eta ikasturtean zehar ere arratsaldez, eskola partikularrak ematen dira. LH-tik hasita batxilergora arte. Esperientziaduna. Harremanetarako: 685 701 709

**Debagoiena.** Ingelesa. Eskola partikularrak ematen ditut. Ordutegi malgua. Esperientzia handia daukat. Taldeka nahiz banaka. 15 euroan ordua. Banaka. Eskoriatza, Arrasate edo inguruak. Alemaniera ere eskeintzen da. Deitu konpromezurik gabe. 635-12 87 82 / 943-25 05 79.

**Debagoiena.** Batxilergoko bi mailetako filosofia, gaztelera, euskara eta historiako eskola partikularrak ematen ditut. 618 12 86 48

**Debagoiena.** Matematika eta fisika eskola partikularrak emango nituzke. 696-38 10 07/943 -25 05 01.

**Debagoiena.** Informatika eskolak ematen dira: programazioa, weborriak eta blogak. Ordenagailuen konponketa ere bai. 679-74 00 61.

**Debagoiena.** Eskola partikularrak ematen ditut udan. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo arte. Esperientziaduna naiz. Deitu: 671-41 22 17.

**Durangaldea.** Alemanierazko klaseak ematen dira haur, gazte eta helduentzat. 670-79 33 12.

**Donostia.** Klase partikularrak Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628-04 15 26.

**Eskola partikularrak.** Eskola partikularrak ematen ditut udan. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo arte. Esperientziaduna naiz. Deitu: 671 41 22 17,

**Eskola partikularrak** Oñatin. Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan, maila guztietan. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 21 73 48

**Klase partikularra** ematen ditut Goi mailako arkitektoa, udan klase partikularrak emateko prest. Edozein maila eta ikasgai. Deitu 661 09 35 00, 943 78 31 62 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Irakaslea eta psikologoa naiz eta eskola partikularrak emango nituzke udan, maila guztietan. Esperientzia handia daukat. 666-21 73 48.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** Hymer perfilada autokarabana salgai. 4 plaza. Motorea 2800jtd. Oso ondo zaindua. Extra guztiak ditu: tvc, antena parabolikoa, biziklertak eramatekoa, moskiterak, dutxa,... Beti garajean egon da. Tel.: 637-80 88 01. (Pilar)

**Mercedes Viano Marco Polo.** Mercedes Viano Marco Polo 2.2CDI 15 zp 2005 86.000 km. Westfalia. Alarma. 4 plaza. Extrak. Oso ondo zainduta, garagean. 656-76 06 03.

**Mercedes Vito.** Mercetes Vito furgoneta saltzen dut. Ohearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680-85 18 98.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-77 29 94.

**Basurdeak salgai.** Interesatuok deitu 678-72 75 72 telefono zenbakira.

**Border collie arrazako txakurkumeak salgai.** Gurasoak abereekin lanean heziak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652-76 18 09. (Iban).

### 703. EMAN

**Txakurra** ematen da opari. Tamaina erdikoa. Laguntako eskaintzeko egokia. Debagoienean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 72 82 87

### 704. BESTELAKOAK

**Basurde ar bila.** Basurde arrak erosten dira. 90 kilo baino gehigokoak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678-72 75 72.

**Katakumeak opari.** Bi katakume eme oparitzeko. Hiru kolorekoak dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-70 91 18.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Akazia taketak saltzen dira.** Akazia taketak saltzen dira neurri guztietan. Eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619-08 82 33.

**Arrasateko gimnasio baterako bi urteko bonoa salgai.** 398 euro. 653-72 22 54.

**Argazki kamera** digitala eta osagarriak. PENTAX IST*DL argazki kamera salgai. Osagarriak (18-55mm f3.5-5.6 objektiboa UV filtroarekin, jarraibide eskuliburua, USB eta AV kableak eta garraiorako poltsa). Ekipo osoa 200 euro. Tripodea ematen da opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 730 486

**Argazki makina** karreteduna salgai. Yashica etxekoa. Egoera onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 55 10 57

**Babycook-a.** Oso egoera onean dagoen Babycook-a salgai. Arroza egiteko osagarria eta galdara garbitzeko likidoa ere bai. Babycook-ak baporeaz prestatu, txikitu eta desizoztu egiten du janaria. Haurtxoaren elikadura osasuntsuagoa egiteko. Dana 70 eurogaitik. 606-21 37 18.

**Bizikleta tolesgarria salgai.** Folding 08 street. 2008koa. Erabili gabea.50 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-32 60 38.

**Egongelako altzariak salgai.** Egongelako altzariak salgai: hiru eta bi pertsonarendako sofa bana eta telebista jartzeko altzaria. Logela, armaitu, bi gau -mahai eta 1,35eko oheak osatua. Berriak dira. Prezio interesgarria. Debagoienean. 637-00 10 80.

**Ezinduendako motordun aulkia.** Ezindu fisikoentzako moto Scooter Invacare Solar/Leo aulkia, motor itxurakoa, salgai. Urtebete du. Oso egoera onean dago. 1,22 X 0,59 neurtzen du. 850 euroan. 630 38 91 22

**Idazteko makina elektrikoa.** Idazteko makina elektrikoa salgai. Egoera onean. Olivetti markakoa. Prezio ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-55 10 57.

**Jangelako jazarlekuak salgai.** Ikeako 4 Gilbert jazarleku dira (erref.: 201.127.18). Beltz kolorekoak dira eta muntatuta daude. Ia erabili gabe daude. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-74 26 44.

**Jangelako mahaia salgai.** Ikeako Bjursta mahaia da (erref.: 301.162.64), 4-8 pertsonek jan dezakete bertan. Beltz kolorekoa da eta muntatuta dago. Ia erabili gabe dago. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-74 26 44.

**Karabana salgai.** Bustner etxekoa. Oso ondo zainduta. Bi abanzerekin: negukoa eta udakoa. 4.500 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 98 37 05

**Mendi bizikleta.** Mendi bizikleta. Trek fuel ex6. 2007koa. Suspentsio bikoitza, berriak. Transmisio berriak. 800 euro. Debagoienean. 675-70 67 39.

**Mendi bizikleta salgai.** Bigarren eskuko mendi bizikleta, egoera onean, neskendako edo tamaina ertainekoa. Prezioa negoziatzeko moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-72 03 65.

**Mendiko bizikleta.** Orbea lanza mendi bizikleta paregabea salgai. Foc orkillarekin, diskodun frenoak, kalak... Oso bizikleta ona da eta ezin berriago dago. Merezi du ikusteak. Beste behar ekonomiko batzuk ditudalako eta 3 aldiz erabili dudalako daukat salgai. Deitu eta ikusi konpromisorik gabe. Aukera ezin hobea. Argazkiak bidaltzeko aukera ere badago. Mila esker. 657-55 46 46.

**Scooterrarentzat parabrisas pantalla.** Scooter motorrarentzat haizearentzako pantalla, bere torloju eta guzti. 50 euro. 686-89 77 32.

**Umeendako** kotxe kapotasalgai. Silver-cross modeloa. Urdina. Ia-ia berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 74 13 47.

**Zaldibar.** 13.500 m2-ko lursaila salgai Zaldibarren. Eguzkitsua. Sarbide ezin hobearekin. Ura eta argia lursailaren ondoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629-41 94 11.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta.** Ortua egiteko lursail txikia hartuko genuke Aretxabaletan edo gertu. Errentan, lagata edo erosita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-72 04 57.

**Bergara.** Lursaila erosiko nuke Bergara edo OÑatin. Errentan hartzeko ere aukera, baina nahiago dut erostea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669-17 09 51.

**Erleak ipintzeko lursaila.** Erosiko nuke partzela bat hektarea bat eta lau artekoa, erleak ipintzeko. Tokiak behar du kotxez igotzeko bidea eta ur apur bat erleentzat. Deitu iluntzean mesedez: 626 01 19 07

**Negutegirako ate bila.** 8,5 metro zabaleran duen negutegi baterako aten bila nabil, alboak estaltzeko. Ordaintzeko prest nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635-73 84 75.

### 805. TRUKATU

**Moduloa.** Banaresen kokatua, trukatuko nuke autokarabana bategatik. Denetarik dauka; etxe txiki bat da.Umeentzako toki aproposa. 657 79 06 86

### 806. GALDU

**Audifonoa Antzuolan.** Audifonoa galdu nuen Antzuolan maiatzaren 14an. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu telefono honetara. Mila esker aldez aurretik.619 43 48 53

**Betaurreko graduatuak.** galdu nituen Eskoriatzan, maiatzaren 22an (hauteskunde eguna) kultur etxean edo Azkoagaenea hotelean. Armazoi beltza dute eta kaxa urdina. Udaletxera eroan edo deitu 656 75 30 57 telefonora.

**Bi Pen-drive Etxarrin.** Bi Pen -drive edo USB memoria galdu dira Etxarri Aranazko parke inguruan, kartera txuri-urdin baten barruan. Telefonoa: 659-75 96 37.

**Eguzkitako betaurrekoak galdu.** Asteburuan eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Etxarri Aranatzen. Opatu dituenak Beleixe Irratian utz ditzala (Etxarri).

**Motxila desagertu da.** Aurreko asteko astelehenean Arrasateko Gaztelupen (Arizmendi), klase aldaketan, lauki berdedun motxila desagertu zen. Hartu duenak mesedez utz dezala idazkaritzan.653 41 13 06

**Ume betaurrekoak** galdu dira Bergarako San Martin ikastetxe inguruan. Arrosa kolorekoak dira. 653-74 36 32.

**Walkie-talkiea.** galdu nuen Urkulun parapentean jaisterakoan. Yaesu VX110 markakoa. .659 72 06 64

### 807. AURKITU

**Aretxabaletan Umeen erlojua aurkitu.** Maiatzaren 20 inguruan, Iralabarri plazan, umeen erloju gorri bat aurkitu genuen.615 79 20 66

**Giltzak.** Aretxabaletako Iralabarri plazako garajeen sarrera alboko edukiontzien inguruan giltzak aurkitu dituzte. Udaletxean galdetu.

**Nikon kamara baten objektiboa aurkitu Beriainen.** Asteburuan nikon argazki kamara baten objektiboa aurkitu dugu Beriainen. Galdu duenak dei dezala 948-46 73 08 telefonora.

**Txirrindulari betaurreko graduatuak aurkitu Irañetan.** Maiatzaren 15ean, IraÑeta aldean, txirrindulari betaurreko graduatuak zituen estutxea opatu zen. Faltan dituenak hots egin dezala 687-03 17 93 telefonora.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.
**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
**Iraeta.** Etxabe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.
**Getaria.** Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Langako plaza (Salbiden). 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Azkenportu. 57 m2tako 3 logelako etxea. Berrituta dago. Oso prezio onean. 46.000.000 Pezeta.
**Zarautz.** 4. pisua igogailurik gabe. 2 logela. Berritu beharra dago. 35.000.000 pezeta.
**Zarautz.** Vista Alegren. 3 logela eta 2 bainugela. Etxe handia, terrazarekin. Oso prezio onean. 47.000.000 pezeta.
**Zestoa.** Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

SALMENTAN
**EGIA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 29.990.000 pta.
**MARTUTENE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Aparkalekua. 28.990.000 pta.
**LEZO:** baserri-etxea. Solairu bakarra. 4 logela. Lur saila. 36.500.000 pta.
**AMARA**: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Sartzeko. 39.000.000 pta.
**AMARA:** Altua. 65 m2. 3 logela, sukaldea, bainugela. Berritzeko. 34.460.000 pta.
**AMARA:** Madrid hiribidea. Terraza. 2 logela, egongela, sukaldejangela, bainugela. 49.000.000 pta.
**AMARA:** dena kalera. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 61.600.000 pta.
**AMARA:** 85 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Dena kanpora. 51.700.000 pta.
**ANTIGUA:** Benta Berri. 90 m2. Altua. Terraza. Garajea, trastelekua. Polita.
**ANTIGUA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 47.990.000 pta.
**HERRERA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kalera. Berritua. 33.6000.000 pta.
**ERRENTERIA:** Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 25.900.000 pta.
**PASAI DONIBANE:** berritua. Bistak portura. 3 logela. balkoia. 34.500.000 pta.
**ASTIGARRAGA:** 60 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela.
**USURBIL:** 10 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Tximinia. Terrenoa. 43.500.000 pta.
**LASARTE:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Terraza. 30.990.000 pta.
IKASLEENTZAKO ALOKAIRUAK
**AMARA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 750 euro.
**AMARA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 700 euro.
**AMARA:** 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 1.100 euro.
**HERRERA:** etxe berria. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 800 euro.
ALOKAIRUAN
**AMARA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 800 euro.
**BIDEBIETA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 700 euro.
**GROS:** Iparragirre kalea. 2 logela, sukaldea, egongela handia, bainugela. 850 euro.
**USURBIL:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita. 690 euro.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

INMOKOSTA
INMOBILIARIA
SALDU
**ARROA BEHEA.** 3 gela, egongela, sukaldea, bainugela, balkoi handia. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Garaje itxia. **210.350 euro (35 milioi pezeta)**
**GETARIA.** SAHATSAGA. DUPLEX ZORAGARRIA. 3 GELA, jan-egongela handia, 2 bainugela, sukaldea, balkoia eta solariuma. Igerileku gune eta guzti.
**ORIO.** ERAIKUNTZA BERRIA. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, bainugela, komuna, dena kanpora begira eta eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
**ORIO.** Familia bakarreko etxe zoragarria. 3 solairu. 130m2 eta atikoa. Lorategia eta terrazak. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
**ZARAUTZ.** ZIGORDIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoia. **276.470 euro (46 milioi pezeta)**.
**ZARAUTZ.** VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldea, bainugela, saloia. **211.490 euro (48.5 milioi pezeta)**.
**ZARAUTZ.** IXPILLA. 2 gela, saloi-jantokia, sukalde hornitua, bainugela. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea.
**ZARAUTZ.** ARITZBATALDE. 2 gela, saloia, sukalde hornitua, 2 bainugela, balkoia. Trastelekua. Txukun-txukuna. Aitzakiarik gabea. **414.700 euro (69 milioi pezeta)**
**ZARAUTZ.** ERDIALDEAN. 85m2. 2 logela, egongela ederra, sukalde hornitua, despentsa, bainua. Igogailua.
**ZARAUTZ.** MENDILAUTA. 3 logela, egongela bista ederrekin, sukalde hornitua, 2 bainu, balkoia, garajea. Aurretiko bistak.
**ZARAUTZ.** Etxe bat alokatu nahi dut udan.
943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 - behea • 20800 Zarautz




Steve Jobs joan den asteleheneko aurkezpenean. | MACMAGAZINE.COM

# Bizitza digitala "lainora" igo eta ordenagailuari agur esan dio Applek

## Sistema eragile berriak eta 'iCloud' zerbitzu berria aurkeztu dituzte

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

*Post-PC* garaia terminoa teknologia berrien hiztegian txertatu dute dagoeneko Applekoek eta aurreko astelehenean egin zuten aurkezpean motibo gehiago eman zituen Steve Jobseko teknologiaren garai berri bati buruz hitz egiteko. "Bizitza digitalaren erdigunean lainoa" egongo dela iragarri zuen sagartxoaren buruak, etxeko mahaigainekoan barik, artxiboak (musika, argazkiak, aplikazioak...) euren *iCloud*ean gura dituzte eta gailu eramangarri zein ordenagailuetatik, betirere Interneterako konexioa tarteko, edonon eta edonoiz eskuragarri izan. "Urte hauetan guztietan PCa bizitza digitalaren ardatz bezala erabili dugu eta bertara konektatu ditugu kamera eta osagarriak", horrela azaldu zuen Jobsek kongresuan, "bada, eredu horrek ez dauka zentzurik egun, etengabe gailuak sinkronizatzen egon beharra baitakar". PCa ala Mac-a, beste gailuen parera ikusi gura du Jobsek, datuak lainoan, *iCloud*ean egongo dira, eta hara konektatuko dira gailu guztiak, uneoroko sarbide eta eguneratzearekin. Asteleheneko aurkezpenean zehaztu zuetenez zerbitzu berria doakoa izango da baina ez du publizitaterik txertatuko. Erabiltzaileari 5 GB emango dizkiote biltegiratzetarako, dokumentu eta argazkiak gordetzeko eta baita ere e-posta helbide bat. Hala, adibidez, iPhonean bideo bat grabatuz gero berehala egongo da eskuragarri eta ikusteko muduan iPadean edo etxeko mahagaineko Mac-ean. *iTunes Store*aren bidez erositako liburu eta aplikazioak ere sinkronizatuta egongo dira eta eskuragarri; konexioetarako muga 10 gailukoa da.

**Musika streamingean**

*iTunes*ekin duen lotura da i*Cloud*ak ekarriko duen ezaugarri interesgarrienetako bat, denda birtualean erositako abestiak zuzenean eta doan egongo baitira eskuragarri lainoan. Gure liburutegiko gainontzeko abestiei dagokioez, CDetatik digitalizatutakoak, adibidez, horiek *iTunes*en katalogoan aurkitzen badira eskuragarri ere izango ditu erabiltzaileak eta aurkitzen ez direnak urteko 17 bat euroko tarifa batekin igo ahalko ditu lainora. Honela streaming musika zerbitzua eskainiko du udazkenean Applek. Amazon eta Googlek antzerako zerbitzua eskaintzen dute dagoeneko baina bi kasuetan erabiltzaileak berak igo behar ditu abestiak lainora eta Applek *iTunes*en musika datu-base eskergari esker lan hori aurreztuko dio erabiltzaileari.

Gainontzeko nobedadeen artean Lion sistema eragile berria ere aurkeztu zuten eta udazkenean doan deskargatzeko egongo den iOS berria, iPhone, iPad eta iPod Touchetarako. Interfazeko berrikuntzak, WiFi bidezko eguneratzea edota twitterrekin integrazioa ekarriko du eguneraketak.

## Sakelakorako aplikazioak aztergai 'Nonick'-en egubakoitzetik aurrera

**J.B.** | ARRASATE

Mundu mailan interneteko joeren jarraipena egiteko hitzaldi sortaren beste edizio bati ekingo diote datorren egubakoitz eta zapatuan. *Nonick* jardunaldia Bilbon EITBren egoitza nagusian egingo dute *Eitb.com*-ek eta Jaurlaritzak antolatuta eta asmoa da alorreko 400 aditu baino gehiago elkartzea. Guztira, 7 aurkezpen egingo dira, bi mahainguru eta baita tailerrak ere.

**Teknologia eta hiritarrak**

Mahainguruetako baten Afrika iparraldeko eta Asia hurbileko gatazkak azterkuko dituzte Al-Jazeerako kazetari batekin eta teknologiari dagokionez, sakelakoetarako aplikazioak landuko dituzte beste mahainguruan. Hitzaldien artean Mozillako fundatzileetako batek egingo du berba, Tristan Nitotek eta *Shazam* aplikazio ezagunaren sortzaileak ere izango dira jardunaldietan. 1 Formulako aplikazioak edota Obamaren kanpainan erabili zena ere aztertuko dituzte. Egubakoitzean hasi eta zapatura arte izango dira hitzaldi eta mahainguru guztiak. *Startup 2.0* izeneko lehiaketa ere egingo dute.



Parte-hartzaileetako batzuk, aurkezpenean. | CYBEREUSKADI

## Arazoei aurre egin ezinik dabiltza Skypen

### Zerbitzuak etenak izan ditu azken astean berriz

**J.B.** | ARRASATE

Skype aplikazioarekin arazoak gainetik kendu ezinean dabiltza azkenaldian. Aurreko astean konektatzeko arazoak ematen zituen tarteka eta azken egunetan ere erabiltzaile askok ezin izan du dei-zerbitzua erabili.

Konpainiatik bertatik diotenez konfigurazio arazo "arin" batek eragin du etena baina arazoa zein den jakin arren oraindik irtenbide osorik ez diote eman nahiz eta egoera "hobetzen" dabilela esan duten arduradunek ohar baten bitartez.

Egonkortasun arazo asko izan dituzte azken hilabeteetan Skypen eta Microsoftek erosi ostean ere ez du ematen hobekuntza nabarmenik lortu dutenik.

**Microsoft**

Erabiltzaile askok Gatesen enpresari leporatu badiote ere, aurretik datozen arazoak dira, bertsio zaharretakoak, hainbeste buruhauste eragiten dabiltzanak. Iaz ere zerbitzuak eten luzea izan zuen bertsio zahar eta berrien artean egokitze arazoak egon zirelako.

## Netflix 2012an hasiko da zerbitzua ematen Europan

"Film eta telesailen Spotify" delakoak Estatu Batuetako arrakasta Europara ekarri gura du eta asmoa da datorren urtearen hasieran ekitea. Streaming banaketaren liderra da gaur egun Netflix eta negozio eredu errentagarria dela frogatu du Estatu Batuetan. Udazkenean Canada eta Hego Amerikan hasiko dira zerbitzua eskaintzen eta Europara beranduago iritsiko da egile-eskubideen auziak Europarako eredua egokitu beharra ekarriko duelako. 23 milioi harpidedun dauzka zerbitzuak gaur egun Estatu Batuetan eta Interneteko trafiko osoaren %20 dauka dagoeneko.

## Deskarga ilegalak salatzeko 400.000 abisu Frantziak

*Hadopi* legea aplikatuz Frantziako agintariek dagoeneko 400.000 jakinarazpen bidali dizkiete erabiltzaileei. Hiru abisurekin epailearen aurrean erantzun beharko dute salatuek baina halako kasurik ez da egon oraindik.

## Enpresa nafar batek garatuko du 3D grabaketa iPhonean

Bost kidek osatzen duten Engineea enpresa arduratuko da 3D grabaketa iPhonean garatzeaz. Applera prototipo batzuk bidali eta Cupertinoko enpresak onespena eman du. Diotenez lan teknologikoa osoa aurreratuta daukate.

## Blackberryren Playbook tableta salgai hilaren 13an

Tableten sektorean iPadari aurrea hartzeko asmoarekin aurkeztu dute tableta. Flash eta HTML 5 onartuko du gailuak eta 499 euroan ipiniko dute salgai. Android 3.0rako garatutako aplikazioak ere hartuko ditu.

## TELE-BEGI



AINHOA VITORIA

# Telebista ikusi telebista gabe

Sofan eseri eta telebista ikustera goaz; baina, horretarako, ez dugu telebista piztuko. Ez da beharrezkoa. Beste tresna batek indarra hartu du. Orain arte, gure sofako protagonista telebistaren mandoa izan da, baina, aspaldi honetan, ordenagailua zeresana ematen ari da. Ordenagailua gure telebista bihurtu da. Gure eta, batez ere, gure seme-alaben ohiturak, poliki-poliki, aldatzen ari dira eta ezagutzen genuen telebistak ez digu balio.

Telebista ikusteko filosofia ez dugu galdu, hori ez. Aldiz, ikusteko era aldatu da. Telebista kateek badakite etorkizuna non dagoen eta hasi dira euren saio guztiak interneten emititzen.

Ordenagailuek eta mugikorrek hainbat aukera eskaintzen dizkigute telebista pantaila batek ez dizkigunak momentu honetan ematen. Horien artean, denbora eta lekua; alegia, etxean bakarrik ez, edozein lekutan eta edozein momentutan ikusteko aukera ematen digu internetek. Beraz, telebista paretik kentzea zaila izango da. Horrela jarraituz gero, etorkizunean ez da arraroa izango mendi puntan albistegiak mugikorreko pantailetatik ikustea.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

#### ASTELEHENA, 13



**Gabez Takarraran lasterketa**

20:45

Eskoriatzan zapatuan lehenengo aldiz egingo den Gabez Takarraran lasterketak emandakoa jasoko dugu.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:10** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:15** Klik
**15:50** 28.Klip
**16:15** Gipuzkoa kultura
**16:45** Berriak
**17:15** Leku txiki bat
**17:45** Leku txiki bat
**18:10** Onein
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura

#### MARTITZENA, 14



**Sanda gaubeila berbagai**

20:45

Sanda gaubeila izango dugu, besteak beste, hizpide martitzeneko erreportaje saioan. 20:45ean hasiko da.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Hamaika.bit
**16:30** Ikusmira
**16:45** Berriak
**17:15** Bi tartean
**18:45** Berriak
**18:50** Nere herrie: Arraioz
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Erreportajea: Sanda gaubela
**21:20** Magazinea
**22:15** Harmailatik
**23:00** Magazinea

#### EGUAZTENA, 15





**Hamaika.bit saioa**

15:45

Teknologia berriei buruzko gaiak jorratuko ditugu beste behin *Hamaika.bit* saioan. Puri-purian dauden gaiak izango dira.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:10** Onein
**15:45** Hamaika.bit
**16:15** Klik
**16:45** Berriak
**17:15** Bizitegia
**17:40** Bi tartean
**18:15** Gipuzkoa kultura
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Tertulia
**21:45** Magazinea
**22:45** Tertulia
**23:45** Bi tartean

#### EGUENA, 16



**'Zine arraroa' topaketa**

22:15

Artelekun zine arraroaren gaineko topaketak egin dituzte eta horri buruzkoak kontatuko ditugu *Gipuzkoa kultura* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Hamaika.bit
**15:45** Tertulia
**16:45** Berriak
**17:15** Nere herrie: Arraioz
**17:55** Ipupomamua
**18:25** Ikusmira
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Bi tartean
**21:15** Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Magazinea
**23:45** Bizitegia

#### EGUBAKOITZA, 17



**Bergarako jaien saio berezia**

22:15

Aurtengo Bergarako jaiek emandakoa ikusi eta entzun ahal izango dugu eskainiko dugun saio berezi honetan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Ur eta lur
**15:55** Hamaika.bit
**16:20** Ikusmira
**16:45** Berriak
**17:15** Berbetan
**17:50** Ipupomamua
**18:25** Leku txiki bat
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Gipuzkoa kultura
**21:15** Magazinea
**22:15** Jaiak: Bergarako jaiak
**22:45** Tertulia
**23:45** Magazinea

### ARRASATE IRRATIA

#### Dragoi janerako txartelak zozketan, AEDk oparituta

Sanjuanak ate joka ditugu, eta, dragoi janerako sarrerak lortu nahi baldin badituzue, hemen duzue aukera. Egubakoitzean zozketatuko ditugu eta zozketan parte hartzeko bi bide dituzue: deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Animatu eta parte hartu.

#### Julio Galarta margolariaren erakusketa berbagai

Julio Galarta margolariaren omenezko erakusketari buruz hitz geingo dugu *Igo autobusera!* irratsaioan. Horretarako, Bea Arregi gonbidatuko dugu 107.7ko uhinetara eta hark emango dizkigu erakusketari buruzko xehetasunak, eta baita Galarta margolariarenak ere.

#### 'Ez Dok/n armairu' gay-les poesia irakurketa mintzagai

Hilaren 16an, eguenean, Kulturateko areto nagusian gay-les poesia irakurketa egingo dute, 18:30ean. Errezitaldiko protagonistak igoko ditugu Arrasate Irratiko autobusera eta emanaldiari buruzkoak jasotzeko aukera izango dugu, gertu-gertutik. Bertara joateko gonbidapena ere egingo dizuegu.

## TELE-ALBISTEAK

# Bergarako jaietan murgilduko gara gaur, 'Magazinea'-n

Jaiek eman dutenaren gaineko saio berezia ere eskainiko dugu egubakoitzean, 22:15ean

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bergarako jaiek astelehenera bitartean emandakoa jasoko dugu gaur, astelehena, *Magazinea* saioan, 19:45ean.

Jaietako giroa jasotzen kalean ibili dira bi kazetari kuxkuxero, Imanol Gallego eta Asier Alkorta, eta haiek izango dira Mendekoste jaien kolorea eta alaitasuna telebista bitartez etxera ekarriko dizkigutenak.

**Askotariko ekitaldiak**

Ekitaldi ugari daude aurtengo egitarauan eta gehientsuenetan izan gara. Egubakoitzeko Bitorianatxoren jaitsiera jendetsuan San Martin plazan izan ginen, jaiei hasiera emateko txupinazoa gertu-gertutik jasotzen, eta Udal Musika Bandaren kalejira ere jaso genuen; aurten, gainera, trajeak estreinatu dituzte-eta.

Zapatu goizean, urteroko haur eta gazteen plastika sariketan ere izan ginen, baita bakailao lehiaketan ere, dastamen guztiak dantzan jartzeko. Baina nobedadeak ere izan dira jaietan eta hantxe izan ginen iazko Mendekosteetatik hona jaio diren bergararrei ongietorria egiteko ekitaldian. Goitibehera txapelketak utzitako momentu dibertigarrienak jaso genituen San Martzialgo bidean eta erraldoien konpartsako bi kide berriei egin zitzaien ongietorria ere jaso zuten gure kamerek. Gainera, rock maratoian ere izan ginen Bergarako musika taldeekin.

Atzo, domeka, egindako *volley water* jokoan eta apar festan ere izan ginen; primeran pasatu genuen, gainera, bertaratutakoekin. Dantza pixka bat egiteko aukera ere izan genuen Euskadiko dantza solte txapelketarekin.

Gaur, astelehena, tabernen arteko herri kirolen txapelketan eta herri bazkarian ere izan gara. Beraz, ikusten duzuenez, saio borobila prestatu dugu gaurko zuendako.

Martitzenean, berriz, jaien bukaerari tarte bat emango diogu *Magazinea*-n eta egubakoitzeko saio berezian Bergarako jaiek eman dutena jasoko dugu zuontzat guztiontzat.



Errekortadoreak zapatu goizean. | JULIO CALLEJA

**Martitzenean jaien bukaerari ere eskainiko diogu tarte bat, 19:45ean**

**Kazetari kuxkuxeroek jaietan gertatu denaren berri emango digute**

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Jon Corbal Romera**
Ekainaren 18an, 2 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean, etxeko guztion partetik. Maiteren partetik muxu eta besarkada handi bat.



BERGARA
**Julen Echeverria**
Ekainaren 18an, 2 urte. Zorionak Maite eta Jonen partetik. Ondo pasatu.



ARRASATE
**Ione Ezkurra**
Ekainaren 18an, 23 urte. Zorionak, Ione! Danbor doinuekin jaixo zintzen eta hauekin ospatu eguna! Farra on bat bota! Zure familixa.



ARETXABALETA
**Malen Jurado Urkia**
Ekainaren 18an, Aretxabaletako Malenek 10 urte beteko ditu. Zorionak eta urte askotarako aitatxo, amatxo eta Adiranen partetik.



ESKORIATZA
**Unai Arana Romero**
Ekainaren 16an, 2 urte. Zorionak, gure etxeko printzea! Ondo-ondo zelebrau zure bigarren urtetxoa ta opari asko jaso! Besarkada handi bat etxekoen partetik Amama,aitita,tio,aita eta ama. *Patxito, txikitxo*!



BERGARA
**Ander Alcaide Morillas**
Ekainaren 16an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila bat aitatxo, amatxo eta Noraren partetik.



ARRASATE
**Raquel Ruiz Arana**
Ekainaren 16an, 23 urte. Zorionak, *guapa*! Tenerifen egon arren egun on bat opa dizugu, eta bueltan ospatuko degu! Urte askotarako!23 Muxu.



ARETXABALETA
**Alba Diaz de Mendibil Azkoitia**
Ekainaren 15ean, 3 urte. Zorionak, printzesi! 3 urte bete dituzun egun honetan primeran pasa dezazun opa dizugu; Claudia, Naroa eta Uxue. Muxu handi bana.



ARRASATE
**Ainhoa Astigarraga**
Ekainaren 14an, 41 urte. Zorionak, amatxo. Arrate eta aitatxoren partetik.



ESKORIATZA
**Montse Diaz de Garaio**
Ekainaren 14an, 39 urte. Zorionak, amatxo. Muxu handi bat Aroa eta aitatxoren partetik.Belarritik tirakada handi-handi bat.



ARRASATE
**Julen Mendarozketa**
Ekainaren 14an, 14 urte. Zorionak, etxeko guztion partetik.



OÑATI
**Iker Plazaola**
Ekainaren 13an, 10 urte. Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak Iker. 2011 urtean familia guztiaren partetik oso ondo pasatu!



ESKORIATZA
**Ane Sanz Eraña**
Ekainaren 13an, urtebete. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian eta patxo handi bat etxeko danan partetik.



ARRASATE
**Jone Alonso Perez de Arrilucea**
Ekainaren 13an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ederto pasatu eguna Maeztun.4 kandelatxoei putz fuerte-fuerte egiozu, poxpolin. Patxo pilaeta goxoak, etxekoen eta bereziki Beñat eta Marenen partetik. Muxuak, marimatraka!



ELGETA
**Ander Sarasua**
Ekainaren 13an, 5 urte. Azkenean bai, iritsi da zure eguna! Zorionak! Aitatxo, amatxo eta Urtzi.



BERGARA
**Ane Pescador Cid**
Ekainaren 13an, 2 urte. Zorionak eta ondo pasatu! Leire, Oier, Aratz eta Ekhiren partez. Muxu handi bat.



ARETXABALETA
**Leire Altuna**
Ekainaren 12an, 40 urte. Zorionak, Lei! 40 urte aurten! Noiz eta non ospatu baino garrantzitsuagoa, zenbat gauza ditugun ospatzeko! Muxu berezi eta handi bat (hobe bi) kuadrilako guztion partetik. Aupa Valentine's Party! Aupa K.Otxagabia!



ESKORIATZA
**Mikel Elortza Cobos**
Ekainaren 12an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu. Muxu handi bat zure familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Maddi Goenaga Jauregi**
Ekainaren 11n, 10 urte. Zorionak familiaren partetik. Ondo pasatu jaixak eta urtebetze eguna!



ANTZUOLA
**Amaia Mundiñano**
Ekainaren 11n, urte asko. Zorionak, *Navarrica*! Ez gastatu diru guztia barraketan eta utzi zerbait San Ferminetarako. Ondo pasatu!



ARRASATE
**Rosa Diaz**
Ekainaren 10ean, Urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia etxekoen eta, batez ere, Landerren partetik.



OÑATI
**Eider Barreno Arza**
Ekainaren 10ean, 6 urte. Zorionak bihotz-bihotzez, printzesa! Segi horren alaia eta polita izaten. Muxu handi bat eta egun zoriontsu bat pasa dezazula familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Irene Aranburu Onaindia**
Ekainaren 9an, 2 urte. Zorionak, guapa, eta muxu handi bat Eneko, aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Juan Arza Urizabel**
Ekainaren 9an, 67 urte. Zorionak, aittona! Egun ona pasatu zure 67. urtebetetzean, zure iloba eta familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Iker Iturbe Ruiz**
Ekainaren 9an, 7 urte. Zorionak, Iker eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxekoen eta, berezik,i Malen eta Amaiurren partetik.



OÑATI
**Garazi Irazabal Plazaola**
Ekainaren 8an, 4 urte. Zorionak, Garazi ,etxeko danan eta,batez be zure ahizpa Marenen partetik. Marrubizko muxuak! Ondo-ondo pasatu merendolan.



OÑATI
**Felisa Beitia eta Ekain Zabaleta**
Ekainek ekainaren 8an, 5 urte eta amamak ekainaren 9an, 65 urte. Zorionak, Ekain eta amama. Ondo-ondo pasatu zuen egunak, danok ospatuko dugu txokolate ederrarekin eta muxu potolo-potoloak etxeko denon partetik, bereziki Helene, Izaro eta Aiuriren partetik.



OÑATI
**Aner Guridi Arriaran**
Ekainaren 8an, 2 urte. Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo asko amatxo, aitatxo eta familixa danan partetik.



ARAMAIO
**Hegoa Bengoa Gomez de Segura**
Ekainaren 8an, urtebete. Zorionak, Hegoa! Urtetxo bat bete dozu jada! Ilargik lagunduko dotzu kandelari putz egiten! Ondo-ondo pasatu eta jaso patxo handi-handi bat aitatxo, amatxo eta zure ahizpa Ilargiren partetik!



ARETXABALETA
**Irati Garcia Aranzadi**
Ekainaren 7an, 9 urte. Zorionak eta musu handi bat gure etxeko printzesarentzat. Ondo pasatu eta disfrutatu merendolan familia eta lagun guztiekin.



ESKORIATZA
**Amaia Isazelaia**
Ekainaren 6an, 39 urte. Zorionak, *tia güena*! Urte askotarakoeta topa dezagun zuregaitik! Txokolatezko patxo potolo-potoluak! *"las mondra"*....je,je,je



OÑATI
**Gizane Martin**
Ekainaren 13an, 6 urte. Araotzeko gure printzesatxuak aurten 6 urtetzar. Zorionak polittori eta ondo ondo pasau zure egunian! Patxo haundi bat etxeko danon partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu GOIENAren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra.
Baita Goiena paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez GOIENAko ordezkaritza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

BABESLEA
IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



**Auritz Laskurain Gabilondo**

Osintxu. 3,570 kilo. Ekainaren 5a. Gurasoak: Eider eta Etor. Argazkian, Auritz gurasoekin.



**Olatz Urrutia Lasagabaster**

Eskoriatza. 3,480 kilo. Ekainaren 4a. Gurasoak: Bidatz eta David. Argazkian, Olatz ahizpa Enararekin.



**Maren Juarez Zurutuza**

Beasain. 3 kilo. Ekainaren 3a. Gurasoak: Argiñe eta Joseba. Argazkian, Maren amarekin.



**Maialen Gallego Bereziartua**

Arrasate .3,580 kilo. Ekainaren 6a. Gurasoak: Ane eta Txema. Argazkian, Maialen amarekin.



**Beñat Barbero Madariaga**

Bergara. 3,500 kilo. Ekainaren 7a. Gurasoak: Maite eta Iker. Argazkian, umea amarekin.



**Maiane Gonzalez Lazkano**

Aretxabaleta. 3,930 kilo. Ekainaren 7a. Gurasoak: Idurre eta Iñaki. Argazkian, umea lotan sehaskan.



**Ager Belar Barrutia**

Atxondo. 3,060 kilo. Ekainaren 9a. Gurasoak: Leire eta Anartz. Argazkian, umeea gurasoekin.



**Aretx Garitaonandia Arruabarrena**

Abadiño. 3,350 kilo. Ekainaren 8a. Gurasoak: Idoia eta Andoni. Argazkian, Aretx aitarekin.



**Gari Sanchez Vivar**

Eskoriatza. 2,640 kilo. Ekainaren 9a. Gurasoak: Rakel eta Alberto. Argazkian, umea gurasoekin.

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK



Arabako herria
Gaizkataren arraba
Jan-edanen murrizketa
Biarnokoa
Aletua
Oparoa
* Austriako hiriburua
Kezka
Ahal du
Inausi
Halere
Noka, dituzu
Hegaztien gorotz
Bi zati bi
Zero, bokalik gabe
Informazio unitate
Debako
Meta boka-lik gabe
Ghanako hiria
Hausnartua
Iodoa
Uranioa

LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Laino artean amesteko



*Up* filman globoek etxe bat altxatzen zuten. Kasu honetan, airearen indarra ez da horrenbestekoa, baina beti dago hasiera bat.
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Sentitzen dut eragindako zaurituengatik, baina beharrezkoa zen"

**FELIP PUIG** | GENERALITATEKO BARNE KONTSEILARIA

Catalunya plazako *haserretuen* kanpalekuan mossoek izandako esku-hartzeak 120 zauritu baino gehiago eragin zituen. Horren aurrean, barne kontseilariak esan du asmoa ez zela plaza utzaraztea, objektu arriskutsuak kentzea baizik. Eskerrak!
**www.20minutos.es**

## EGURALDIA

**Max.** 21º

**Min.** 13º

Goizean zaparradak bota ditzake, baina orduak pasa ahala hodeiak desegingo dira.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA

# goiena

2011-06-13

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Nakor Markez** Argiketaria, surflaria, karate monitorea... eta munduaren bukaerako azken konkistatzailea. Zarauztarrak sufritzen eta irabazten dakiela erakutsi du. | TXOMIN MADINA

# "Patagoniatik aseta itzuli arren, berriz bueltatzeko gogoz nago"

**1. Patagoniara eramango zaituen abioira igotzen ari zara. Zer ari zara pentsatzen momentu horretan?**
Beste lagunetan ari naiz fijatzen. Ez dakit nire taldekoak izango diren edo beste taldekoak, baina denei goitik behera begira nago.

**2. Estrategia, forma fisiko ona, burua argi... Zein da konkistatzaile izateko sekretua?**
Gauza guztietan jarri behar da arreta: dena behin eta berriz begiratu, ze aukera dituzun ikusi, ze material duzun aztertu... Eta baita burua lasai mantendu ere. Nire garaipenaren zati handi bat hor egon dela esango nuke.

**3. Programan bizitako momentu bakar bat aukeratu behar izanez gero, zein izango litzateke?**
Akaso, Poxek nirekin elkarbanatu zuen bazkaria. Zalantza barik, momentu onak txarrak baino gehiago izan dira.

**4. Gosea izan ei da okerrena. Zer izan zen Zarautzera bueltan jan zenuen lehenengo gauza?**
Txuleta, sagardotegiko txuleta ederra. Gosea dela-eta oso gaizki pasatu nuen Patagonian.

**5. Programan zehar, nork erabili ditu trikimailu gehiago: lehiakideek ala antolakuntzak?**
Esango nuke pareko ibili garela. Gu aukera genuenean saiatzen ginen egiten. Antolakuntzari dagokionez, ziur ezer ez badakigu ere, susmoak baditugu.



JON POZO

### LEHENDAKARIA BANINTZ

#### "Herriari entzungo nioke"

"Lehenengo gauza izango litzateke herriari entzuten saiatzea, ea zein eskaera dituen. Nik uste dut garrantzitsuena izango litzatekeela etxebizitzen prezioak jaistea, edo babes ofizialeko etxe gehiago egitea. Horren beharra ikusten dut".

**6. Korta Kapitain: aldeko ala kontrako?**
Aldeko. Hamar bat ematen diot elkarbizitzan, oso-oso ona izan zen; badu bere *malaletxea*, baina uste dut ondo etorri zitzaigula espabilatzeko.

**7. Ia urte erdi irabazlea zarela ia inori esan barik. Sekretuak gordetzen, behintzat, badakizu...**
Bai, baina kostata, gogorra izan da. Neskalagunari bakarrik esan nion; gainerakoek galdetzen zidaten, eta, gogorik ez falta arren, isilik egon naiz.

**8. *El Conquistador*-tik *Gran Hermano*-ra salto egin duenik egon da. Aukera izanez gero?**
Diru asko eskainiz gero, agian.... Baina ez dut uste. *El Conquistador*-era apuntatu nintzen probengatik, abenturagatik, nire burua zertarako gai den ikusteko.

**9. Ezkontzeko bazenuen neskalaguna, orain baita dirua ere. Datarik?**
Oraindik ez dago ziur, bioi etorri behar zaigu-eta ondo; baina, seguruenik, datorren urteko uda inguruan. Jendeak egin dizkit txantxak honen kontura, baina animatu ere egin naute.

**10. Eta aurrerantzean, zer?**
Patagoniara itzultzeko gogoz nago, baina lehiakide edo kapitain moduan, *Conquistador de Conquistadores* edo halako zerbaiten. Patagoniatik aseta itzuli arren, berriz bueltatzeko gogoz nago.

## BIHARAMUNA

**JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL**



### Julio Galarta

Urteari bizitza-ilusioz heldu zion gizonak agur esan zigun betiko iragan apirilaren 25ean. Gugandik fisikoki desagertu zen artistak, ordea, gurekin segituko du, bere obrak dirauen bitartean. Halaxe da. Julio Galarta Bengoari nagokio, Arrasatek emandako artistarik bikainena.

Beste modu batez egin nahiko nuen gaurko aipamena, Julioren ohiko irribarreak gidatua. Ezintasunean, nire hitzak umezurtz bezala korritzen ari dira bata bestearen atzean, bihurguneren batean ostera lagunarekin topo egingo dudan esperantza urrunean. Baina badakit ezetz, ez dela gure arteko solasaldi adoregarria errepikatuko eta bere oroitzapen eta artearekin konformatuko naiz.

Julio Galartari eskainitako erakusketa bat inauguratuko da datorren ostiralean Kulturaten. Ahalegin handia egin dute antolatzaileek aurkezpen duina osatzeko. Eta lortu dutelakoan nago. Eskerrik asko, denei. Galartak arte legatu zoragarria utzi digu eta, ene ustez, arrasatear margolariaren ekarpena bere dimentsioan ezagutzea lagun liezagukeen egitasmo zabalago baten hasiera izan beharko luke erakusketa honek.

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia



iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

OPARIA
Indukzio-plaka uztailaren 15a arte